

Goienkaria

2009ko martxoaren 13a > Egubakoitza > IX. urtea > 368. zenbakia > Doan banatzeko

www.goiena.net

G2a

'Miserableak' ikuskizuna Bergaran > 37

BERGARA
Arcelor Mittaleko langileek bilkura egin dute geroaz kezkatuta > 07

ANTZUOLA
Etzi, domeka, inauguratuko dute auditorium berria > 13

ARRASATE
Babestutako beste 356 etxe inguru eraikiko dituzte Zerrajeran > 14



JENDARTEA > SAHARARRAK

'Oporrak bakean' kanpaina

Saharako umeak udan etxean hartzeko kanpaina abiarazi dute > 06

ZERBITZUAK > ZABORRA

Zabor tasak gora egindo du uztailetik aurrera

Gaur egun Mankomunitatea arduratzen da zaborraren zerbitzu osoaz; hau da, edukiontzietatik batu eta zabortegiraino eramateaz. Uztailetik aurrera, berriz, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuko du bere gain prozesuaren parte bat. Horren ondorioz, zabor tasan igoera igarriko dugu. > 04

EUSKARA > KORRIKA 16

Korrikako kilometroak salgai

Arrasateko AEK euskaltegian eros daitezke, 380 eurotan > 06

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-07
Iritzia > 08
Elkarritzeta > 09
Gutunak > 10
Herriak > 13-33
Kirola > 34-36
Kultura > 38-39
Sailkatuak > 40
Gazteak > 42
Telebista-Irratia > 43
Zerbitzuak > 44
Eskelak > 45
Berri-zakua > 45
Non-zer > 46-47

EUSKARA > B-1 AGIRIA EUSKARAZ EGITEKO MATERIALA

Autoko gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala gertu da

ELKARLANA Mankomunitateak prestatu du eta hainbat autoeskolaren laguntza izan du materiala gertatzeko

ORDENAGAILUAN Ohiko gidaliburuaz gain, multimedia programa ere gertatu du AEOL etxeak

AUKERA Azterketa euskaraz egiteko eskubidea badago; orain aukera izango da prestakuntza ere euskaraz egiteko > 02-03



HESIAN 14:45 aldera heldu ziren ertzainak Portaloiria eta Banco Guipuzcoanoko hesian zeuden argazkiak kendu zituzten.

ARANTZAU EZKIBEL

Portaloko euskal presoen argazkiak kendu egin zituen atzo Ertzaintzak

Espaniako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren aginduz Arrasateko Portaloko hesian urtean egon diren euskal presoen argazkiak kendu zituen atzo

Ertzaintzak. Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren iritziz, "terorismoa goraipatzeko edo justifikatzeko delitua" da irudi horiek han edukitzea. > 07

INDARKERIA > EMAKUMEA

Emma Larreta:
"Bikotekideak hil nahi izan zaituela onartzeak ematen du mina"

Bi urte pasa dira Emma Larretari bikotekideak 27 labanka da eman zizkionetik. Orain, emakumeen aurkako biolentziaren gaineko hausnarketa piztu nahian dabil. > 06

KIROLA > DUATLOIA

Oñatiko XVIII. duatloia bihar, zapatua

Sekula baino parte-hartze handiagoa izango du: 400 atletak hartuko dute parte; 16:00etan abiatuko dira, plazatik > 34

GOKI ERREFORMAK S.L.
OBRAK ETA PROIEKTUAK

- Teilaratuak
- Fatxadak
- Barruko obrak



Irizar Ibilbidea, 1 behe 20570 BERGARA
Tel. 943 76 53 42 - Faxa 943 76 52 16
bergara@gokierreformak.es / www.gokierreformak.net

HIZKUNTZA > GIDABAIMENA

Gertu dago gidabaimena euskaraz ateratzeko materiala

ELKARLANA Debagoineneko Mankomunitateak hainbat autoeskolaren premien berri izanda abiatu zuen proiektua eta haien izan ditu lagun materiala gertatzeko

MULTIMEDIA Ohiko gidaliburuaz gain, multimedia programa euskaraz izango da eskolak emateko edo ikasleek euren kabuz ikasteko eta testak egiteko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ARRASATE
Autoa sartu eta nahi dugun tokira eraman ohi gaitu bideak. Autoa gidatzeko, ordea, baimena ezin besteko da. Baimenerako bidea orain arte, askok hala nahi izan arren, ezin izan da euskaraz egin gurean. Baino hemendik aurrera gidabaimena euskaraz atera nahi dutenei bidea erraztu die Debagoineneko Mankomunitateak; horretarako, materiala gerta-tu eta asteon aurkeztu du.

Herriko autoescolekin lanean ziharduten Arrasaten eta bazuten plan bat euskaren normalizaziorako. "Agiriak, errotuluak... euskaratuta zeuden... baina falta zena gidabaimena ateratzeko gertatzeko materiala zen. Azterketa euskaraz egiteko aukera eta eskubidea egon bazegoen, baina ezin zuten inor animatu materialik egon ezean", azaldu digu Arrasateko Udaleko Euskara teknikari Aintzane Lasak.

Gidabaimenerako materiala, hortaz, autoeskoletako premiak eraginda etorri da: "Autoescolekin zerbitzuza eman nahi zuten, baina ezin zuten, eta ikasleek gidabaimena euskaraz atera nahi eta ezin zuten; hortaz, orain guztien-dako egina dago", dio Mankomunitateko Euskara teknikari Amaia Axpek.

Materiala gertatzeko elkarlana ezinbestekoia izan da. Aintzane Lasaren esanetan, "badira autoeskolak oso jarrera ona era-kutsi dutenak egitasmo honen aurrean, eta elkarlanean jardun dugu; informazioa lortzen, materiala gertatzen... Orain arte urte askotan Igorreko autoescola batean baino ez da aukera eskaini, eta harek erabili izan duen materia- la gure esku ipini du eta asko

erraztu digu lana". Elkarlanetik abiatutako proiektuaren zama AEOL argitaletxeak hartu du bere gain azken materiala sortzeko.

ARIKETAK EUSKARAZ
Testak multimedia eran daudenean jende gehiago hasi da azterketa euskaraz egiten, baina Debagoinen orain artean ez. Hortaz, material hau kaleratzearen helburuak honakoak dira: "Gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera eskaintza, eskaera bazegoelako baina aukerarik ez; eskaera handitza gazteen artean, D ereduan ikasi eta gero autoeskolara doazenean ez dute-lako aukera hori. Bestalde, ez da euskara proiektua bakarrik; gure lana autoeskolen lanik gabe hutsean geratuko litzateke", azaldu digu Amaia Axpek.

ORDENAGAILUAN ERE
AEOL enpresak bost multzotan banatu ditu euskarazko materialak: gidalibura; test gidatuak; azterketa testak; multimedia programa, aurrekoak biltzen dituena eta irakasle funtzia bete dezakeena; eta kartelak.

Bergarako Udaleko Euskara teknikari Eli Pairosen esanetan, "lehen autoeskoletako materiala izaten ziren liburua eta testak. Orain, gidabaimena ateratzeko eskuliburua euskaraz kaleratuko dugu eta liburu hori guztia multimedia programa batean dago, eta horrek dauka lotura zuzena testekin. Denetarik dago irakasleen artean, baina multimedia programa euskaraz dagoenez ez dago irakaslearen beharrak teorikoa ikasteko. Irakaslek jakin dezake euskaraz, baina hitz teknikoak, beharbada, ez".

**Orain arte
azterketak euskaraz
egiteko aukera
bazegoen arren,
materialik ezean
Debagoineneko
autoeskoletan ez
zituzten ikasleak
horretara bideratzen**

**AEOL enpresakoek
eta euskara
teknikariek ibarreko
autoeskoletan
euskarazko
materiala aurkeztu
eta gero bakoitzak
erabakiko du ikasleei
eskaini ala ez**



Ezkerrean, AEOL enpresako Angel Rivilla eta Mankomunitateko Euskara teknikari Amaia Axpe;

Amaia Axpek hauxe gainera-dugu: "Zalantzak izanez gero, gaztelera-zko programa beti izango dute eskura. Gure asmoa ez da inor bantzterea, baizik eta euskaraz tresna eskura ipintzea aukerak zabaltzeko".

Funtzionamendua ulertzeko onena programa erabiltzea bada ere, AEOL enpresako Angel Rivilla eman digu multimedia programaren berri: "Eskuliburuaren egitura bera du eta irudiak zein azalpenak erabiltzen ditu testu eta ahots bidez. Azalpenak eman ditzake irakasleak horretan oinarrituta. Baino badago irakaslea ahotsarekin ordezkatzen eta irakasle birtuala izateko aukera ere. Programa autoeskoletan instalatzen da eta testak egiterakoan laguntzeko ere balia daiteke. Konfiguratzeko aukera ere ematen du; esaterako, gela handia bida, letraren tamaina handitu egin daiteke edo testua ezkutatu baldin eta irakasleari berak azalpenak ematea gustatzen bazaio. Ikaslek edo irakasleek euren beharretara molda ditzakete".

Autoeskoletako kartelak dira beste baliabide bat, eta horiek elebidunak izango dira. "Autoescolekin lanean hasi ginenean esan ziguten behartuta daudela ikaslek ikus ditzaten seinaleen irudiekin bistan kartelak izatera, eta denak gaztelaniaz zeudenez egin ditugu kartel elebidunak, bestela toki handia hartuko zuketelako. Zortzi kartel dira guztira eta Debagoineneko autoescola guztiei guk banatuko dizkiegut", esan digu Eli Pairosek.

Material hori guztiori da azterketa teorikoa gertatzeko. "Praktiketako hizkuntza irakaslearen eta aztertzailearen arab-

rakoa da. Orain badago aukera azterketa praktikoa euskaraz egiteko. Guk espero dugu eskaria handitzean ahalegin berezia egitea aztertzaile gehiago trebatzeko", esan digute Debagoineneko Mankomunitatetik.

AUTOESKOLEI LAGUNTZA
Materiala autoescola guztiei eskainiko diete, Debagoinenek hasita. "Materiala autoescola guztiei eskainiko diegu, dirulguntza lerro bat ireki dugu horretarako eta materiala aurkeztu ostean, bakoitzak erabakiko du bere aukeren arabera materiala hartu ala ez. Debagoinera ez ezik Euskal Herri osora zabaltzea da gure asmoa", dio Axpek.

Materiala aurkeztu ostean, jarraipena egingo dute. Amaia Axperen ustez, "eskaera sortu beharra dago, gazte askok ez daukalako eskaintzaren berri". Eli Pairosek azaldu digu badutela asmoa sensibilizazio kanpaina egiteko: "Ikasturte amaieran 18 urte dituztenak animatuko ditugu gidabaimena euskaraz ateratzera. Ibarreko herri batean aukera eskaintzen bada eta beste batean ez, euskaraz egin nahi duena, beharbada, mugituko da autoescola batetik bestera; hortaz, uste dugu autoescola gehienek eskainiko dutela aukera".

Dirulaguntza eskaini arren, Mankomunitatetik uste dute besetako laguntzak ere beharko direla, beharbada: "Hiztegia dela, formazioa dela... ikusiko dugu banan-banan zein behar duen autoescola bakoitzak. Birziklatu egin beharko dute irakasleek, euren eguneroako jardunean ez daudelako ohitura euskaraz erabiltzera gehienak".



I.A.
eskuman, Aintzane Lasa eta Eli Pairo, Arrasate eta Bergarako udaletako teknikariak.

EGUNERATZEEN ZALANTZA

Materiala gertatzerakoan euskalaren kalitatea kezka nagusia izan arren, eguneratzeen kontuak ere eragin du zalantzariak: "Gidabaimenari dagokionez, asko aldaten dira gauzak, eta konpromisoa hartu dute eguneraketak lehenbailehen egiteko, gaztelaniako aldatzen den erritmo berean. Ea betetzen duten", dio Axpek.

Angel Rivillak esan digu multimedia programak erraztu egiten duela hori: "Ehuneko oso txikia da gaur egun testak paperean egiten dituzten autoeskolena, nahiz eta azterketa paperean egin oraindik. Paperean aldaketak egitea, eguneratzea, oso motela da; hortaz, euskarri informatikoa ezinbestekoa da, batik bat eguneraztetarako".

Igorreko Arratia autoeskolan euskaraz ateratzen dute baimena %80k

Hutsuneari aurre hartu eta Igorreko Arratia autoeskolako Unai Zuluagak bere kabuz apunteak gertatu zituen, eta lortu zuen bere ikasleek gidabaimena euskaraz ateratza. Ahalegin handiaren ondoren lortutako emaitzarekin eta batik bat multimedia programarekin pozik dago Zuluaga. "Gurean %80k ateratzen dute gidabaimena euskaraz. Euskaraz edo gaztelaniaz, batean edo bestean ez da errazagoa; norbera zein hizkuntzatan bizi den, zeinetan duen erraztasuna hizkuntza horretan atera behar luke gidabaimena. Euskaraz bizi banaiz, logikoa da euskaraz ateratza gidabaimena, eta aukera eskaini behar da. Gure eremuan euskaldun kopurua oso handia da eta hori izan zen zen guk egitasmoa abiarazteko arrazoia".

Materiala eurek ez ezik beste autoescola batzuek eskura izateak ere poztu du: "Pozten naiz, nik uste nuen baino jende gehiago dagoelako aurkezpenean eta denek bat egingo gero materiala eskaintzeko egitasmoarekin, seinale ona da".

Bidea luzea izan da, baina hel mugara iritsi dira. Helmugetako batera bai, baina aurrerantzean bidean hainbat geldialdi egingo dituzte. "Debagoieneko autoeskoletara joango da AEOLeko ordezkari bat herri bakoitzeko euskara teknikariarekin egitasmoa azaltzera". Ikuñiko dute ea zenbat lagun sartzen diren euskarak abiarazitako autora.

Jokin Iturriotz > Leniz autoeskolakoa

"Azterketa euskaraz egin nahi duen ikaslea bakarra izanda ere, errespetatu egin behar da eta aukera eman"

I. A. > ARRASATE

Leniz autoeskolakoa da Jokin Iturriotz eta Arrasaten zein Eskoriatzan ematen dituzte eskolak. Batik bat Eskoriatzan jaso dute gidabaimena euskarazateratzeko eskaria.

Zer iruditzen zaizu Debagoieneko Mankomunitatearen egitasmoa?

Eusko Jaurlaritzak atera zuen liburu bat gidabaimena prestatzeko eta ale bana bidali ziguten, baina ez zen batere erabilgarria. Aukera egon da euskaraz egiteko azterketa, baina materialik ez zegoen eta gu ere gertatuta ez geundenez inork ezzion aukera horri eusten. Mankomunitateko esan nien gurera etortzen zela jendea euskaraz egin nahi zuena azterketa, eta hortik abiutu zen; hortaz, ondo iruditzen zait.

Zuk ere hartu duzu parte, ezta?

Eskatu zidaten kartel batzuk euskaratzeko eta bide batez esan nien bazela Igorren autoescola bat materiala euskaraz zena, eta harekin harre-



I.A.

manetan ipinita ekin zioten dena prestatzeari. Hartan oinarritu eta AEOL enpresak besteokin elkarlanean prestatu du materiala.

Hala ere, ba omen duzu kezkarik euskarazko materialaren gainean.

Bai. Gaztelaniazko bertsioan aldakatik daudenean berehalako eguneratzen dituzte, baina nire zalantza da euskaraz gauza bera egingo duten.

Goienkaria ASTELEHENKO astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa Martxoko zozketa

Sariak irabazteko HARPIDETU!

Tel.: 943 08 10 50

harpidetza@goiena.com

Kuota: 40 euro

SARRERAK



Bruesa GBC- MTT Estudiantes partidurako sarrerak.
BIDALI AG BRUESA 5533 zkra

ZIRA



Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.

LIBURUAK



Pamiela argitaletxearen umeentzako liburuak.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

KAMISETAK



Korrika-ko 4 kamiseta.
BIDALI AG KORRIKA 5533 zkra.

SARI NAGUSIA

PARTE-HARTZALE GUZTIEN
ARTEAN ZOZKETATUKO DA

URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZA dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batzen sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotuan sartzeko, haien zuzentzeko edo eeztatzezko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com



Edukontzi berdeetan uzten ditugun poltsak Akeiko plantara eramatzen dira.

JASONE ZABALA

MANKOMUNITATEA > ZABOR ZERBITZUA

Zabor tasak gora egin lezake datozen hilabeteetan zehar

Uztailean, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuko du zabor zerbitzuaren atal baten ardura

Tasaren igoera noiz aplikatuko den zehaztea Debagoineneko udal bakoitzaren ardura izango da

NEREA MENOR > BERGARA

Uztailietik aurrera, Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuko du zabor zerbitzuaren atal baten ardura. Herritarrok ez dugu aldaketarik igarriko zerbitzuan, kaleko eta garbiguneko zerbitzuak Mankomunitatearen erantzukizuna izaten jarraituko du-eta.

Orain arte, partzuergorik ez zegoenez, Mankomunitatea ardu ratzen zen zabor zerbitzu osoaz. 2007an, Gipuzkoako mankomuni-

tateen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean hainbat hitzarmen sinatu ostean, erabaki zen partzuergoaren eraketa. "Gipuzkoa osoan hartu den erabakia da eta probintzia osoan izango du oihartzuna. Uztailietik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuko du lan horren erantzukizuna eta mankomunitateok zaborra transferentzia plantetaraino eramango dugu. Hortik aurrera, partzuergoak egingo du transferentzia

eta zabortegietarinoko garraio-az arduratuko da", adierazi digute Mankomunitatetik.

TASAREN IGOERA

Diruari dagokionez, aldiz, alda-keta igarriko dugu: zabor tasa igo-tzeko asmoa dago. Mankomunitatean diotenez, "igoeraren zen-

ESANAK

**"Igoeraren zenbatekoa erabakitzeko,
ondorengo
hilabeteetan
planteamendu
orokorra egingo da"**

Debagoineneko Mankomunitatea

batekooa erabakitzeko, ondoren-go hilabeteetan planteamendu orokorra egingo da. Gero, udal bakoitzak erabaki beharko du noiz igoko duen tasa. Igoera aur-ten izan liteke, sei hilabeteko honetan; batzuek datorren urte-rako laga dezakete, agian".

ZABORRAREN IBILBIDEA

Ibarrean, edukontzi berdeetan uzten ditugun hondakin poltsak; astean hiru egunetan bildu eta Akeiko transferentzia plantara eramatzen dira. Han edukiera handiko kamioietara aldatzen da eta gero Beasaingo Sasieta zabortegira eramatzen da.

Hemendik aurrera, Akeiko plantaren kudeaketa eta hortik aurrera egiten den garraioa Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak eramango du.

ERLIJIOA

Asis Sarea aurkeztu zuten atzo Oñatin

Hil bakoitzeko azken egunean elkartuko dira Bidaurretan, otoitz egiteko

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
Asis Sareak aurkezen eki-taldia egin zuen atzo arratsal-dean Bidaurretako frantziskotarren komentuan. Besteak beste, Asis Sarearen gaineko informazioa eman zuen Jose Miguel Dorronsoro frantziskotarrak. Esan zuen "eguneroko bizimoduan espi-ritualtasun frantziskotarra ezagutu, partekatu edo bul-tzatu nahi duen laikoen sare irekia" dela, eta aurreran-tean hil bakoitzeko azken egunean otoitzaldia egingo dutela Bidaurretako elizan, 19:30ean.

Euskal Herriko hainbat herriean biltzen dira otoitz egiteko. "Orain arte, hemen-dik gertuen Donostian eta Elgoibarren egiten zituzten otoitzaldiak; aurrerantzean, debagoiendar guztiak Oñati-ria etor daitezke", esan zuen aurkezpenean.

IZENA EMATEKO AUKERAK

Asis Sareari buruzko infor-mazioa ematerakoan, parte hartzaleekin zer partekatu nahi duten azaldu zuten: "Alde batetik, gizakiok gure alderdi espirituala berresku-ratu behar dugula uste dugu; eta beste alde batetik, espi-ritualtasun frantziskotarrak ekarpen garrantzitsuak egin ditzakeela uste dugu".

Asis Sarea urriaren 25ean sortu zuten Arantzazun, eta gertutik ezagutu gura dutenei dei egin zieten. Parte-hartzai-leek, ezinbestean, helbide elek-tronikoren baten bidez konektatuta egon beharko dute. Ize-na eman nahi dutenek bi aukera dituzte: 646 21 48 96 tele-fonora dei dezakete edo asis-sarea@aranatzazu.org helbi-dera mezua bidal dezakete.

ION
leihoak

- LEIHOAK • HORMA ARMAIRUA
- ATEAK • ZOLUAK

PVC, ALUMINIOA
ETA POLIURETANOA



20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoinen industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: 943 79 11 35 Faxa: 943 77 31 20

01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: 945 26 71 73

Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com



JENDARTEA > HAUR SAHARRAK

'Oporrak bakean' kanpaina abiarazi dute Iesbaa eta Nubi elkarretek

Bergarako Bubisher elkarreka ere laster hasiko da kanpainarekin; apiril amaieran triptikoak banatuko dituzte herriko postontzietan

NEREA MENOR > BERGARA
Nubi eta Iesbaa elkarreka Oporrak bakean programa prestaz dabilta. Urtero legez, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate eta Oñati Tindoufeko saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik 8 eta 12 urte bitarteko haurrek ekartzeko asmoa dute. Ume horiek udako oporrez gozatzeko aukera izan dezaten eta aste batzuetan, behintzat, kanpamentuak bizi modu gogorra alde batera lagatzeko asmoarekin ekartzen dituzte gaztetxoak.

Izan ere, Marokok Mendebaldeko Sahara indarrez hartzetik, herri sahararra errefuxiatuen kanpamentuetan bizi da.

BI MODALITATE

Guregana etortzen diren ume sahararrei laguntzeko bi modalitate daude iaztik: lehenengoan, ohikoa, familia voluntarioek haurrek etxeen hartzen dituzte bi hilabetetan zehar. Umeak jantzi, jaten eman, familiako ekin-



Haur sahararrak Bergarako San Martzial mendian.

GOIENKARIA

tzetan parte hartu, medikuaren gana joan... etxeko beste kide bat balira bezala egongo dira haurrek familietan.

Bigarrena, berriz, erabat berria da; aurreko urtean aplikatu zen lehenengo aldiz. 15 haurrek etorriko dira udalekuetara. Bi

hilabetean zehar Lasturko Aterpetxeen biziko dira. Programa horretan parte hartzen duten haurrek ez dira inoiz errefuxiatu kanpamentuetatik irten, eta, gainera, kanpamentu barruan Gerra eta Minen Biktima Zentroko haurrek dira; hau da, haurrek

zentoan senideak dituzte eta haien paralitikoak, hemiplejikoak edo itsuak dira, pertsonen kontrako mina batek eztanda egin dielako edota gerra garaian bala erasoak jasan zituztelako. Aurreko urtean programa berri honetan parte hartu

zuten haurrek aurten familiatuan egotea da elkarreken asmoa.

Elkarretek, beraz, bi deialdi egiten dituzte: "Alde batetik, uztailean eta abuztuan familien haur saharar bat izateko animatzen zaitzutegu. Bestalde, Lasturren izango diren haurren bidaia, bisatua, egonaldia, janaria... eta gastu guztiak aurre egin ahal izateko eta proiektua aurten ere aurrera atera ahal izateko ahal duzuen heinean dirulaguntza ematea".

Lagunza eman nahi duenak ondorengo kontu korronteetan egin dezake: Euskadiko Kutxa 30350002160020047050; La Caixa 21006838480200002671; Gipuzkoako Kutxa 21010055670126379429.

Informazio gehiagorako, Nubi eta Iesbaa elkarreken telefonora dei daiteke, edo bestela, euren helbide elektronikora idatzi. Nubi Elkarteak: 685 72 48 17; sahara_arrasate@hotmail.com. Iesbaa Elkarteak 626 63 91 64; iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com.

BUBISHER ELKARTEA

Bergarako Bubisher Elkarreka ere Oporrak bakean programa antolatzen du urtero. Apiril amaieran emango diote hasiera kanpainari. Etxeetako postontzietan triptikoak banatuko dituzte informazio guztiarekin. Berrian agertuko dira telefono zenbakiek, elkarreken egin beharrekoak eta baita kontu korronteen zenbakiek ere.

POLITIKA > EPAIKETA

Epaileak ez du deliturik ikusi Aitor Arantzabal enkintzetan

EHAkri aholkatu izanagatik eta egindako lan politikoagatik dago auziperatua Bergarakoa

MIREIA BIKUÑA > BERGARA
Aitor Arantzabal bergararra astelehenean aurkezu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaurrean, baina ez zuen deklaratu. Kasuko instrukzio-epaileak esan zuen ez dagoela ez frogarik ez zantzurik bergararra kartzelan sartzeko erabili zituzten arrazoia delituztat hartzeko. Harekin batera agertu ziren epaitegira EHAk-ko mahaikide Joseba Alvarez eta

Eusko Legebiltzarreko Ezker Abertzalea taldeko prentsa arduradun Peio Galvez.

EHAkri aholkatu izanagatik eta egindako lan politikoagatik dade auziperatuta hirurak, talde horren jarduna etetea era baki ondoren, Auzitegi Nazionalak irekitako sumarioaren barruan.

13 HILABETE KARTZELAN

Aitor Arantzabal bergararra 2008ko otsailaren 11n atxilotu zuten Garzon epailearen aginduz, eta 2008ko otsailaren 15ean espetxeratu zuten. Navalcarnero-ko espetxetik ekarri zuten astelehenean Bilboko epaitegira. Etxekoek aukera izan zuten harekin berba egiteko. "Iloba eta biok egon ginen Aitorrekin, eta nahiko ondo ikusi genuen. 15 minutuko bisita egin genion", esan

dugu Arantzabal emazteak. Egunotan Langraitzeko kartze lan egon da.

Epaileak deliturik ikusten ez duela-eta, aurrerantzean Arantzabalek izango duen egoeraz egin digu berba emazteak. "13 hilabete bete ditu preso, eta, epai keta barik, gehienez lau urte egon daiteke. Gainera, bi urte pasa ondoren kasua berrikusi egiten dute, eta epaileak erabakia harzen du. Baina oro har ez dakigu zer gertatuko den".

MIREIA UNAMUNO, DEKLARATZEN

Bestalde, astelehenean deklaratu zuten epailearen aurrean Ezker Abertzalea taldeko idazkari Mireia Unamuno antzuolarrak. Besteak beste, Legebiltzarrean egiten zuen lanaren gaineko galderak egin zizkion epaileak Antzuolako alkate izandakoari.

POLITIKA > IKERKETA

Arrasateko zinegotzi ohi Isaias Carrascoren hiltzailea identifikatu egin dute

Ertzaintzaren iturrien arabera Beñat Aginagalde hil zuen Alderdi Sozialistako militantea 2008ko martxoaren 7an

M.B. > ARRASATE

Ertzaintzak identifikatu egin du Arrasateko zinegotzi ohi eta Alderdi Sozialistako militante

Isaias Carrascoren hiltzailea; hain zuzen, ETAko ustezko kide Beñat Aginagalde Garmendia. Era berean, Ertzaintzak dio Inaxio Uria enpresaburua ere tirokatu zuela Azpeitian.

Vasco-Press agentziak publikatutako informazioaren arabera, Beñat Aginagalde

ustez ETaren talde legal bateko kide zen eta otsaila ezkerro ihes eginda dago. Talde horretako hiru kideak hauak liratzen ihes eginda dauden Beñat Aginagalde eta Ugaitz Errazkin eta kartzelan dagoen Manex Castro. Ertzaintzaren arabera, talde horrek egin ditu su-etenetan amaitu zenetik gaur arte Gipuzkoan egin diren 14 atentatuak; tartean, 2008ko otsailaren 7an Bergarako epaitegiaren kontrakoa.

URTARRILAREN 16KO ATENTATUA

Ezagutzera eman dituzten datu guztiak urtarriaren 16an Hernaniko Santa Barbara mendian huts egin zuen atentatuaaren ondoren hasitako ikerketaren ondorio dira. Orduan, taldeko kide bat (Manex Castro) eta bi kolaboratzaile atxilotu zituen Ertzaintzak.



Emma Larreta, martitzenean Arkupen, emanaldiaren aurretik ateratako argazkian.

JASONE ZABALA

Emma Larreta > Genero indarkeriaren biktima

"Orbainak hor daude; min handiagoa egiten du hil egin nahi izan zaituela onartzeak"

EDU MENDIBIL > ARETXABAleta

Datorren apirilaren 2an bi urte beteko dira Emma Larreta erasotua izan zenetik. Haren orduko bikotekideak 27 labankada eman zizkion, Emmaren lantokian bertan. Atzean geratu dira ebakuntzak eta errehabilitazioa; ez, ordea, barruko zauriak. Emakumeen aurkako biolentziaren gaineko hausnarketa piztu nahiduen *Kaleanuso, etxe-an otso iuskizunarekin* Aretxabaletan egon zen Emma Larreta martitzenean. Aizpea Goenagak zuzenduta, hainbat emakumeren testigantzak jaso dituzte.

Ez da meritu makala bi urte-en ostean zure esperientzia taularatzea eta jendearekin konpartitza.

Aurrera begiratu beharra dago horrelakoan eta sekulako gogoa daukat bizitzaz disfrutatzeko. Orbainak hor daude; min handiagoa ematen du norbaitek hil egin nahi izan zaituela onartzeak. Ideia hori buruan buelta ka dabilela, bizi izaten jakitea ez da erraza. Hala ere, erasoaren aurretik nintzen pertsona bera izateko borrokatuko naiz. Barruan daukadan indar horrek, bizi izateko gogoak azken baten, salbatu nau eta genero indarkeriaren arazoa konpontzen laguneko ekarpentxoa egin nahi dut.

Nola sortu zen iuskizun honen ideia?

Donostiako Berdintasun Departamentura jo genuen eta laguntza handia eman ziguten aurrera egiteko. Aizpea Goenaga arduratu da iuskizuna zuen-tzeaz. Lehenbiziko zatian dantzan ateratzen naiz hainbat emakume-

ren testigantzak entzuten diren bitartean eta ondoren eztabaiderako tartea egoten da ikusleekin. Aretxabaletan 20 bat emakume etorri dira eta oso gustura geratu gara euren harrerarekin eta erakutsitako interesarekin. Bereziki, ikasleei zuzendutako iuskizuna da, arazo honen gai-nean hausnarketa egin dezaten eta, ahal den neurrian behintzat, hainbat jarrera aldatzeko. Nire-tako oso aberasgarria da iuskizuna han eta hemen erakustea, konturatu barik beste jende batilaguntza ematen diodalako. Halaxe komentatu didate behin baino gehiagotan, bizi izateko gogoa transmititzen dudala. Ia dena gaindi daiteke bizitzan.

Esperientzia honetatik, zein da zuk atera duzun ondorioa?

Ezberdinak izateko guztiok daukagun eskubidea eta ondokoaren nortasunarekiko errespetua ezinbestekoak dira. Gure

"Ezberdinak izateko eskubidea eta errespetua ezinbestekoak dira"

"Barruan daukadan indarrak, bizi izateko gogoak azken baten, salbatu nau"

"Bikotekide batekin nire bizi berregiteko ilusioa daukat, ez daukat beldurrik"

seme-alabei errespetuaren eta benetako berdintasunaren balioa erakutsi behar diegu.

Ez dakit zure semeak nola bizi-ko zuen zuri gertatutakoa.

Oso txikia da. 2 urte besterik ez zuen erasoa izan nuenean eta ez da ezertaz jabetu, zorionez. "Gaixo" ikusten ninduen, besterik ez. Aurrerago izango du ger-tatukoaren berri jakiteko auke-ra. Argitu nahi dut erasotzailea ez zela nire semearen aita, nire orduko bikotekidea baizik.

Beste harreman bat hasteko orduan zalantza gehiago sor-tzen dira orain?

Eraso hura pertsona jakin batek egin zuen eta horregatik ez ditut gizon guztiak zaku berean sartuko, ez baitut orokortasune-tan sinesten. Ez dauka zentzurik eta badakit gizon zoragarriak daudela. Bikotekide batekin nire bizi berregiteko ilusioa dau-ka, ez dut inolako beldurrik.

Laster bi urte beteko dira era-so hura jaso zenuenetik. Zer-tan dago epaiketa prozesua?

Fiskalak 14 urteko kartzela zigorra eta 20 urteko urruntzea eskatu du erasotzailearentzat; orain, akusazioaren eta defentsaren eskaerak etorriko dira eta baliteke epaiketa uda partean izatea, baina oraindik ez dauka gu data zehatzik.

Gogorrena zer izan da?

Beharbada, eraso ninduenean, jendearen pasibotasuna. Inork ez zidan lagundu, han inguru zeuden zaintzaile eta eskola batzuk agertu arte.

EUSKARA > KORRIKA 16

Korrika 16ko kilometroak salgai Arrasateko AEKn

Lekukoa Osintxutik sartuko da Debagoienera apirilaren 5ean eta guztira 56 kilometro egingo ditu gurean

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira! lelopean egingo dute Korrika 16, Tuteratik Gasteizera. Lekukoa Debagoienean egingo dituen kilometroak salgai daude Arrasateko AEKn. Interesatuek 943 77 03 69 telefonora dei dezakete edo arrasate@aek.org helbidera idatz dezakete. Kilometro guztiak 380 eurotan salduko dituzte. Debagoienean guztiak 56 kilometro egingo ditu lekuokak: Bergaran 9, Antzuolan hamar, Oñatin 17, Arrasaten sei, Aretxabaletan hiru, Eskoriatzan zortzi eta Leintz Gatzagan hiru.

GAUERDITIK AURRERA

Osintxura helduko da Korrika 16ko lekukoa apirilaren 5ean, 00:00etan. Bergarara 00:37an

helduko da. Antzuolatik (00:57) Urretxu aldera egingo du, eta, Zumarragako eta Legazpiko kilometroak egin ondoren, oñatiarrek hartuko dute lekukoa Udana gainean. 04:12an helduko da lekukoa Oñatiko sarrera, eta kalerik kale Arrasate aldera egingo du. Epelera helduko da 05:24an. Aretxabaletatik 06:03an pasatuko da, Eskoriatzatik 06:22an eta Leintz Gatzagatik 07:14an.

KORRIKA LAGUNTZALE EGITEA

Korrikari ekarpen pertsonala egin nahi diotenak Korrika Laguntzaile egin daitezke. 12 euroren truke, pina eta Euskal Herriko ehunka komertziotan beherapenak izatea ahalbidetu ko dien txartela jasoko dute. Debagoienean eskura daitezke Leintz Gatzagako udaletxean, Eskoriatzako kultura etxeen, Aretxabaletako Loramendin, Arrasateko AEKn eta AEDn, Antzuolako arropa salmentan, Bergarako Jardunen, Aramaio-ko udaletxean eta Oñatiko Arrano tabernan.

Bestalde, Korrikaren inguruaren hainbat ekitaldi antolatu dituzte datozen egunetarako. Beheko taulan daude guztiak.

Herririk herri dauden ekintzak

LEINTZ GATZAGA

Martxoak 13: 19:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala gatz museoan.

Apirilak 3: 17:00etan Korrika Txikia.

Apirilak 3: 21:00etan bertsotafaria elkartean.

Apirilak 5: 07:00etan ongietorria Korrikari Marulandan eta ondoren hamarretakoak.

ARETXABAleta

Martxoak 21: 17:00etan *Dir-dir* haurrendako emanaldia Arkupen.

Martxoak 25: 10:00etan eta 19:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala Arkupen.

Apirilak 1: 18:00etan musika eskolako kontzertua Arkupen.

Apirilak 3: 15:00etan Korrika Txikia eta gero bolo-boloa eta txokolate-jana.

Apirilak 3: 21:00etan izar erakustaldia herriko plazan.

ARRASATE

Martxoak 22: 19:30ean *Ahuntza, edo nor den Sylvia* antzezlanera Amaia antzokian.

Martxoak 25: 10:00etan eta 19:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala Kulturaren.

Martxoak 26: 19:00etan film laburren zirkuitua Kulturaren.

Martxoak 28: Korrika Kultura Eguna. Hainbat ekitaldi egindo dituzte; besteak beste, haurrendako jolasak eta erromeria.

Apirilak 2: 14:45ean Korrika Txikia eta ondoren txokolate-jana.

Apirilak 2: 17:00etan karaokea Txatxili-purdiren eskutik.

OÑATI

Martxoak 17: 19:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala kultura etxeen.

Apirilak 3: 10:30ean Korrika Txikia herriko kaleetan.

Apirilak 4: Korrika Kultura Eguna; besteak beste, dantzariak, bertsolariak eta kontzertuak.

ANTZUOLA

Martxoak 13 eta 15: Korrikako arropen salmenta plazan.

Martxoak 21: 18:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala eta kafe-tertulia gaztetxeen.

Apirilak 3: 11:30ean Korrika Txikia herriko kaleetan.

Apirilak 3: 19:00etan bertsotriko poteoa.

Apirilak 4: Korrika Eguna; besteak beste, jolasak, film laburren zirkuitua eta ongietorria Korrikari 01:00etan plazan. Ondoren, jaia gaztetxeen.

BERGARA

Martxoak 24: 19:00etan *Bidaia intimoak* dokumentala Zabalotegi.

Martxoak 28: 11:30etik 14:00etara arropa salmenta plazan.

Apirilaren 2: 15:20an Korrika Txikia kaleetan eta ondoren txokolate-jana.

Apirilak 3: 19:00etan 21:00etara erromeria Irala kalean.

Apirilak 4: 22:30ean Hesian taldearen kontzertua Irala kalean.

JENDARTEA > EUSKAL PRESOAK

Presoen argazkiak kendu zituzten atzo, Arrasateko Portalorian

Espaniako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzaren aginduz kendu zituzten, "terrorismoa goraipatzeko edo justifikatzeko delitua" delako

GOIENKARIA > BERGARA
Espaniako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak "berehalan" kentze-ko eskatuta kendu zituen Ertzaintzak Banco Guipuzkoano banke-teareen kanpoaldeko hesian zeuden presoen irudiak.

Fiskaltzak hartutako behin-behineko neurria izan da kartelak kentzea, epaitegiak ikertu egingo du-eta argazki haien han eskegita edukitzeara terrorismoa goratzea den edo ez.

Espaniako hedabide batzuek *lotsaren hesia* deitu diote horri, urtetan Berlin hiria banatzen zuena izendatzeko erabiltzen zen adjektibo bera baliatuta.

Horrez gain, aginduarekin batera, auzitegiko fiskal Vicente Gonzalez Motak Ertzaintzari esku dio beharreko ikerketak abiarazi ditzala argazkiak nork ipini dituen identifikatzeko.


Arratsaldeko 14:45 aldera iritsi ziren Ertzaintzaren zortzi fur-

goneta Arrasateko Portalorai. Zenbait herritarrek protesta egin zuten eta Ertzaintzak airera egindako bola-tiro batekin erantzun zuen.

LOPEZEN HITZAK

Patxi Lopez lehendakarigaiak Arrasaten egindako adierazpenetik egun gutxira kendu dituzte argazkiak.

Isaias Carrasco Arrasateko zinegotzi ohi eta alderdi sozialistako kidearen hilketaren urteurren omenaldian Patxi Lopezek agindu zuen lehendakari izanez gero ez ziola "ETAren zigorgabetasunari gune publikoetan tarte-rik utziko".



Ertzaintza 14:45 aldera iritsi zen eta berehala kendu zituzten presoen irudiak.

ENPRESA > ARCELOR-MITTAL

Arcelor Mittal: etorkizunaz kezkatuta langileak

Altzairu fabrika behin-behingoz itxi nahi dutela salatzeko elkarretaratzea egin du LABek



Irudian, LABek astelehenean deitu zuen elkarretaratzea.

> Antzuolarrak

domekaren zain egongo dira, seguru. Egun horretan, Torresoroako auditoriuma inauguratuko dute, txistularien kontzertuarekin... Kultura emanaldietarako leku txukuna izango dute, beraz, aurrerantzean, herrian. Ongietoria izango da.

TXOMIN MADINA > BERGARA
LAB sindikatuak deitura, Bergarako Arcelor Mittal lantegiko langileek elkarretaratzea egin zuten astelehenean, zuzendaritzak planteatu dizkien neurrien kontra. LABetik adierazi dute Madrilen egindako bilera batean

planteatu zizkietela neurri horiek, krisiari hobeto aurre egin ahal izateko. Sindikatutik esan dute, baina, iaz izandako irabaziak ikusita enpresak ez diola alde sozialari erreparatzen. Hala, LABetik esan dutenaren arabera, neurriek lanaldiaren banake-

ta irregularra proposatzen dute oporrak atzeratzeko edo aurreratzeko aukerarekin; era berean, lan erregulazioa aplikatzeko aukera ere badago, eta soldatei dagokienez ez da goigerak aurrikusten. Gaineratu dute enpresak adierazi berri diela Bergara-

ko lantegian dagoen altzairu fabrika behin-behingoz ixteko asmoa dagoela, eta Bergaran lanean dauden 60 langile inguruk Zumarragara joan beharko luke-tela etorkizunean lanera. Neurri horren inguruan, LABeko ordezkariek ekintza sindikal bateratua

ZUZENDARITZAREN IKUSPUNTUA

Arcelor Mittaleko zuzendaritzatik adierazi digutenez, Bergarako altzairu fabrikaren itxierak ez du lanpostuak galtzerik ekarriko. Zumarraga eta Bergarako Arcelor Mittalen bi lantegietan dago altzairu fabrika, eta, Zumarragako lantegian bilduko da ekoizpen guztia. Ondorioz, langile batzuek hara joan beharko dute lanera eta besteak Bergaran bertan birkotatuko dituzte. Neurriei dagokienez, zehaztu dute ez dela erregulaziorik planteatzen, eta gainerako neurriekiko negoziazio prozesua hasten dagoela akordio markoa lortzeko asmoz.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Ortuetatik letxugak lapurtzen hasi ei dira

Gustura geratu dira joan den asteburuan Arrasaten eta Bergaran egin dituzten beherapenetan esku har-tu dutenak: gustura dago Ibai-Arte, Merkemerkauan saltokiek irteera eman dietelako neguko denboraldian stockean geratu zaizkien produktuei eta salmenta kopuruia iazkoa baino handiagoa izan delako; pozik dago Bedelkar, euriari aurre eginez erdiguneko hainbat saltzailek kale-ra atera zituztelako euren produktuak eta oso ondo saldu zutelako; eta, noski, halakoak antolatzea ideia bikaina dela diote aukera on horietaz balia-tu ziren herritarrek. Merkata-riek eman diete bultzada salmentei, beraz, eta horretan dihardute ibarreko ostalariek ere: jardunaldi gastronomikoak antolatu dituzte, martxoaren 2tik apirilaren 30era. Bisiak antolatu dituzte Gatz Museora, Antzuolako Lapatza baserri ekologikora... ekoizpen proze-suak zuzenean ezagutzeko. Baina ez hori bakarrik: eskualdeko eta garaiko produktuak oinarri hartuta, menu bereziak eskaintzen dihardute jatetxeek. Odolostea, Urbiako gazta, pellak... eta ortuko produktuak; baldin badaude, behintzat. Izan ere, baserritar batzuk konturatu dira baratzearan letxugak falta zaizkiela; norbaitek lapurtu egin dizkiela, alegia! Halako ideiak dituztenak beti egon dira eta krisi garaiotan, ez dira gutxiago izango burutazio horiek izan eta praktikara eramatzen dituztenak.

> Menu berezi

horietako bat probatzea da, beraz, asteburu honetarako aukeretako bat. Beste bat? *Miserableak* ikuskizuna ikustera joatea zapatauan Bergarako frontoira. Izan ere, 15 urte igaro eta gero, berriz antzeptuko dute historiako musicalik arrakastatsuak.



zabalik

Oskar Elizburu

Euskaraz? Ongi etorri!

Korrika 16ren leloa entzunda, *ongi etorri = felpudo*, txiste txarra, etorriko zitzzion burura bati baino gehiagorri. *Ongi etorri* dio leloak, nori baina? Ez da zaila asmatzea: euskara ulertzen ez dutenei, ez dakitenei eta erabiltzen ez dutenei, jakina. Ongi etorria, pozik, euskaldunok emango diegu.

Euskara zero dakitenak egoteak Euskara Gaztelaniaren azpian jartzen du eta, euskaldunok, Euskara erabili nahi eta ezinean uzten gaitu, gehiegitan. Egoera normalizatu beharra dago, baina, mugitu behar denak ibili behar du bidea. Euskal herritar guztiak euskararen ezagutza maila gutxienean iritsi beharko lukete, Europako Markoa kontuan hartuta, B1 mailara gutxienez. Horretarako, baina, Hezkuntzak bermatu beharko du belaunaldi berrien ezagutza / erabilera eta Helduen Euskaldunte Alfabetatzeak bes-telakoena. Hizkuntza biak jakitea guztion eskubidea da, gizarte elebidunean moldatzeko ezinbesteko baldintza.

Hizkuntza Politika egoki bat begira jarrita, epeak ere jarri beharko ditugu eta, 20 urte barru (adibidez), euskal gizartea B1maila horretatik gora %80an egoteko bidea bermatzea komeni da. Gehiegi al da hori eskatzea?

Hizkuntza ofizial biak maila berera iristeko bidea sustatzea aldarrikatzen da eta hori, norbanakoena ahaleginarekin batera, Administrazioak ahalbidetu behar du.

Badirudi Patxi Lopez izango dela hurrengo lehendakaria eta PSE-EEk lideratuko duela gobernu berria. Lopezek, berak, Korrikaren lekuoa eramango lukeela erantzun zion, aurreko baten, Jaime Otamendiri elkarritzeta baten. Mezuarekin ados dagoela esan nahi du horrek? Hala balitz, ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira!

usteaK uste

Jasone Zabala

Burua altxatu nahi eta ezin...

Badirudi krisiak duela hilabete batzuk sortu zuen kezka baretu dela pixka bat bada ere, edo behintzat hala erakusten dute komunikabideek. Bainaz ez dugu ahaztu behar oraindik badirela hilabete amaierara iritsi ezin daitezkeen familiak, lanik gabe geratu direnak... Bestalde, udaberria ate joka daukagu, azken asteetan euri asko bota badu ere, azkenean irten da desiratzen genuen eguzkia; dagoeneko altxatu du burua, baina ekonomia, nahi eta ezin dabil...

**"Patxi Lopezek
Korrikaren lekuoa
eramango lukeela
erantzun zuen
elkarritzeta baten"**

marrakiz

Unai Busturia



blog-top

Inbertsioa

Anjel Lertxundi
www.berria.info/blogak/lertxundi

Daikazun diru apurra gordetzeak ez diru zorionik ekarriko, kontu jakina da, zeuk ere denak hemen utzita alde egin beharko duzu-eta. Daukazun diru apurratekin gauzak erostea ere ez omen da zorionaren iturri: objektuak pilatzen dituzu, baina ez zoriona; pisuen, akzioen, auto ederren jabe egiten zara, baina ez zorionaren.

Orduan? Zer egin?

Bidaiatu, kontzertuetara edo antzerkietara joan, lagun arteko jatorduak egin... Argitaratu berri duten inkesta baten arabera, esperientziak erosten gastatu behar omen genuke dirua, horrek omen dakarrelako zoriona; dirua bizi-esperientzietan gastattzeak omen dalar bizirik gaudela sinestarazten digun gasolina.

Bidaiek, kontzertuek edo lagun arteko jatorduek gu behar gaituzte: gure erabaki eta aldartea, gure implikazioa eta gure denbora eskatzen

dizkigute. Horregatik, implikatu nahi ez dugulako, segitzen dugu gurik gabeko zorion bat erozi nahian.

Argazkia

Luis Aranberri 'Amatiño'
www.eibar.org/blogak/amatiño

Azken euskal legealdiaren argazkiriek adierazgarri- netakoa, segurutik, Ibarretxek, Azkarragak eta Madrazok osatzen zuten Kontseilu Politikoarena izan zen. Niri ez zitzaidan sekula argazki hura gustatu. Beti uste izan nuen Eusko Jaurlaritzaren nahiz hitzetik hortzera aipatu ohi zen euskal gizartearen ildo zentral hartako alderdi nagusiaren ordezkarria falta zela bertan. (...)

Baina, horra non EAJRI ondo etorri zaion argazki hartan ez agertzea, azken hauteskundeen emaitzen arabera behintzat Eusko Alderdi Jeltzalea bera baita bere burua salbatu duen bakarra.

Zein ote, ordea, hurrengo euskal ildo zentralaren argazkia?

koplak

Eñaut Uriarte

Martxoaren 8a esperantza etsia

Jun zan domeka izan giñuan Martxoan zortzigarrena Emakumien Eguna eta euren aldarrikapena.

Kontatuko dot orain bi urte Bilbon pasa zitzaidana Athletic-eko neskak zeukela ospakizun karabana.

Gizontxo bat azaldu notsan txapela zerela ospatzen hark neri berriz erantzun zoztan hobe zerela plantxatzen.

Askori orain esan nahi dotset Sorkunde-taz oroitzean ez giñakela hemen egongo emakumerik ezean.

Gizonek egin dezagun beraz orain galdera sakona ama, emazte edo neskamea da gure etxeen dagona.

Berdintasunean ein nahi badau gizarte honek aurrera ekin zaiogun denok lanari oraintxe dogu aukera.

Goienkaria

Argiratzalea Goien Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Iñaki Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailtako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseñu), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarritzko diseinua** Golo Arana **Maketalazioa** Imanol Soriano, Kepa Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorrta Martin, Iñaki Bereziar, Aintzane Muruamendiara **Testuen zuzenketak** Sergi Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Galintzaran, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

EGOIZTA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00

Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABAleta 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09

Posta-e: public@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 19.400 ale • Difusioa: 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurlaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udal



Bergarako
Udal



Oñatioko
Udal



Aretxabaletako
Udal



Eskoriatzako
Udal



Antzuolako
Udal



Aramaioko
Udal



Elgetako
Udal



Leintz Gatzagako
Udal



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordezta

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria**

'Euskaldunak eta Nafarroa' da Nabarralde elkartea Bergaran antolatu duen hitzaldi sortaren

izenburua. Datorren martitze- nean, martxoaren 17an, Floren Aoiz politikari ohiak egingo du

hitzaldia '1512-2012. Independen- dentziaren galera' izenpean. "1512ko espanyiar konkista"

aitzakia hartuta, "independen- tziaren galerak gure herriari zer ekarri dion" hausnartukodu.

Floren Aoiz > Politikari ohia eta idazlea

"Historian zehar Nafarroa izan da Euskal Herri guztiaren izen politikoa"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA
Gaztetatik ibili da politikan Floren Aoiz (Tafalla, 1966). Nafarroako Parlamentuko kide izan zen 1987 urtetik 1997 urterako HB taldearekin. Azken urteetan politika albo batean utzia dauka, eta idazle dabil, hausnarketak egiten.

Zeri buruz egingo duzu berba datorren eguztenean?

Independentziaren galeraez berba egiteko asmoa daukat. Nafarroa Garaian 1512an gertatu zen espanyiar konkista aitzakia hartuta, azaldu nahi dut gure herriari zer ekarri dion garai batean izan genuen independentzia galdu izanak.

Hori, batuetan gaur egungo Nafarroari lotzen zaio, baina, azken finean, Euskal Herria osorri dagokion gaia da, garai batean geure estatua izan genuelako, Nafarroa izeneko. Indarrez kendu ziguten estatu hori, eta orain gauden egoera, maila batean behintzat, independentziaren galeraren ondorioa da. Garai batean independenteak izan ginuen; gero, independentzia galdu genuen eta gaur egun menpeotasun egoeran bizi gara.

Ibilbide historikoaren azterketa egin gura dut; iraganera begiratuz etorkizunari pista batzuk eskaintzeko.

Independentziaren galera diozunean, zertaz ari zara? Garai bateko Euskal Estatuaz?

Nabardura txiki bat egin gurako nuke. Independentzia eta estatu propioa izatea ez dira gauza bera. Euskaldunak independenteak izan gara historian estatu propioa izan dugunean; baina independenteak izan gara baita estatu propioa ez izan arren, beste estatuen menpe bizi izan ez garenean. Nafarroako erresuma sortu aurretik, hainbat mendetan, esan dezakegu Euskal Herrian nolabaiteko independentzia politikoa izan zela. Nahiz eta estatu tradizionalaren bidez ez izan, beste menpekotasun ez zegoen.

Gure independentziaren esperientzia handiena eta garbiola Nafarroako estatuarena da. Nik uste dut XXI. mendearren ikuspegitik oso garrantzitsua dela hori ezagutzea; izan ere, euskaldun askok ez dugu ezagutzen zer izan zen Nafarroako erresuma. Ez zegoen lotuta gaurko Nafarroarekin bakarrik, baizik eta Euskal Herriarekin. Kontua ez da iragana berreskuratzea; baizik eta



Floren Aoizek Nafarroako historiari buruz hainbat liburu idatzi ditu.

ekar dezaketen da gatazka areagotzea.

Baina nik beti esaten dut ilusioa ez dela inoiz galdu behar. Nik hori pentsatu edo amestu gura dut. Gainera, konbentzituta nago hau era batera bakarrik konpondu ahal dela: mahai baten inguruau. Ziur nago beste ahalegin bat egingo dela.

Ezker abertzalea lehenengo Legebiltzarretik kanpo geratuko da; hala ere, 100.000 boto lortu dituze.

Oso datu importantea da: ezker abertzalea Alderdien Legearen ondorioz instituzioetatik kanpo uzten ari dira. Gertatu zen Nafarroan eta orain Gasteizen. Nik uste dut azken urteetako balorazio bat egiten badugu, argi dagoela Alderdien Legearen aplikazioak kalteak ekarri dizkiola ezker abertzaleari. Baina gehien nabarmenzen dena da ezker abertzaleak jauzi egin duela eta oztopoen gainetik nabarmeneko gauza izan dela. Horren adierazle dira azken hauteskundeean lortutako 100.000 botoak. Boto horiek erakusten dute ezker abertzaleak oinarri sendoa duela etorkizunari aurre egiteko eta, nolabait, Alderdien Legea ez dela ezker abertzaleko nukleoa erosionatzeko gauza. Batzuek ondorioztatu beharko lukete hori ez dela bidea, eta ez dutela lortuko gura dutena.

Bestalde, kritikoa zara eta dio zu ezker abertzaleak eutsi egin duela, baina ez duela irabazi.

Batez ere hausnarketa pertsonala egiten dut, ezker abertzaleak berak esaten duena aintzat hartuz. Ezker abertzalearen bokazio historikoa ez da erresistentzia egitea, ez zen horretarako sortu. Erreparatzen badiogu historiari ikusiko dugu helburu batzuk dituela eta horiek ez dira erresistentzia, baizik eta Euskal Herriaren egoera aldatzea: independentzia, sozialismo... Hori ez da lortzen erresistentzia dinamikan bakarrik.

Uste dut hauteskundeetako emaitzak aztertzean kontuan hartu behar direla bi gauza horiek: ona da 100.000 boto lortzea, baina ezin da txaloan geratu. Beste urrats batzuk egin behar dira.

Nafarroari dagokionez, ni Parlamentuko kide izan nintzenetik gaur arte gauza asko aldatu dira. Batez ere, ezker abertzalea instituzioetatik kanpo utzi izana asko nabaritu da.

iraganetik gauza batzuk ikastea. Hausnarketa egitea independentzia zergatik komeni zaigun.

Euskaldunak eta Nafarroa da hitzaldi sorten gaia. Esan daitke historia, estatu eta subiranotasun bera izan duten herriak izan direla?

Euskaldunon artean egiten ditugun eztabaidea eta hausnarketa batzuetan ondo neurtu behar dira berbak. Izenak eta hitzak garrantzitsuak izanik, benetan garrantzitsua da hitz horien atzektik datorrena. Batzuetan, Nafarroa, Euskal Herria, euskaldunok... erabiltzen ditugu. Kontzeptu batzuk onuragarriak dira, baina eztabaidea batean bakotzak ze zentzutan erabiltzen duen zehaztu behar du.

Nik uste dut gure herria ondoen definitzen duen hitza Euskal Herria dela; azken finean, euskalaren herria delako. Baina egia da gure historian

HISTORIA

"Kontua ez da iragana berreskuratzea, baizik eta iraganetik gauza batzuk ikastea"

HAUTESKUNDEAK

"Gasteizko Parlamentuan gehiengo faltsua ezarri da indarrez"

EZKER ABERTZALEA

"EZKER ABERTZALEAREN BOKAZIO HISTORIKOA EZ DA ERRESISTENTZIA EGITEA; EZ ZEN HORRETTARAKO SORTU"

zehar, gaur egun ez bezala, Nafarroa izan dela Euskal Herri osoren izen politikoa.

ZURE BLOGEAN IRAKURRI DUGU ZURE LEHENTASUNEN ARTEAN EUSKAL HERRIAN BAKEA LORTZEKO ILUSIOA DAGOELA. NOLA DUZU ILUSIO HORI?

Bada, oso ilun ikusten dut panorama. Batez ere azkenengo hauteskundeei erreparatuz, nabarmena da trampa egin dela. Trampa horren bitarte ezker abertzalea instituzioetatik kanpo utzi gura izan da. Ondorioz, Gasteizko Parlamentuan gehiengo faltsua ezarri da indarrez; gehiengo faltsua da, ez datorrelako bat errealitate soziologikoz arekin. Horrek ez du deus onik iragartzen; horren atzean dagoen borondatea ez da gatazka hau konpontzeko borondatea. Horrelako gatazkak ez dira konpontzen jendea kartzelara sartzen edo instituzioak manipulatzen. Horiek

Martxoak 8

Itziar Usandizaga eta Inma Peñaranda
(LAB Helduak)
Bergara

Joan zen igandean ospatu zen Nazioarteko Emakume Langileen harira, hainbat hausnarketa egin nahi ditugu. Emakume gazteek laurogeiko hamarkadako mugimendu feministen grinari heldu eta hainbat aldarrikapen eta genero berdintasunaren alde nola lan egiten duten ikustea asko poztu gintuen.

Adinez aurrera goazenok berdintasunaren arloan oso pauso txikiak eman direla uste dugu, eta errealtitatea iuslita esango genuke funtsean berdin jarraitzen duela eta horregatik borroka honek aurrera jarraitu beharra daukala.

Txalotzeoak dira Bergarako Ongizate Sailak, Arrasateko Emakumeen Txokoak eta hainbat herritako sindikatu eta mugimendu sozialek antolatu-tako ekitaldiak.

Emakume guztiei beren alde aurrera jarraitzeko animuak eman nahi dizkiegu.

Orni, Dakigu, ez itxi!

Leire Ormazabal
(LAB)
Bergara

Hiru urte besterik ez zaigu joan Eroskiri pabiloiak eta orubeak saltzeko operazioa egin zenetik, baina urtarriak 26 zituenetan, bat-batean, Orni eta Dakigu ixtea eta 47 langile egoztea erabaki zutela jakinari ziguten.

Abenduan, sindikatuoi jakinarazi ziguten enpresak zaitutasunak zituela, eskaerak behera egin duelako, eta egoerak bere horretan iraungo balu, itxiko zutela.

LA Bek beste neurri ez-traumatikoak proposatu zizkion, aldiz; nominen ordainketak atzera zitezen erabaki

zuten langileek, aipatu abala enpresari emanez. Sindicatuak egindako ahaleginak ahalegin, ixtarekin erantzun digu.

Egun, langile bakitzari 4 nomina sor diote; urria geroztik ez diote ekarpenik egin Geroa-ri, ez dira Gizarte Segurantza ordaintzen ari. Langileak oso egoera larria bizi ari dira, azaroaz geroztik ez dute dirurik irabazten eta egunez egun are gehiago hipotekatzen ari dira.

LA Bek baditu hainbat galdera egiteko bi enpresetako arduradunei, hala nola: Zer jazo ote da bi enpresa hauetan, duela hiru urte dirutza sartu baten enpresan Eroskirekin egindako operazioari esker? Zer jazo da Orni-n azken urteotan mozkinak irabazi baditu bere jardunari esker, eta iaz, behar beste lan izan bazea? Non daude baxkideak langileei zor zaiena eta hauen etorkizunarekiko zorra beren gain hartzeko? Zertan ari dira, baina, Orni taldeko arduradun batek 2008ko martxoaren 9an *Gara-n* argitaratutako artikulu batean makina-erremintak zuen etorkizun arrakastatsuaz zioenean: "Azokan, duela bi urte genituen harremanak areagotu ditugu eta 2009. urtean pentsatuz dihardugu, 2008. urtean lanez gainezka gaudelako" eta "etorkizunear aukera onak izan ditzakegu lan egiteko, egiten dugun honetan produktu estandarrik ez dagoelako".

Enpresak ez digu azalpenik ematen eta ez deritzogu inolako asmoa duenik enpresarekin ezer lotzeko, ez eta itxiera eragozteko, eta horrek zer pentsa eragiten digu. Noiz erabaki zuten benetan itxiko zutela? Honez gain, enpresamultzoa sortu dute, horietako bat ondasun higiezinak alokatzeko sortua. Kapitalez hustu al dute Orni eta Dakigu? Enpresa hauetara desbideratu dituzte mozkinak edo irabaziak? Hamaika galdera eta erantzun urriak. Lan Delegaritzak eta Merkatal Epaitegiak ere eskatu diote enpresari falta den dokumentazioa aurkezteko,

bestela euren eskaerak bertan behera geldituko dira. Oso berandu bada ere, aurkeztu dituzte dokumentuok.

Langileek ez bazuten nahikoa (4 nomina kobra) gabe, kalean geratzeko arriskua...), langile asanbladak zuzendaritzarengana azalpenak eskatzen joatea erabaki zuen. Ez zuten erantzunik izan, baina egun hauetan momentuz hiru langileri heldu zaie zitazio bana Epaitegitik Orni-ko zuzendaritzako kide batek salaketa jarri eta gero. Erantzunak besterik ez zuten nahi. Hau da langileek azken hilabete hauetan jasotako erantzun bakarra: bidegabekaria, inpotentzia eta defentsagabesia.

Egoera horren larria izanik (Erregulazio Txostena eta Lege Konkursalean sartzea eskatu dute) eta Orni eta Dakigu-ko langileei ez diete beste aukerarik eman: mobilizazioa euren eskubideen eta lanpostuen alde borrokatzeko. Otsailaren 19an Bergaran burutu zen manifestazioan beste enpresetako etorritako hainbat langilek hartu zuten parte egoera hau salatzeko. Hau da bidea eta horrela jarraituko dute Orni eta Dakigu-ko langileek. Horregatik, langile guztien elkartasuna beharrezko delako, guztiei elkartasuna eskatzen diegu, eta, batik bat, Bergarako herriari, Orni-ren eta Dakigu-ren itxierak salatzeko egingo ditugun mobilizazioetan gurekin bat egin dezazu, eta gure lanpostuen alde borroka gaitezten.

Barkamena

Alfredo Meabe
(Kioskoa eta Ibarra estanko)
Aretxabaleta

Lerro hauen bitartez, aretxabaletar guztiei barkamena eskatzen gatozkizue. Orain dela egun batzuk eta arrazoi ezberdinak direla medio, Lurraldebuseko txartelak kargatu eta tramitzeari utzi diogu. Besterik gabe, eragozpenak barka, eta eskerrik asko gure partetik.

Imperialismoa Ajuria Enera

Jon Otero Uribarren
Arrasate

Euskaldun orok jakin behar du, eta gehienok badakigu, edozein herrik bere oinarrian demokraziaren habe bere independentzia eskubidea duela, hau da, autodeterminazioa. Hori da herri ororen demokrazia zutabea.

Herri handi batek badakigu imperialismora jotzen duela beste herri baten jabe egiten denean. Jabetasun hori ez lagatzearen, autodeterminazio eskubidea ukatzen dionean, demokraziaren aukako jarrerak erakusten ditu bere imperioa handitzearen.

Hortaz, alderdi espainolista, EB izan ezik, demokraziaren aurkakoak dira, ukatzen baitiote eskubide hori Euskal Herriari, Kataluniari eta Galiziari.

Orain ezker abertzalea ez legezko omen da imperioaren legeetan, bere iritzi berezia baduelako ETaren borroka armatuarekiko. Hori bide, Ibarretxe abertzale moderatuak ez dio Ajuria Eneari eutsiko.

Euskara maite dugunok esnatzeko garaia dugu. Jakin badakigu Konstituzioak inposatzen duela gaztelania. Hori gutxi balitz, inposatu behar digu legedi horrek lehendakari imperialista bat. Sasi euskaldun oro, esnatu zaitezte, orain lehen baino gehiago inposatu behar dizuete zuena ez den identitatea.

Ajuria Eneko ez dizue euskarri gutxienekoa jarriko euskara arnastu dezazuen. Ordua heldu da sasi euskaldunak izateari utzi diezaiozuen. Euskaldun orori egin euskaraz gogor, hustu zuen identitatearen behar muina, zeren Ajuria Enean jada ez duzue izango laguntza minimorik. Sasi euskaldunak, bada, ordua da errebelatu zaitezten, euskaraz mesedez, euskaldun guztiguztiekin!

Iraitz gure elkartasuna eta babesea

Gorka Lazkano
(Miguel Altunako langile talde baten izenean)
Bergara

Aurreko ostegunean (martxoak 5) gure lankide den Iraitz Santa Cruz Ugalde atxilotu zuen Ertzaintzak, ustezko torturapeko testigantza batzuetan oinarrituta. Orduz geroztik 5 egun egin ditu Ertzaintzaren eskuetan inkomunikatuta, horrek dakartzan ondorioekin, torturatura izateko arriskua, familia eta lagunen kezka eta informazio eza, konfiantzazko abokaturik gabe egotea...

Hori nahikoa ez, eta bere ustezko errugabetasuna ere ez da errespetatu komunikabideetan. Gure ustez Iraitz errugabea da eta egungo egoera politikoaren ondorioak ordainarazi nahi dizkiote. Horren aurrean, Miguel Altuna Institutuko lankideok babesia ematen diogu Iraitz eta bere ingurukoei, eta lehenbailehen Iraitz gure artean egotea desio dugu. Besarkada handi bat, Iraitz!

Harropuzkeria

Andoni Rodriguez
Arrasate

Milioika euro gastatu dituzte. Haientak ez direnak. Punta-puntako futbol talde profesional batek sortzen dituen diru sarrera ohikoz gain, lagun ahaltsek ahalbidetzen dien higiezinen pelotazoekin sarrera ez ohikoak lortu dituzte, dirua barra-barra gastatzen segitze-ko. Hedabideak dituzte lagun, harrokeriaz jardunez.

Baina errealtitatearekin aurrez aurre egiten dutenean barregarri geratzen dira. Ilusioa eta harrotasuna dira gauza bat; harrokeria eta handikeria beste bat. Real Madrid gertatu zaio. Kontuz, Athletic, eta inguratzent zaituen guztiak!

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karak-tere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIK eskubidea du gutuna laburtzeo. Gutunarekin bate-ral beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA

Telefonoa:
943 25 05 05

Faxa:
943 25 05 12

Posta elektronikoa:
goienkaria@goinena.com

The advertisement features four separate boxes, each with a logo consisting of a stylized upward-pointing arrow inside a square.

- ARKAUZ ARETXABALETA:** Shows a dark wooden sofa set against a floral background.
- ARKAUZ COCINA INTEGRAL:** Shows a modern kitchen unit with a built-in oven and a sink.
- GRUPO ARKAUZ:** Shows a large kitchen unit with a central island.
- ARKAUZ ELECTRODOMESTICOS:** Shows a front-loading washing machine.

Below the boxes, the slogan "Arkaus zure etxea da." is displayed.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

AKUPUNTURA

INTEGU

Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

ETXEGERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

LORENZO M. JOOSTEN

Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

ALBAITARIAK

ETXEGERRIA JULIO

(DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)

Bergara / 609 54 16 13

ANALISI KLINIKOAK

LABORRA ISABEL

Bergara / Oixondo 4-1B / 943 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA

IRIGOEN VICTOR

Bergara / Oixondo 4-1B / 943 76 32 06

DENTISTAK

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

ASTIAZARAN SOLOZABAL

Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

BENGOA SAN MIGUEL ANGEL

Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE IRURETA ANE MAITE

Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65

LOPEZ DE GOIKOETXEA

Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Oñati / Atzeko kalea 6, behea / 620 124 843 / 943 71 61 82

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA

TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

FISIOTERAPEUTAK

ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA

Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96

ARZAK MIREN

Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

ARANTZETA JUAN MARI

Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

ELORTONDO FLOREN

Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84

ETXEGERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

OPTIKAK

ARRASATE OPTIKA

Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

INSTITUTO OPTICO

Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

PORTALOI OPTIKA

Arrasate / Erdiko kalea 10 / 943 79 65 56

ORTOPEDIA

ORTO LAGUN

Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

OSTEOPATIA

BENGOA NEREA

Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89

ETXEGERRIA ANA

Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

PODOLOGOAK

AZPIAZU ARANTZAZU

Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerlek zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKIATRA

GALLASTEGI PABLO

Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

PSIKOLOGOAK

AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA

Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62

GARMENDIA LANDER

Arrasate / Obenurreka 2, 7H / 943 79 35 86

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

UROLOGOAK

LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)

Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22


YOGA

AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA

Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753



Herriak

Arrasate > 14-15 Bergara > 19-23 Aretxabaleta > 24-26 Oñati > 27
Eskoriatza > 28-29 Antzuola > 30 Elgeta > 31 Aramaio > 32 Gatzaga > 33



> ARETXABAleta

Ekintzak antolatzen jarraituko du Basotxok > 25



> OÑATI

Lege Soziologia eta Larraña institutuen arteko hitzarmena > 27



> ANTZUOLA

Euskaraz jolasten ikasteko saioak umeendako > 30



> GATZAGA

Herriko emakumeen erakusketa asteburuan > 33

ANTZUOLA > TORRESOROA

Herriko kultura beharrak aseta geratuko dira auditorium berriarekin

Erabilera askotariko aretoa izateko asmoz egin dute Torresoroa

Domekan zabalduko dute, txistularien kontzertuarekin

Harmailak falta dira, baina asmoa aurten bertan jartzea da

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA
Dena prest dago domekan Torresoroa auditoriuma, edo, hobeto esanda, Torresoroa erabilera askotariko aretoa zabaltzeko. Antzuolako txistulari taldeak emango duen kontzertuarekin zabalduko dute aretoa, 12:00etan.

"Berez, eraikina inauguratura dago, baina auditoriumaren

irekierarako zerbaite herrikoia egin gura genuen. Pentsatu genuen txistularien kontzertua egokia izan zitekeela; izan ere, herriko talde gehienek parte hartzen duten ekitaldia izaten da. Gainera, jende asko erakartzen duen ekitaldia da, osoko bilkuren aretoa bete egiten da", dio Patxi Olabarriak, Kultura zinegotziak.

KULTURA BEHARRAK ASETA

Torresoroarekin herriko kultura beharrak aseta geratuko direla uste du Olabarriak. "Orain arte osoko bilkuren aretoan edo Olatz etxearen egin izan ditugu ekitaldiak; baina lekuz mugatuta egon izan gara", zehaztu du Kultura zinegotzi Olabarriak.

Olabarriak dio erabilera askotariko aretoa izango dela, ekitaldiak ikusteko aukeraz gain beste era bateko ekintzak egiteko aukera ere egongo delako; adibidez, entseguak, afariak edo gazteentzako diskoteka. "Lehen geneukan zinema areto bat harmaila finkoekin, baina era horre-

tako gauzetarako bakarrik erabil zitekeen. Orain, azalera oso zabala daukagu, ez bakarrik auditorium moduan erabiltzeko, baina herriko taldeek erabiltzeko ere", azaldu du Olabarriak.

Kultura mailan herriak dituen beharrak aseta geratzen diren galdetuta, Olabarriak hau dio: "Proiektu honekin, neurri handi batean, beteta geratzen dira geneuzkan beharrak; orain falta dena da harmaila jartzea".

Aurten bertan jarri gura dituzte harmailak. Pedro Iturbe

HARMAILA MUGIKORRAK

Aretoa domekan zabalduko den arren, oraindik eserlekuak jarri barik daude. Asmoa da harmaila mugikorra jartzea –hainbat kiroldeginat dauden modukoak–; modu horretan, harmaila batzean espazio zabala geratuko litzateke aretoan, eta aurretik esandako ekintzak egiteko aukera egongo litzateke.

Aurten bertan jarri gura dituzte harmailak. Pedro Iturbe

alkateak dio Diputazioarekin harremanetan dabiltzala dirulaguntzak lortzeko, baina gaur egungo egoera ez dela ona eta horrek baldintzatuko duela.

ARETOAREN NEURRIAK

Agertokiak 7x11 metroko azalera izango du; gainera, ate batetik aldageletara sartzeko aukera egongo da. Bestalde, aretoan ezker eta eskuin dauden eskaileraren azpian biltegi txiki batzuk daude. Komunak kanpoan daude, liburutegiko berak dira.

Aurreikusita dagoen harmaila mugikorrean 112 eserleku egongo dira; eta, harmailaren eta agertokiaren artean 3,5 metroko espazioa geratuko da. Beharra dagoenean, aulki gehiago jarteko aukera dago hor: gutxi gorabehera 50 eserleku.

Auditoriuma barrutik janzteko 500.000 euroko aurrekontua izan du Antzuolako Udalak. "Orain ikusten dena egiteko 220.000 euro gastatu dira", azaldu du alkateak.

DATUA
182
ESERLEKU


Harmaila mugikorretan 112 eserleku egongo dira; agertokiaren eta harmailaren artean 50 aulki jartzeko lekua egongo da; eta auditoriumaren goialdean, palkoan, 20 eserleku jarriko dituzte.

ESANAK
"Harmaila batuta azalera oso zabala geratzen da; auditoriumaz gain, beste erabilera batzuk eman diezaiokegu"

Patxi Olabarria > Kultura zinegotzia



Agertokiak zapta metro luze eta 11 metro zabal izango ditu. Irudiko langilea, azken ukituak ematen.



Harmaila joango den tokia; goian palko txiki bat dago.

A.E.

A.E.

HIRIGINTZA > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Babestutako etxeak zozketatuta, berriak eraikitzeko prestatzen

Beste 356 bat etxebizitza eraikiko ditu Visesak; horiek ere Zerrajera gunean, gaur egun aparkaleku dagoen lekuan

U.M. > ARRASATE
Joan den astean zozketatu zituen Eusko Jaurlaritzak Arrasaten eraiki dituen babes ofizialeko azkeneko 175 etxebizitzak. Bada, dagoeneko hasi dira lurzorua prestatzeko pausoak ematen Arrasaten babes ofizialeko etxebizitza gehiago eraikitzeko.

ERRENTAN EMATEKO
Eta ez da txikia eraiki gura duten etxebizitza kopurua: 356, gutxi gorabehera (behin betiko kopurua proiektua egiten dutenean

zehaztuko dute). Horiek guztia er Zerrajera gunean eraikiko dituzte, gaur egun aparkaleku moduan erabiltzen den orube horretan, hain zuzen.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik emandako xehetasunen arabera, "anbulatorioaren atzoko aldean eta Visesak eraikitako etxebizitzen atzoko aldean" eraikiko dituzte berriak, bi bloketan. Bloke batek izango ditu 216 etxebizitza eta besteak, berriz, 140. Etxebizitza horiek guztia errentan emateko asmoarekin eraikiko dituzte.

2010EAN HASIKO DIRA ERAKITZEN
Baina etxeok eraikitzen hasi aurrelik, Zerrajerako lurren kutsadura garbitu egin beharko dute. Justu oraingo astean jakinarazi dio Jaurlaritzak Arrasateko Udal Gobernuari garbiketa lanak laster hasiko dituztela. Aldez aurretik abisatuko dute

noiz hasiko diren, Zerrajerako behin-behinerako aparkaleku desagertu egingo da-eta.

Horrez gainera, Jaurlaritzatik emandako xehetasunen arabera, etxebizitzen proiektuak ere oraindik egin barik daude. Hori bai, aurreikusita dute 2010ean hasiko direla etxeok eraikitzen.

CAIXAKO ETXEAK, BI ASTE BARRU
Bestalde, Zerrajera gunean eraikitzen diharduten babes ofizialeko beste etxebizitza sorta Caixa aurrezki kutxa dabil eraikitzen: 148 etxebizitza, guztia ere errentan emateko. Caixakoek iragarrita zuten martxoaren 26an egingo dutela zozketa. Bada, oraingo astean jakinarazi dute zozketa hori noiz eta non egingo duten: Caixako bulegoan egingo dute (Garibai etorbidean), 10:30ean. Zozketa publikoa izango da; beraz, interesa duen edozeinendako izango dira ateak zabalik.

> INGURUMENA
San Josepe ideia
lehiaketako finalistak
Kulturaren izango dira

U.M. > ARRASATE
San Josepe harrobiko ideia lehiaketan finalistak izan diren bost proiektuen xehetasunak aurkeztuko dituzte, sakon, datorren astelehenean, martxoaren 16an, Kulturaren. 10:00etan hasi eta arratsaldea bukatu arte. Finalista bakoitzak hiru ordu laurden izango du norberaren proiektua sakon azaltzeko. Gero, entzuleek egiten dizkioten galderetik erantzun beharko die. Entzule moduan edozein herritar joan ahal da, baina ideia lehiaketako epaimahai-kideak ere izango dira aurkezpen ekitaldian. Izan ere, ekitaldi horretatik aukeratuko dute ideia lehiaketako irabazlea. 88.000 euroko saria emango diote hari; bigarren geratzen denari, berriz, 12.000 eurokoa.

Aurkezpen ekitaldian, Harrizate proiektua aurkeztuko dute 10:00etan. Kiskyo proiektua izango da bigarren, 11:00etan. Eguerdian, berriz, KO proiektua aurkeztuko dute, KO edo Karearrria Oinarri. Gogoan izan hori dela herritarren botoekin finalista izatera iritsi zena. Suelo proiektua 15:30ean aurkeztuko dute eta bukatzen, Tornera 16:30ean.

> POLITIKA
Presoen aldeko sinadura bilketarekin 'bat ez egiteko' eskaera

Arrasateko Alderdi Sozialistak Arrasateko bizilagunei dei egin die presoen alde herrian abiarazita dagoen sinadura bilketarekin "bat egin ez" dezaten eta ekimena "bazter" dezaten. Paco Gartzia bozeramaile sozialistak dio eskaera hori egin dutela hainbat arrasatear kexu direlako "beldurra eragiten" duen kanpaina horregatik. Eta azpimarratu du etxez etxe egin behar duten sinadura bilketa hori "San Andres auzora ere iritsiko dela, Isaías Carrascoren familia bizi den auzora".

bere ustez

Jokin Etxebarria

San
Mamestik
zirkura

Nahiz eta Realzale amorratua naizen, Athleticek magia berezia duela ezin dut ukatu. Besteala, galduet diezaiotela Del Nidori. Ikusgarria izan zen lehoiek 80ko hamarkadako espiritua nola berreskuratu zuten ikustea. Bilboko kaleak zuri-gorri jantziak, jendea futbolaz gozatzen. Athleticek politikak eta erlijioak baturik izango zutena baino indar handiagoa du Bizkaian eta hori argi eta garbi gelditu zen Sevillaren kontrako final-aurrekoan. Hurrengo

"Ordu erdiko albistegitik bi herenak baino gehiago jan zituen Athleticek"



Hankapalutan ikasi, hankapalu festan ibiltzeko

Asteon hankapalutan ibiltzen ikasten ibili dira Okendo, Usaetxe eta Santa Marinako ludoteketan. 8 eta 12 urte arteko 30 gaztetxok hartztu dute parte ikastaroan. Orain, ikasitako plazaratu ahal izango dute martxoaren 25ean. Egun horretan Txatxilipurdi elkartek hankapalu festa egin gura du: 17:00etatik 20:00etara Biterin egin dute hitzordua. Eta egurrez edo burdinaz egindako hankapalu tradizionalez gainera, *jumping* edo "salto egiteko" hankapaluak ere eramango dituzte, gaztetxoendako.

egunean, telebistako tertuliano bat entzun nion bitxia zela Athleticeko jarraitzaileak Errege Kopa baten borrokatik horren pozik ikustea. Baina *Euskal Herria is different*. Eta horren adierazle garbia dira hurrengo eguneko informatiboak. Athleticek duela 24 urte lortzen ez zuen gauza bat lortu eta gero, ordu erdiko albistegitik bi herenak baino gehiago jan zituen. Lehendakari postuaren borrokan murgildurik gauden honetan, PSEk eta EAJk izan zuten bilera 15. bideoa izan zen. Zurrumurru gaitzoez diote Sabin Etxetik espreski bidalitako agindua izan zela informatiboa Athleticekin hastea. Kontuak kontu, EITBk *hooligans*-ek hartutako zirkua zirudien.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturrioz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

San Andres Auzoa 10. pabilioia
Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

BIZTANLERIA > ERROlda

Erroldak beherako joerari eutsi dio, apur bat igo arren

Udal kuxtan eragina du, Aldundiko dirua erroldaren arabera banatzen da-eta, 22.065 biztale dira Arrasaten

JON BEREZIBAR> ARRASATE
Azken urteotan 22.200 zenbaki borobilaren bueltan ibili eta gero, 2007an apur bat murriztuta, urte hasiera honetan 22.065 biztanleko da Arrasateko erroldak, azken udal datuen arabera. Geroago eta gutxiago gara herrian, erroldari kasu eginez gero: urteko ia ehun biztanleko galera izan da azken urteetako joera. Iraganean dira 80ko hamarkadako erroldak, 26.000 biztanleko muga erraz gainditzen zituztenak. Aurtengo *saldoa* hil amaieran itxiko dute, baina urtarrilean 22.065 lagun zeuden erroldatuta; apur bat gora egingo luke, hortaz, iazko 21.980ko zenbaketatik. Herriaren bizitzan izan dezakeen eraginaz haratago, biztanle behera-kada egungo "arduretako bat" izan daiteke, Ino Galparsoro alka-teak agertzen duenez. Arrasaten bizi edo erroldatutakoek batetik

eta bestetik ikasketa edo lanaren-gatik herrian bizi direnek osatzen dute biztanleria. Datu guztiek eskuan behar direla ohartzen du alkateak, baina erroldaren galeraren eragile batzuk azaltzen ditu: batetik, gauza jakina dela "Arrasaten jende asko bigarren etxebizitza eroasterakoan kanpoan erroldatzen dela"; eta bestetik, Arrasate "plaza garestia" dela ere begi bistean du – inguruko herri edota Gasteizerako joera-, eta horrekin batera, "batzuk behin hemen lan-bizitza bukatuta euren herria joan izana". Foru Aldunditik datozen laguntzeta eragina du kopuruak. Hain zuzen, Gipuzkoako fondoe-tatik datorren dirua udalerriaren biztanleriarekiko zuzenki proporcionala da – gutxi gorabehera %80an –, alkateak emandako azalpenen arabera. Gaur-gaurkoz, Arrasate 20.000tik beherako herrien multzoan sartzeko bi mila biztanletik gora galdu beharko lituzke; beraz, epe ertainera ez litzateke halakorik gertatuko. Gainera, baikor da Galparsoro, eta ez soilik aurtengo *saldoaren* haz-kunde txikiagatik, egun "egiten dabiltsan etxebizitzak martxan dauden heinean tendentzia alda-keta ekarriko" duelako.

> LANA
Grebari ekingo diote Iturbideko langileek, Udal Gobernuak datorren asterako erantzuten ez badie

Eguaztenean Iturbide egoitzako langileek egindako agerraldian, Udal Gobernuari atzera ere egin zioten gaiari heltzeko eskaera. Dio-te hilaren 24an hilabete beteko dutela kale agerraldiak egiten eta adierazi dute erantzunik lortu ezean greban hasiko direla egun horretan. Udalak azpikontrataturiko Untza enpresako beharginek eska-tzen dute pareka daitezela euren eta udal langileen lan baldintzak. Azpikontrataturiko langileek diote 2008ko urtarrilean 150.000 euroko partida onartu zuela Udalak langileen egoera hobetzeko. "Mugimendurik egon ez" dela diote salataileek eta uztalean hasitako elkarri-zketek ez dutela emaitzarik ekarri. Amaitzeko, eransten dute "Arrasateko alderdi guztiekin" egin dituztela bilerak eta orain arte euren eskaera babestu dutela EB-Zutik-ek eta Aralarrek. Ez ei dute uler-tzen Udal Gobernu "ezkertiarrak" gai horretan eredugarri ez izatea".

> HAUTESKUNDEAK
Eusko Alkartasuna alderdiaren emaitzak auzoz auzo

Barkamena eskatzen dizuegu aurreko GOIENKARIAn hautes-kundeen auzoz auzoko emaitzak azaltzerakoan egindako huts egi-te batengatik. Albistearen atxiki-tako taulan Eusko Alkartasuna alderdiaren datuak falta ziren. Hauek dira: erdialdean 281 boto (%8,87), Santa Marinan 35 (2,96), Musakolan 90 (%7,83), San Andre-sen 70 (%4,74), Uribarrin 101 (%4,16) eta auzoetan 12 (%5,88).



Gambrinus
garagardotegia

Otalora 40-42
Arrasate
Tel.: 943 79 53 32

Pintxo 1 doan

garagardo pitxer 1 hartzeagatik

2x1
produktu guztieta

Ostegunetan: 19:00 - 24:00
Larunbata eta Igandeetan: 7:00 - 13:00



MIREN ARREGI

Zuhaitz Eguna ospatu zuten Garagartzan

Lete baserriaren inguruan sartu dituzte aurten zuhaitzak: haritzak, gaztainondoak eta bertako zuhaixkak. Herriko ikastetxeetako DBHko seigarren mailako 145 bat neska-mutiko joan ziren martitzenean, aitzur eta zuhaitzak hartuta, eta asmoa zen 240 bat landatzea. Horrekin, ekosisteman zuhaitzek duten garrantzia ohartarazi gura izan dituzte Ingurumen Saitetik. Gaztainondoak Aldundiaren Arizmendi mintegitik ekarri zituzten eta haritzak Bilboko Bertoko haztegitik.

NAGUSIA ZARA?
JAKIN EZAZU NAGUSIMETROA BETETA

Berlingo
CITROËN BERLINGO BERRIA.
BENETAN NAGUSI DIRENENDAKO

1.Zuk erabakitzeko duzu lanegunaren hasiera eta bukaera? BAI EZ
2.Zuk erabakitzeko duzu zenbat denbora duzun baziak? BAI EZ
3.Zuk erabakitzeko duzu noiz joango zaren oporetara? BAI EZ
4.Zuk erabakitzeko dituzu enpresako txartelen koloreak? BAI EZ
5.Zuk erabakitzeko duzu enpresara nola jantzia joan? BAI EZ


Baiezkoak 1etik 2ra baldin badira: ez zara nagusia; 2tik 4ra: erdi nagusia zara; 5etik 5: nagusia zara.

Citroën-ek Berlingo berriaren merkatuztarekin batera nagusimetroa aurkezten du: nagusia zaren jakiteko metodoa ezin hobea. Citroën Berlingo berria ez baita edozein ibilgailu. Erabat birsotua, monobolumen baten erosotasuna eta 4x4 baten indar guztia ditu bateratuta. Joan zaitez gertuen duzun Citroën auto kontzesionarioa eta deskubri ezazu Citroën Berlingo berria, nagusia.

Eta, bidez batez, merkatuan ibilgailu komertzialen artean liderrak diren aukerak aurkeztuko dizkizugu:

Talleres Chapime, S.C.L.
Debagoineko Citroën Kontzesionario ofiziala.
San Andres auzoa 5. Arrasate | Tel.: 943 79 45 22
Tallerko orduetegia: Astelzenetik egubakoitzera: 8:00-13:00 eta 15:00-19:00
Zapatauetan, enpresa eta langile autonomoiei zuzendutako matentze lan zerbitzua. (Aurrez deitu)

CITROËN

txaloak eta txistuak

JOKIN BEREZIARTUA

Uarkapeko kristalek garbiketa sakona behar dute



Uarkapeko jatetxeen afaldu duen irakurle batek eraikinaren aurrealde osoa hartzen duten kristalak oso zikin daudela jakinarazi du. Kristalok garbiketa sakona behar dute, horretan ados daude jatetxeoak ere. Aukea arduratzentzat da horretaz. Era berean, eraikineko beheko aldean aspaldiko kartelek kendu barik jarraitzen dute...

kanpotarrak Arrasaten

Florian Laouenan > Ingeniaria
Aÿ (Frantzia)

"Poteoa harrigarria da; taberna asko dira oso denbora gutxian!"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE
2008ko apirilean, Parisko ipar-ekialdean dagoen Aÿ herria utzi eta Arrasatera etorrizen Florian Laouenan. Ingeniaria da eta Ikerlaneko mikrosistema arloan egiten du lan.

Atzerrian lan egin nahi zuen kanpoko esperientzia bizi ahal izateko, eta Arrasateko Ikerlan ikerketa zentroa aurkitu zuen Interneten. Bi aldagaik baldintzatu zuten haren etorrera, batez ere: Ikerlanen lan eskaintza, batetik; eta gure herriaren kokapena, bestetik. Hau da, Bilbo eta Donostiatik gertu, eta etxetik ez oso urrun.

OZO HERRI EZBERDINAK
Aÿ eta Arrasate oso ezberdinak direla dio, "itxura aldetik batez ere". Aÿ lasaia da, etxe txikiz osatutako 1.200 biztanle pasatxo dituen herrixka. Champagne eskualdean dago, eta, beraz, herria xampaina egiteko mahastiz inguratuta dago. Arrasateko erdigunea asko gustatzen zaio, baina periferia, Laouenanen



Florian Laouenan.

ustez, "ez da hain polita, blokez josita baitago". Horretaz gain, ez du ulertzen nola egon daitekeen hainbeste auto herri barruan.

"Basoa eta mendihamar minutura daude: Udal, Urkulu... oso leku ederrak dira"

PARAJEAK ETA EUSKAL OHITURAK

Gure erliebe menditsua gustuko du Laouenanek: "Basoa eta mendihamar minutura daude: Udal, Urkulu... oso leku ederrak dira". Askotan egiten ditu irteerak, mendiko bizikletan. Oso gustuko du, esaterako, Atxorrotxera joatea.

Jendearekin oso ondo kontontzen da; lagun asko egin ditu hemen. Hala, badu poteoa norekin egin: "Hasieran poteoak harritu egiten ninduen, taberna asko dira oso denbora gutxian!". Gero, baina, konturatu zen taberna bakoitzean tragicoa bat bakanrik hartzen dugula. Horren harira, ohitura horrek euskal termino garrantzitsu bat irakatsi dio: *zuritoa*. Janariari dagokionez, pintxo eta ogitarkeoak ezagutu ditu, baina espezie "gutxiengi" erabilizten ditugula uste du. Gainera, musean jokatzen ere ikasi du.

Azkenik, "kanpoan dagoen beste edozeinen moduan", lagunen eta familiaren falta sumatzen du; ahal duenean bisitatzen ditu.

IRITSI DA UDABERRIA, EMAIOZU KOLOREA ZURE BIZITZARI!



Erdiko kalea 54 behe 20500
ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

nº R.P.S. 297 / 05.



SOLARIUM homologatua

6 saio
+
1 opari

42 €
bakarrrik

(dutxa zerbitzua, toalla, osteko krema, eta abar...) Martxoaren 13tik apirilaren 8ra.



BERRITASUNA: LASER PLATAFORMA

- Fotogaztetzea
- Fotosendotzea
- Aknearentzako fototerapia
- Fotodepilazioa
(urteko edozein momentutan depilatzeko, edozein koloretako azala izanda)



Txanogorritxu, antzerkiaren une batean, pantailan otsoaren irudi beldurgarria duela.

DEABRU BELTZAK

ANTZERKIA > 'NORA ZOAZ, TXANOGORRITXU?'

"Umeek ipuina kontatzen lagunduko digute bihar"

Deabru Beltzak taldeko kide Katrine Schlegel-ek GOIENKARI azaldu dio bihar ipuina kontatuko duena, seguruenik, despistatu samar ibiliko dela

XABIER URTZELAI > BERGARA
Bihar, zapatua, Amaia antzokira joaten diren gazte eta ez horren gazteek (18:00) –berez, haurren-dako antzerkia da– Txanogorritxuren bertsio moldatu bat iku si ahal izango dute.

Eta, Katrine Schlegel Deabru Beltzak taldeko kideak onartu digu seguruenik ipuin kontalarai lanetan ibiliko den lagunak publikoaren laguntza beharko duela: "Ipuin hori oso ondo ezagutzen dute gaztetxoek, eta horretaz baliatuko gara gu. Izan ere, gure ipuinak hainbat akats izango ditu, eta akats horiei esker nahas men apur bat sortuko dugu: Txanogorritxu ipuin horretako pertsonaiak ez direnekin elkartzea, magian eta karatean aditua den

otso beldurgarria bidean galtzea, ekaitz galantekin topo egitea... Edozer gerta daiteke, eta gertatuko da".

Hori dela eta, gaztetxoek ipuinen gaineko zuzenketak egin beharko dituzte etengabe, eta horri esker adi-adi egongo dira: "Umeendako antzerkia egiterakoan berehala konturatzen gara gaztetxoak noiz dabiltsan ondo pasatzen eta noiz dabiltsan aspertzen. Horregatik, gazteei emanaldi biziak eskaini behar dizkiegu, erritmo handikoak eta ez oso luzeak".

MUNDU PARALELOTAN
Nora zoaz, Txanogorritxu antzez-lana egiteko, Deabru Beltzak-eko lagunek zuzeneko aktoreen lana

grabatuta dituzten zati batzuekin tartekatuko dute, eta grabatutako zati horiek pantaila handi batean eskainiko dituzte: "Bi mundu ezberdinan gertatzen diren bi istorio kontatuko ditugu, otsoarena eta Txanogorritxuren. Mundu bat pantaila erraldoi bidez antzeztuko dugu eta bestea taula gainean egongo diren aktoreekin. Modu horretan, antzerkia eta zinema bateratzen ditugu ikuskizunean".

ZINEMA EMANALDIAK
Antzerki emanaldiarekin batera, asteburuan bi film emango dituzte Amaia antzokian, nagusiendako bata eta gaztetxoendako bes-tea. Nagusiendako –13 urtetik gorakoak– *Mi nombre es Harvey Milk* filma egongo da ikusgai domekan (19:30) eta asteluhenean (20:30). Gazteendako, berriz, *City of Ember, en busca de la luz* akziozko filma emango dute domekan, 17:00etan.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Captain Nemo, T-Sex eta Electric Riders 3.60 aretoan

X.U.-> ARRASATE

Gaur, egubakoitzoa, (22:30) 3.60 aretoan egingo duten rock kontzertuan, Captain Nemo, Electric Riders eta T-Sex taldeak igoko dira taula gainera.

Captain Nemo Donostiaro punk-rock taldea dugu, nahiz eta hardcorea ere egiten duten. Dead Kennedys eta Celibate Rifles lotzen dituzte orain arte, eta laugarren diskoa aurten argitaratu gura dute.

T-sex Toledotik datorren taldea da, eta haien ere hainbat estilo erabiltzen dituzte kantuak egiteko orduan: rocka, soula eta jam band delakoa.

Azkenik, Electric Riders taldea (Iruñea, 2000) Estatuan psikodelia eta rocka nahasten duen bakarretakoa da. Hiru lan argitaratu dituzte orain arte, eta laugarren diskoa aurten argitaratu gura dute.



Music for a family gathering da Electric Riders taldearen lanetako bat. GOIENKARIA

> KONTZERTUA

Elizondoko herriko bandak kontzertua egingo du datorren egunean, hilak 19, Amaia antzokian

Arrasateko eta Elizondoko musika eskolek elkartruke moduko bat egingo dute datozen hilabeteotan. Hala, datorren egunean, hilak 19, Elizondoko herriko bandakoek kontzertua egingo dute Amaia antzokian, 19:30ean hasita. Horren trukean, Arrasateko musikariak Elizondora gonbidatu dituzte maiatzeko Zubian joateko, han kontzertua egiteko.



KONTRATAK
IRROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

OSORIK
PUB

Ignazio Zuloaga 4
ARRASATE

UGARAN
Jatetxea

Garagartzauzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

IAMA ANTZOKIA
ARRASATE

Gaur martxoak 13
00:00etatik aurrera
Dany boy
Bakarrizketak



ATLETISMOA**Dorronsoro, Mar eta Axpe, Oviedon**

Espaniako gazte mailako txapelketan lehiatuko dira asteburuan

X.U. >ARRASATE

Arrasate-Kanpanzar atletismo taldeak hiru ordezkariz izango ditu asteburuan Oviedon: Lore Mar, Maialen Axpe eta Eukene Dorronsoro.

Marrek eta Axpek pertika saltoan jardungo dute, eta podiumera igotzeko lehiatuko dira biak. Hain zuzen, Lore Marrek 4,40 metroko saltoa egin zuen joan den astean Anoetan, eta bere kategorian marka onenetakoak da hori. Dorronsorok, berriz, 200 metroko lasterketan korrituko du, orain arte egin duen marka onena hobetzeko asmoz (26,72).

Bestalde, domekan egingo dute eskola arteko 11. atletiada. Mojategin entrenatzent diren Arrasateko eta Aretxabaletako 42 atleta gazte izango dira lehian.

FUTBOLA > MONDRA**Azkarate: "Egungo zuzendaritzazaldetik inork ez du Mondran jarraitzeko asmorik"**

Mondrak atzo egin zuen ezohiko batzarrean erabaki zuen hilabeteko epea ematea hautagai berriak aurkezteko

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Jose Luis Azkarate buru dela, egun Mondra futbol taldea zuzentzen duen taldeak bete egin du orain dela lau urte hartutako kompromisoa, eta atzo egindako ezohiko batzarrean hauteskundeak deitu zituen apirilaren 13rako.

Orain, Mondrako zuzendaritzaz hartzeko gertu daudenek hilabeteko epea izango dute euren taldeak aurkezteko: "Zurrumurren bat edo beste entzun dugu, baina ez dakit inor aurkeztuko ote den; egia esateko, ez dut uste", adierazi digu Mondrako presidenteak: "Eta hautagairik aurkezten ez bada, sakon aztertu beharko dugu klubaren etorkizuna. Akaso, beste klub batzueta gertatzen den moduan, jokalarien gurasoek hartu beharko dute klubak zuenzeko ardura".



Azkarate, Rekarterekin batera, Realeko kapitain ohiaren ohorezko sakean. GOIENKARIA

ORAIN ARTE EGINDAKOA

Egungo zuzendaritzak egin dituen aurrerapausoen artean daude, besteak beste: emakumezko beste bi talde ateratzea, futbol eskola, jantzi berriak, Mondraren himnoa grabatzea, Gazta eta Ardo Eguna antolatzea, Txelisen aldeko omenaldi partidua antolatzea...

Baina klubean igarri egin dituzte Badiolaren Realak zortean utzi zituen 36.000 euroak (iaz eta aurten), eta, diru horren faltan, zuzendaritzakoek buruhauste galantak izan dituzte klubeko gastuei aurre egiteko orduan: "Ez dakigu diru hori jasoko dugun, baina aurrekontua osatzeko beharrezkoa da".

zaldibar**EMAIZZAK**

Betrayer-Iluntz	29-4
Lasagabaster-McAwenDauen	8-3
Cipris-HLB 108	2-5
Iriztza-Ekaitz Taberna	4-3
Equus-Total Disaster	1-2
Dublin Irish Pub-AT Celaya	5-5
Bar Aldapa-Saukelu Kobia	3-8
Urza-Iturrioz Taberna	2-6

PARTIDUAK (KOPA)

Martxoak 14, zapatura	Epaileak
11:30 Ekaitz Taberna-Betrayer	Antolatz.
12:30 Abokajarro-Cipris	Antolatz.
16:30 Paulaner Drib-Lasagabaster	Antol.
Martxoak 15, domeka	Epaileak
12:00 Abokajarro-Paulaner Drib.	Antolatz.
13:00 McAwenDauen-Dublin Irish	Antolatz.

Kopa itzuliko da asteburuan Zaldibarrera

Liga txapelketak astebete-ko atsedena izango du, eta kopako kanporaketak jokatuko dituzte oraingo asteburuan Zaldibarren. Eta, adi Paulaner Dribling eta Lasagabasterren arteko norgehiagokari, zapatu arratsaldean jokatuko duten bakarra da-eta.

Joan den asteburuko emaitzei errepasoa eginez gero, bai, Betrayerren eta Iluntzen arteko partiduko emaitza ondo dago (29-4).

Erakusketa KULTURAREN

HOMOFOBIA -ren aurpegiak

Martxoaren 6tik 22ra

Transfobia Lesbofobia

KULTURATEKO KLAUSTROAN

ehgam www.ehgam.org

BIDEGORRIA > BERGARA-ANTZUOLA

Bonbulu-Urteaga: bi aukera landu ditu Udalak bidegorrirako

Bonbulu-Urteaga pabiloiko sartu-irteerari soluzioa aparkaleku berri batekin

Bonbulutik Urteagara bidegorria ibaiaren ezkerraldetik joatea da beste proposamena

EDU MENDIBIL > BERGARA

Asteleheneko ezohiko osoko bilkurak hasiera baten luze joko zuela ematen zuen, baina gai zerrendan jasotako hamar puntuak (bi kanpo geratu ziren azkenean) *di-da* baten onartu zituzten; guztiak aho batez, gainera.

BI ALTERNATIBA BONBULUN

Bergara-Antzuola bidegorriaren proiektuari dagokionez, alegazioak aurkeztea adostu zuen udalbatzak. *Camino Real* izenarekin ezagutzen den zatia Uzarragra joateko bidea hasten den lekuaren hasten da, Matzerreka paraleloki jarraituz, Antzuolarantz zuzenzen da errepiadearen eskuma aldetik, errekarren gainetik pasatuz. Bergarako Udalaren iritziz, txirrindu eta oinezkoen bideak

afekzio handia sortzen du, gaur dagoen antolamendua hankaz gora jarritz. Bonbulu-Urteaga pabiloiko sartu-irteerari soluzioa emateko Udalak auto eta kamioiendako aparkaleku berria egitea proposatu du, proiektuko desjabetzak handituz: "Bidegorriak pabiloiaaren surrealdean zati handi bat kendu eta zama lanetarako sortzen dituen arazo-ei irtenbide egokia emateko, iruditzen zaigu egokiena ekiadeko eremuuan lurzoru erreserba sortzea dela Foru Aldundiak industriei kentzen dion mugikortasuna bermatzeko", dio idatziak.

Ingru horretan beste proposamen bat aurkeztu dio Udalak Diputazioari, bidegorria Bonbulutik Urteagara ibaiaren ezkerraldetik joatea alegia. Alternativa



Errepidearen ezkerraldetik ala eskumatik bidegorria egitea aztertzen dabilta. E.M.

tiba hori garestiagoa litzateke, baina alderdi guztien oniritzia du baita. Bestalde, kirol ikuspuntutik, erabiltzaile potentzial guztien

errealitatea jaso eta arau, seinalle eta bidegorri eraikuntzan denak kontuan izatea azpimarratzen du Udalak.

Aipatutako Bergarako Bihangintza 98 Sari bidaliko zai, dagon kion erabakia har dezan. Kontuhartzaileak adierazitakoaren arabera, Bergarako Bihangintzaren administrazio kontseiluak onartuko balu, 309.122 euroko kapital ekarpena egitera derrigortzen du Udalak.

PSE-EE-REN MOZIOA, ATZERA

Asteleheneko osoko bilkura amaituta, presazko ez ohizko batzarra deitura zegoen PSE-EEren udal taldearen mozioa aztertzeko. Emakume Langilearen Nazioarteko Egunarekin lotutako testua zen, besteak beste, Euskal Autonomi Erkidegoa, berdintasunaren alopean, erreferente bat izateko ekinatzak burutzeko eskatzen zuena.

Zortzi akordio hartzea eskatzen zuen mozioak, baina Aralarreko

eta EAEko zinegotziek eezko botoa eman zioten eta EAJKo ordezkarriak eta EAKOa abstentitu egin ziren bozketa.

EAERi hainbat gauza eskatzea exijitzen zuten azken hiru puntuak onargarriak ez zirela salatu zuen Iñigo Iñurrategik (Aralar) eta gaia denboraz lantza interesgarria litzatekeela esan zuen. Era berean, mozioa gaztelera hutsean aurkeztu izana salatu zuen. Azken puntu honekin bat egin zuen Agurne Barruso alkateak eta zera gogoratu zuen: "Berdintasun diagnostikoa eta plan bat diseinatzekotan dago Udala eta hortik aterako dira hartu beharreko berdintasun neurriak zeintzuk izango diren. German Muruamendiaraz EAJKo zinegotziak Eudelek onartutako deklarazio instituzionala berrestea nahiko luketela adierazi zuen.

bere ustez



Iñigo Garitano

Inkoherentzia
ala
biziraupena?

Duela hiru hilabete kexatzen nintzen hemen albiste txarrak baino ez nintzela jasotzen ari. Tamalez, egoerak ez du hohera egin. Tarte horretan jasan ditut, gutxienez, hiru hileta eta hauteskunde kanpaina. Ez ditut maila berdinean koka-tzen, baina, tira, amankomunean gutxienez etsipena badute, eta zerbait gehiago ere.

Hauteskundeei buruz, ez dut asko esaterik, are gutxiago etorkizuna antzemateari buruz. Igarle gisa, jai dut. Aitortzen dut konbentzituta nengoela jeltzaleek eta sozialistek osatuko zutela gobernu, ezker abertzalearen ordezkaritza debekatua izan den legebiltzarrean. Bainaz ez,

"Aitortzen dut
konbentzituta nen-
goela jeltzaleek eta
sozialistek osatuko
zutela gobernu"

OSOKO BILKURA > AGORROSIN KIROLGUNEA

Agorrosingo kirol eremuko aldagelak, lehiaketara

Emakumeen Egunaren harira, PSE-EEk aurkeztutako mozioa atzera bota zuten gainerako alderdiek asteleheneko osoko bilkuran

E.M. > BERGARA

Agorrosingo kirol eremuko alda-gelen moduluengen (biltegia, komunak eta bulegoak barne) horniketa eta muntaiaaren kontrataziorako proposamen teknikoa eta

baldintza administratiboen ple-gua onartu zuten astelehenean, aho batez. Udal teknikariaren proposamenaren arabera, aurrekontua eta lizitazio oinarria 358.581 eurotan finkatzen da.

badirudi aldaketak izango ditugula. Osasungarria iruditzen zait horrenbeste urtez agintean daudenak oposizio-را joatea. Bainaz aldaketa ez dut hoherako izango denik sumatzen. Nazio moduan ezer gutxi ospatzeko dugun hone-tan, futbol partida batek sortu duen pozaldi kolektiboa ulergarriagoa egiten zait, nahiz eta jokoan Espaniako Erregearen kopa egon (Lehen Generalisimoarena). Inkoherentzia? Biziraupena, agian. Nik ere, larunbata iluntzean, lagun artean une atsegina bat pasatzeko aitzaki bihurtu nuen hileta baten ostekoak.

BOLU SUKALDEAK



RENOVE PLANA



Bolu 22. Bergara. Tel./ Faxa: 943 76 27 02 • bolusukaldeak@euskalnet.net • <http://goiena.net/blogak/bolusukaldeak>



GIARTZU *gimnasioa*



Fitnessa

- Lan kardiobaskularra.

Spinninga

- Arnas sistema eta sistema kardiobaskularra hobetzen ditu.
- Tentsio arteriala zaintzen laguntzen du.
- Pisua zaintzen laguntzen du, etab.

Body Balance

- Gorputz eta adimenaren entrenamendua.
- Estresa kentzen du eta indarra, malgutasuna eta kontzentrazio ahalmena hobetzen ditu.
- Forma fisikoa hobetzen du.



Easy Line

- Norberari egokitutako intentsitatezko entrenamendua.
- Kardio-lana eta tonifikazio orokorra (talde murriztuak).

Karate eta goshina umeentzat (4 urtetik aurrera)

- Karatea dibertigarria da, umeen kontzentrazioa hobetzen du, koordinazioa hobetzen du, ingurunarekin erlazionatzen laguntzen du, norberarekiko eta besteekiko maitasun eta errespetua izaten laguntzen du.
- Goshin: Mutil eta neskentzako defentsa pertsonala. (0 mailatik hasita, talde murriztuak).




Karate eta goshina helduentzat

Defentsa pertsonala

- Nork bere buruaren gain konfiantza.
- Norberarekiko eta besteekiko maitasun eta errespetua.

Tai txia

- Ariketa fisikoa eta arnasketa eta kontzentrazioa konbinatzen dituen antzinako arte txinatarra.
- Adimenaren eta gorputzaren osasunerako oso onuragarria.



Estresaren aurkako aurpegi-tratamenduak

-

Aurpegi-tratamendu personalizatuak

-

Estresaren aurkako gorputz-tratamendu erlaxatzaleak

-

Tratamendu erreduktoreak

-

Pisua zaintza, eta abar



www.giartzu.com | gimnasio@giartzu.com

Boni Laskurain 3 BERGARA 943 76 30 05

EUSKARA > JARDUN ELKARTEA

Batzar orokorra egingo du bihar, zapatua, Jardun euskara elkarteak

Maiatzaren 16an, berriz, gogoeta saioa egingo dute Altzاسu elkartean; datorren urterako ekintzak zehaztu nahi dituzte eta egungoak aztertu

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Jardun euskara elkarteak bi hitzordu garrantzitsu ditu datozent hilabeteetarako. Bata, batzar orokorra; bestea, gogoeta saioa.

Batzar orokorrari dagokionez, bihar, zapatua, izango da, kultura etxeen. Lehenengo deialdia 11:00etarako egin dute eta bigarrena, 11:30erako.

Urteko batzarrean landuko duten gai zerrendari dagokionez,

sei puntu dauzka: aurreko urteko akta onartzea; lehendakaria-ren agurra; 2008ko egitasmoen balantzea; 2009rako aurreikusitako egitasmoak eta aurrekontua; bazkide kuoten igoera; eta azkenik, erregu eta galderen tarteen bakoitzak dakinrena.

Horrekin guztiarekin, gonbita egiten diete bazkide guztiei batzarrera joan daitezen iritzi eta ekarpenak jasotzeko.

GOGOETA SAIOA

Maiatzaren 16an egingo dute gogoeta saioa. Altzاسu elkartean izango da, 09:30ean. Hasiera baten martxoaren 29rako iragarrita zuten arren, atzeratzea erabaki dute. Izan ere, egun horretan Gorlako txirrindulari igoera dago eta errepidea itxita egoten da.

Gogoeta saioaren helburu nagusia da datorren ikasturte-

rako ekintzak pentsatu eta zehaztea. Gogoeta saio horrekin Jardunen asmoa da gaur egun egiten dituzten ekintzak aztertzea eta helburuak betetzen dituzten edo ez ikustea. Modu horretan erabaki ahal izango dute ekintzok mantendu behar dituzten, kendu behar dituzten edo indartu egin behar dituzten. Bestetik, sormena ere landu nahi dute eta ekintza berriak abiarazi.

PARTE HARTZEKO DEI EGUN DUTE

Gogoeta saio horretan parte hartuko dute Jarduneko zuzendaritzako kideek, langileek eta arlo ezberdinaren adituak diren pertsonak. Baita bazkideek ere; eta horretarako dei berezia egiten diete gogoeta saiora joan daitezzen.

Hori horrela izanik, saiora joateko interesa duten bazkideek izena ematea eskertuko luke-te Jardun elkartean, 943 76 36 61 zenbakira deitura edo bulegora joanda.

Gogoeta saioa eguerdirako amaituko da eta gero bazkaria egongo da elkartean.

IKASTAROAK

Askotariko ikastaroak apirilean KZgunean

M.B. > BERGARA

Apirilean egongo diren ikastaroen berri eman du KZguneak.

Nagusiweb eta e-administrazioa ikastaroa egongo da apirilaren 20tik 30era, 09:00-11:00 eta 18:00-20:00 ordutegietan, bietako bat aukeran.

Sinadura elektronikoa ere egingo dute, 17an, 22an eta 29an. Lehenengo bietan ordutegia izango da 11:00-13:00 eta 29an, 16:00-18:00.

Justizia ezagutu ezazu delako ikastaroa ere egongo da, 17an, 16:00-17:00 ordutegian; eta Via Michelinekin bidaiatu, 17an, 17:00-18:00 ordutegian.

Alatz Larrañaga > Sagarpe elkarteko presidente

"Sagarperen hirugarren egoitza da bihar inauguratuko duguna"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA
Zapatuan inauguratuko dute Sagarpe elkarteko bazkideek Iparragirre kaleko egoitza berria. Barrenkaleko egoitzan errentan zeuden, eta, hango kontratua bukatu eta gero, lokala erosia eta berria egin dute.

Elkartearren hirugarren egoitza inauguratzekotan zaudete. Zenbat bazkide ditu Sagarpe berriak?

Bai, honen aurretik beste bi egoitza izan ditu elkartek: lehenengoa 1948an ireki zuten, Artekalen; bigarrena, 1953an, Barrenkale; eta hirugarren bihar inauguratuko duguna da, Iparragirre kalean.

Bazkideei dagokienez, gaur egun 100 bazkide gara elkartearriean -lehengoan 135 zeuden-. Bazkide horietatik erdia baino gehiago berriak gara eta gainerakoak dira lehengo elkartetik datozenak.



Alatz Larrañaga. M.B.

Egoitza berriarekin batera arau berriak ezarriko dituzue?

Horretan dihardugu. Egoitzaren izaera aldatu egin da; alegia, lehengo egoitzan errentan geunden eta oraingoa erosia egin dugu. Horrek ezinbestean estatutuetan hainbat aldaketa egitea dakar. Bestetik, barne arautegian ere egingo ditugu aldaketa batzuk. Jende gazte asko dago

elkartearren eta horri gehitu behar zaio arautegia zaharkitua geratu dela, aspaldi berrikusteke dago-eta. Baino hori guztia apirilaren 17an egingo dugun ezohiko batzarrean landuko dugu.

Eraman duzue ezer egoitza zaharretik berri?

Dena da berria. Eroan dugun bakarra dira, besteak beste, Miguel Okinaren eta Simon Arrietaren margolanak eta kafe makinak. Margolanak Miguel eta Josu Okinak zaharberritu egin dituzte.

Nola inauguratuko duzue?

Bihar, zapatua, inauguratuko dugu, 12:00etan. Aritzeta Abesbatzak abestu egingo du, Juan Kruz Mendizabal abadeak bedeinkatu egingo du, udal ordezkariei oroigarria emango diegu eta lehengo eta gauko bazkideen dako luncha ere egongo da.

IRTEERA

> San Josepekoek bi irteera egingo dituzte martxoan

Martxoaren 17an Oiongo upategi batera joango dira eta sarrerakoa eta bazkaria han egingo dituzte. Prezioa da 25 euro. Autobusa abiatuko da 08:30ean autobus geltokitik. Bigarren txangoa Erreenteriara egingo dute, hango mendi batera. Autobusa abiatuko da 07:00etan, autobus geltokitik. Prezioa da 15 euro.

ODOL ATERATZEA

> Hilaren 18an izango da hurrengo odol ateratzea

Ohi bezala, Seminarioko egoitzan izango da eguztenean, 18:30ean hasita.

BERTSO AFARIA

> Bihar, zapatua, izango da Artaise elkartean

Amets Arzallus eta Beñat Gaztelumendi bertsolariek hartuko dute parte. 21:00etan izango da. Txartelak eros daitezke Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan. Prezioa da ikasle eta langabeendako 15 euro eta gainerakoendako, 24.

oharrak

LEHIAKETA

> Azken egunak izena emateko Musika Moderno Lehiaketan

Musika Eskolak antolatu du lehiaketa. Talde ez profesionaldako lehiaketa da eta modalitate bakarrera mugatuta dago: musika modernoa. Lehiaketa izango da apirilaren 26an. Izenematea martxoaren 16an bukatuko da. Izenematea eta informazio gehiago 943 76 57 80 telefono zenbakian.

HITZALDIA

> Independentziaren gaineko hitzaldia

Independentziaren galera delako hitzaldia egingo du Floren Aoizek martitzenean, hilak 17, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.

UDAL ZERGAK

> Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Zergaren 2009ko errolda onartu du Udalak. Zerga ordaintzeko borondatezko epea hasiko da martxoaren 2an eta bukatuko da maiatzaren 29an. Egun horretatik aurrera errekaraguarekin kobotatuko dute.

trinmer
telecomunicaciones

tdt
televisión
digital
terrestre

Bergaran ere badago Lurreko Telebista Digital!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 - 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
antenas@trinmer.com | www.trinmer.com

GOIERRI AUTO GIDARIEN ESKOLA



Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Egunerojan janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

ZINEMA > FILM LABURREN ZIRKUITUA ZABALOTEGIN

Debagoiendarrek egindako bi film egongo dira gaurko zirkuituan

'Lo bakarrik' eta 'P.D.: ondo ibili' izango dira debagoiendarrek egindako bi lanak

Emanaldia 19:30ean hasiko da eta ordubete inguru iraungo du; sarrera bi euro da

JASONE ZABALA > BERGARA

Gaur, egubakoitzta, Jardun euskara elkartearren eskutik Topagunearen VI. film laburren zirkuitua eskainiko dute Zabalotegi aretoan, 19:30ean; sarrerak bi euro balio du.

Guztira zortzi film eskainiko dira eta ordubeteko iraupena izango du saioak; zortzi film horien artean, debagoiendarrek egindako bi daude: batetik, Iban del Campo arrasatearraren *Lo bakarrik* eta Yera Sanchez are-

txabaletarrak beste kide batzuekin batera egindako *P.D.: ondo ibili*, hain zuzen ere.

DEBAGOIENDARREN BI FILMAK

Del Camporen filmak 14 minutuko iraupena dauka. Bakarrik lo egitearen eta lo bakarrik egitearen artean dagoen aldea erakussten du; lo egin ezin duen emakume batek denetarik probatu du, eta hala ere ezin. Ezagutzen du inork lokartzeko moduren bat hutsik egiten ez duena? Film



P.D.: ondo ibili film laburreko fotograma bat.

GOIENKARIA

labur horretako protagonista prest dago edozertarako. *P.D.: ondo ibili*, berriz, Aretxabaletako Yera Sanchezek Puntutap Ar-

te produkzio taldearekin batera egindako filma da. Bi minutu eta 45 segundo irauten du eta bertan, Leire protagonistak munduari

bira eman nahi dio, baina ezin du. Hortaz, irudimena erabiliko du bisitatu nahi dituen hiriak Donostian bertan aurkitzeko.

ZINEMA > ZABALOTEGIN ETA GAZTETXEA

Sei zinema emanaldi egongo dira asteburuan

J.Z. > BERGARA

Asteburuan umeendako eta helduendako zinema emanaldiak egongo dira Zabalotegi aretoan eta zinekluba gaztetxeen. Bihar, martxoak 14, hiru emanaldi eskainiko dira Zabalotegi: alde batetik, 17:00etan umeendako

saioa egongo da: *El patito feo y yo* izenezkoa. Helduendako, berriz, bi saio egongo dira: 19:30ean bata eta 22:30ean bestea. *La momia 3* pelikula eskainiko dute.

Domekan, berriz, umeendako eta helduendako saio bana egongo da: 17:00etan umeendako *El*

patito feo y yo; eta 19:30ean, helduendako, *La momia 3*. Umeek bi euro ordaindu beharko dituzte eta helduek hiru.

Gaztetxeen, berriz, zinekluben barruan, *Hacia rutas salvajes* film amerikarra eskainiko dute domekan, 18:00etan.



E.M.

Nafarroari buruzko erakusketa

Nabarreldek antolatuta, *Nafarroa, euskal estatua* izeneko erakusketa egongo da ikusgai domekara arte - otsailaren 25a ezkerro egon da ikusgai -udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

Bertan hainbat lan daude ikusgai eta ordutegia ondorengoa izango da: gaur, egubakoitzta, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatu eta domekan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

**TELEIXA
BILTEGIAK**
Eraikuntza
materialak

Telleria (Labegarieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behean
943 76 59 54 BERGARA

**ARANE
KRISTALDEGIA**

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

**BEHEKO
TABERNA**

Menestra
eta untzia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

MIZPILDI
OKINDEGIA

Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

Larrañaga
BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
San Pedro, 9. Teléfono: 761051
R.S.I. 209374-55
BERGARA

SNOWA > MANEX AZULA

Manex Azula Suitzan egingo duten International Volcom Stone's-eko finalerako sailkatu da

Aste Santu ostean egingo dute finala, Les Diablerets estazioan; asteburuan, berriz, Espainiako txapelketan lehiatuko da

XABIER URTZELAI > BERGARA
Manex Azulak (Bergara, 1995) esku hartzan duen txapelketa bakoitzean jendea aho zabalik geratzen da. Bergarako *rider* gaz-


teak 13 urte baino ez ditu, baina geroago eta ezagunago egiten dabil snowa egiten dutenen artean.

Azulak Kantabriako snow txapelketa irabazi zuen otsailean, eta asteburuan estatu mailako International Volcom Stone's txapelketan nagusitu da, 15 urtetik beherako artean, *Jibbing* modalitatean. Pirinioetan egin dute txapelketa hori, Port-Aineko estazioan, eta, lehenengo postu horrekin, hilaren 18an Suitzako Les Diablerets eski estazioan egingo duten finalerako sailkatu da Azula. Hala, txapelketa horretako

finalean Europako eskiatzaile onenekin batera lehiatuko da Bergarakoak.

ESPAINIAKO TXAPELKETA

Manex Azula atzamar bat hautsita itzuli da Port-Ainetik –baranda batean hartu zuen min–, baina horrek ez dio eragotziko asteburuan La Molina eski estazioan egin behar duten Espainiako txapelketan esku hartzen. Bergarakoak hiru modalitatetan jardungo du: paralelo erraldoian, *half pipe*-ean eta *boardercross* modalitatean.



Erretratuan Manex Azula bergarar gaztea, baranda batean.

GOIENKARIA



BTLSko jokalariak, Ilintxaren kontrako norgehiagokan.

J.A.

FURBOLA > ERREGIONAL MAILA

Bolada onean diren BTLS eta Antzuola, bihar Ipintzan

Biharko derbian azken asteotako garaipenekin aurrera egin duten bi talde lehiatuko dira

X.U. > BERGARA

Bihar arratsaldean BTLSk (28) eta Antzuolak (31) derbia jokatuko dute Ipintza futbol zelaian (16:30). Bi taldeak gorputzaldi onean daude biharko derbiari begira, azken asteotan aldeko emaitzak izan dituzte-eta.

Azkeneko jardunaldian BTLSk bana egin zuen Lagun Onak taldearen kontra, eta berdinak horrek balio handia izan zuen, erregionaleko talde indartsuenetako baten zelaian eskuratu zutelako –bide batez, emaitza horrek mesede egin zion lider dagoen Bergarari-. Baino, berdinak horrekin batera, mahoneroek aurreko bi jardunaldietan ere irabazi

egin dute, Anaitasunaren zelaian 0-1 eta Urolaren kontra 2-1, hain zuzen ere.

Antzuola, bestalde, geraezin dabil azken lau asteotan. Jai-tsiera postuetatik gertu egoteik lau partidu jarraian irabazita gora begira jartzen pasa dira. Eta Ipintzara bosgarren garaipenaren bila joango dira.

LIDERAK, ILINTXAREN ZELAIAN
Joan den astean estropazu egin zuen Bergarak (52), baina denboraldiko bigarren porrota baino ez zen izan. Bihar (16:30), Manu Diazzen mutilek zazpigarren postuan dagoen Ilintxaren kontra jokatuko dute, etxetik kanpora.

ZIKLISMOA > DENBORALDI HASIERA

Mikel Aristirendako bigarrena, Beasainen

Sumofic taldekoa Ibaetako eta Beasaingo sarietan nagusitu da denboraldi hasieran

X.U. > BERGARA
Sumoficeko kadeteek indartsu hasi dute denboraldia, eta talde-kideen artean Mikel Aristi nabarmendu da, dagoeneko birritan igo da-eta podiumeko lehenengo postura. Orain dela 15 egun azkarrera izan zen Ibaetan eta joan den asteburuan, Beasaingo Usurbe sarian ziklista onena izan zen.

ESPRINTERAN ONENA
Lasterketako protagonista Leo Fournier (Cam Bordeaux) frantziarra izan zen, ibilbide ia osoa

ihes eginda egin zuelako. Fournierrek Liernia gaina lehenengo pasa zuen, baina zazpi txirrindulariz osatutako taldeak Ormaiztegin harrapatu zuen frantziarra. Taldetxo horren barruan zegoen Mikel Aristi, eta azken metroetan bergararrak esprintean duen abiadura erakutsi zuen.

Oraingo asteburuari dagokionez, kadete mailako ziklistak Azpeitiko 29. sarian lehiatuko dira domekan eta gazte mailako txirrindulariek Eibarren izango dute hitzordua, Udaberri Proban.



Sumofic taldeko Mikel Aristi, Beasaingo Usurbe sariko podiumean; denboraldiko bigarren garaipena du.

LOKATZA

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen □ bada giro!

MRLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu
Zatoz gure musikaz gozatzera
Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01

VALDEZATE
Bokatak eta plater konbinatuak
Araba ibilbidea 5, behe - Tel: 943 25 07 40

IOSU
taberna harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

Dorleta
Loteria primitiboak eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA

OTZETA JATETXEA
Aramburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67

BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94

Gurea
TABERNA
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**hemen □ bada
giro!**

ERRETIRATUAK > BATZAR OROKORRA

Ekintzak antolatzen jarraituko du Basotxok, 945 bazkiderendako

85 urtetik gorako bazkideek kuotarik ez ordaintza onartu zuten martitzenean

Zuzendaritzako lau kide aldatu dituzte eta presidenteak aurten ere Imanol Arantzabal da

MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta Martitzenean, hilak 10, egin zuen Basotxo erretiratuen elkartea urteko batzar orokorra. Bazkide guztiei egin zieten elkartekoak deia eta Urats Gain zaharren egoitzako aretoa bete egin zuten.

Iaz egindako ekintzen txostenan irakurri zuen Jesus Mari Martinez idazkariak, eta diru kontuen berri eman. Bidaiek eta irteerek arrakasta handia izan zutela aipatu zuen, baina berbaldietara oso jende gutxi joan zela, "nahiz eta benetan gai interesgarriak izan edadetuan dako".

Aurten ere ildo beretik jarraituko dute ekintzei dagokienez, eta hauek dira ikasturtean zehar antolatuko dituztenak: astebeteko hiru bidaia -lehena apirilean, Portugalera-, egun bateko bost irteera, mendi bueltak -Landa-



Basotxo erretiratuen elkarteko zuzendaritzako batzordea bazkideen aurrean, martitzeneko batzarrean.

ko bazkideei kuotarik ez kobra-tea hemendik aurrera. 945 bazkide ditu Basotxok eta horietatik 87 dira 85 urtetik gorakoak. Azken urtean 31 bazkide hil dira eta 50 sartu dira elkartean.

Esan zuten orain arte harreman ona izan dutela udal ordezkariekin, eta Gizarre Zerbitzuetako zinegotzi Araceli Herranek elkartea egiten dituen bileretan egoteko interesa azaldu duela. Zaharren egoitza berria zabaltzen dutenean -maiatz inguruau- Urats Gainen dauden egoiliarrak hara eroango dituzte eta Basotxo elkartearren egoitzarekin zer geratuko den ez dakite oraindik zuzendaritzako kideek: "Udalak ez digu ezer esan".

Bestalde, lau kidek zuzendaritzako batzordea utzi dute bi urte egin eta gero eta beste lau bazkide sartu dira: Miguel Cabero -diruzain lanak egingo dituena-, Pedro Etxebarria, Ana Mari Iñurrategi eta Kontxi Romano. Eta batzordean jarraituko dute beste urtebetetako lau hauetako: Imanol Arantzabal -presidente-, Jesus Mari Martinez -idazkaria-, Javier Sanz eta Itziar Errastik.

LISBOARA BIDAIA

Lehen bidaia antolatuta dauka Basotxok: apirilaren 13tik 19ra joango dira Lisboara (Portugal). Astean bukatu da izenemate epea eta autobusa beteta dago.

ELKARTASUNA

Saharako umeak etxearen hartzeko dei egin dute

M.A. > ARETXABAleta
Opparak bakean egitasmoa antolatu dute urtero legez Sahararen alde lanean dabiltsan hainbat elkartek, tartean Aretxabaletako Iesbaak. Iaz bezala, bi eratara ekaniko dituzte umeak uztaila eta abuztua pasatzeko: batetik, Las-turrera (Deba), aterpetxearen egoteko bi hilabeteak; eta bestetik, etxeetara, familiekin egoteko.

Bata zein bestea aurrera eroteko herritarren laguntza behar dute: lehenengo kasuan, dirulaguntza, egonaldia, bidaia eta sortu diren gastuak ordaintzeko; bigarren kasuan, ostera, familiaiak behar dituzte umeak etxearen hartzeko. Argibide gehiago gura izanez gero deitu elkarera, 626 63 91 64, edo mezu bat bidali: iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com.

POLITIKA > PSE-EE

Herritarrei esker ona emaitzengatik

Aretxabaletako PSE-EEko kideek eskerrak eman gura dizkiete herritarrei martxoaren 1eko emaitzengatik

M.A. > ARETXABAleta

Aretxabaletako PSE-EE alderdia oso pozik dago martxoaren 1eko Legebiltzarrerako hauteskundeetan herrian jasotako emaitzakin. Hori horrela, eskerrik eman gura dizkiete aretxabaletarrei.

HERRIA ERAKITZEN JARRAITU

657 boto eskuratu zituen PSE-EE alderdiak gurean eta herriko bigarren indarra izan zen. EAJk

berbaldi. Horiez gain, podologoen eta ile-apaintzailearen zerbitzuak eskaintzen dizkiete bazkideei. Txanda aurrez hartu behar dute Basotxon bertan.

KUOTAIGOERARIK EZ

Urteko kuota ez igotzea erabaki du zuzendaritzako batzordeak, eta sei euro izango da aurten ere. Gainera, erabaki dute 85 urtetik gora-

KIROLA > IKASTAROA

Kirol 'coaching'-aren gaineko berbaldia

xMartitzenean da berbaldia udaletxeako ganbaran, eta Igor Arenatza aretxabaletarra dago hizlarien artean

M.A. > ARETXABAleta

Kirol coaching-a zer den eta zertarako erabil daitekeen jakiteko argibideak emango dituzte martitzenean, hilak 17, udaletxeako ganbaran (18:30). Eki Coach enpresak antolatu ditu berbaldia eta ondorengo saioak eta Udalaren eta Incoade (Kirol Coachingaren Instituta) elkartearren laguntza jaso du. Kirola gustuko duen eta hobetu gura duen edonor joan

daiteke. Antolatzaileek diote kirol coaching-a aproposa dela entrenatzaile, hezitzaile fisiko, kirol elkartetako kide eta antzeko lanetan dabiltzanendako. Gainera, ez da futbol kontua bakarrik, edozein kirolera rako da egokia, baita bakarka jarduten dutenendako ere.

HOBETZEKO SAIOAK

Hiru hizlariak gidatuko dute martitzeneko berbaldia: Incoade institutuko presidente Imanol Ibarrodrak, Maria Alañak eta Igor Arenatza UDAko preferente taldeko entrenatzaile aretxabaletarrak.

Horren harira, interesatuta daudenek ikastaroa egiteko aukera ere izango dute. Hona egunak: martxoak 24 eta 31 eta apirilak 21 eta 28. 15:30etik 19:30era izango dira saioak.

KIROLA > IRTEERA

Mendira eta sagardotegira Murrukixo elkartearrekin

Martxoaren 29an,
840 metroko garaiera
duen Bianditz
mendira igoko dira

Hilaren 24an amaituko
da mendi elkarrekin
antolatutako irteeran
izena emateko epea

MIRIAN BITERI > ARETXABAleta
Kirola eta euskal ohiturak uztar-
tuko ditu Murrukixo mendizale
elkarrekin antolatu duen dato-
ren irteeran. Izan ere, martxo-
aren 29an, domeka, mendi irte-
era egingo du eta jarraian sagar-
dotegian bantzalduko dute
mendizaleek.

Antolatzaleek jakinarazi
digutenez, Oiartzun aldera joango
dira egun horretan. Autobusa
08:00etan irtengo da Azbe lan-
tegi ondoko bus geltokitik. Ondo-
ren, Oiartzun ibaiaren bailarako
tontorrik garaiena igoko dute:
Bianditz. Horrek 840 metroko
garaiera du.



Aiako Harriaren ondoan dago Bianditz mendia; martxoaren 29an joango dira Aretxabaletatik.

GOIENKARIA

Izenematea dagoeneko zaba-
lik dago. Interesatuek Murruki-
xok Durana kalean duen lokale-
ra joan beharko dute martitzene-
netan, 19:00etatik 20:00etara.
Martxoaren 24an amaitzen da ize-
na eman ahal izateko epea. Kirol
elkartetik azaldu dute sagardote-
gian bantzalzea asmorik ez dute-

nek berdin izango dutela irteera-
ra joateko aukera. Kasu horretan,
norberaren esku geratuko da baz-
karia txangora eramatea.

PREZIOA

Irteerako prezioen berri ere eman
dute antolatzaleek. Kirol elkar-
teko bantzideendako autobusak

hamar euro balioko du; ez bazki-
deendako, berriz, hamabi euro.
Sagardotegiko menuaren prezioa,
aldiz, 30 euro izango dela azaldu
dute.

Esan bezala, irteera martxo-
aren 29an izango da eta horretako
izenematea hilaren 24an
amaituko da.

GAZTEAK > ATXEGAZTE

Gazteak musika gela margotzen ibili dira

M.B. > ARETXABAleta
Lanpetuta ibili dira azken eguno-
tan Aretxabaletako gaztelekuau.
Gazteek entsegu gela margotu
dute. Paretentzak aldatu egin
dituzte; orain beltzak eta gorriak
dira. Gazteleku kide batek, gai-
nera, grafiti bat egin du; emaku-
me baten irudia azaltzen da horre-
tan, tonu grisetan. Pozik daude
margoketa lan horren bidez lor-

tu duten emaitzarekin, musika
gelari irudi berria ematea lortu
dute-eta.

Bestalde, datozen egunei begina
antolatu dituzten ekimenen
berri eman dute: bihar, zapatua,
hankapaluei buruzko tailerra izan-
go da eta etzi, hilak 15, herrien arte-
ko Balance Bike txapelketa joka-
tuko dute Eskoriatzako frontoian;
biak ere 18:00etan izango dira.



Taldekide bat musika gelako grafitia margotzen.

GOIENKARIA

 **Garbittu**

Errekabarren 3, behea ARETXABAleta
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

- Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
- Obra bukaerako garbiketak
- Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
- Kristalen garbiketak
- Arropa garbiketak



Loramendi 1
20550 ARETXABAleta
Tel.: 943 79 71 69

KULTURA

Askotariko ekimenak egongo dira Arkupen

Zinema, musika,
haur ikuskizuna eta
emakumeen gaineko
solasaldia daude

M.B. > ARETXABAleta

Askotariko ekimenak egongo
dira datozen egunotan Arkupe
kultura etxeen. Bihar, zapatua,
hasiko dira, haurrendako
ikuskizunarekin. Maite Fran-
cok ipuinak kontatuko dizkie
liburutegian biltzen diren ume-
txoei. Goizean izango da hori,
11:00etan, eta horretarako
sarrera librea da. Domekan,
berriz, *Misión en Moaland* ize-
neko filma ikusteko aukera
izango dute haurrek, hiru euro-
ren truke. Betiko moduan,
emanaldia 17:00etan hasiko da.

Helduendako zinemarik
ere ez da faltako datozen eguno-
tan. Gaurtik astelehenera
bitarte, *El Intercambio* filma
emango dute. Gaur eta bihar,
egubakoitza eta zapatua,
22:00etan izango da; domekan,
19:30ean; eta astelehenean,
16:00etan. Lehenengo hiru egun-
etan lau euro balioko du eta
astelehenean, bi.

SOLASALDIA ETA KONTZERTUA

Horretaz aparte, Martxoaren
8aren harira antolatu duten
egitaraua zabalaren barruan,
martitzenean, hilak 17, kafe-
solasaldia egongo da. Zaraia
aretoan egingo dute *Emaku-
meak aniztasunean* leloa duen
ekimena, 19:00etan. Horretan
parte hartzeko gonbita egin
dute antolatzaleek.

Eguaztenean, berriz,
musika izango da nagusi. Leiz-
zarra musika eskolako ikas-
leek txistu emanaldia eskai-
niko dute, 18:30ean. Sarrera
librea izango da.

> UMEAk

Karaokea antolatu dute bihar goizerako ludotekan

Mikrofona hartu eta lagunekin
batera abesti ezagunak
abestea gustuko duten nes-
ka-mutikoek hitzordua dute
bihar, zapatua: herriko ludotekan
karaokea antolatu
dute.

Goizerako antolatu dute
esandako musika ikuskizuna,
11:00etatik 13:00etara
bitarte. Eguraldiak lagun-
tzen badu, ludoteka parean
dagoen plazan egingo dute
emanaldia. Antolatzaleek
herriko ume guztiei karaoke-
an parte hartzeko gonbita
egin diete.



Kepa Altube eta Carlos Lista, sinatzeko momentuan.

MIREN ARREGI

HEZKUNTZA > LANKIDETZA HITZARMENA

Hitzarmena sinatu dute Lege Soziologia eta Larraña institutuek

Hitzarmenari esker, besteak beste, informazioa trukatzeko eta garatzeko, eta bi erakundeen arteko elkarlana bultzatzeko aukera izango dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Lege Soziologiko Nazioarteko Erakundeak eta Zuazola-Larraña institutuak lankidetza hitzarmena sinatu zuten martxenean. Lege Soziologia institutuaren izenean Carlos Lista zuzendari zientifikoak sinatu zuen, eta Zuazola-Larraña institutuaren izenean, Kepa Altube zuzendariak. Hitzarmenaren helburua bi erakundeen arteko elkarlana zehaztea eta bultzatzea.

tza eta proiektuak burutzea da. Bestalde, bi erakundeetako ikasleek eta irakasleek hizkuntza eta kultura ezagutzeko eta garatzeko aukera izango dute. Era berean, informazioa trukatu eta berriazko gaitasunak osatzeko eta bereganatzeko laguntza jasoko dute.

BI ERAKUNDEEN HELBURUAK
Elkarrekin lan egiteko hitzarmena sinatu arren, erakunde

bakoitzak helburu ezberdinak bete nahi ditu. Zuazola-Larraña institutuak DBHko ikasleekin kultur aniztasuna eta eleanizasuna landu nahi ditu. "Unibertsitate zaharrera ikasketak egitera edo lanera doazen ikasleak gure geletara gonbidatuko ditugu, kultur arteko elkar ezagutza bultzatzuz", esan zuen Kepa Altubek.

Lege Soziologia institutuak, alboan duen Zuazola-Larraña institutuaren instalazioak erabiliko ditu. "Besteak beste, eskolak emateko eta hitzaldiak egiteko aukera izango dute gure egoitzan. Gainera, Oñatiko bizimodu ezagutzeko aukera emango diegu", dio Altubek.

> GAZTELEKUA
Hilaren 25era arte zabalik gaztelekuko mus txapelketako izenematea

Gaztelekuak mus txapelketa egingo du hilaren 27an, eta dagoeneko zabalik dute izenematea epea. 12-17 urte arteko gazteendako txapelketa da, eta izena bikotea eman beharko dute, hilaren 25a aurretik.

Gazteleku I. Mus txapelketa zortzi erregetarajokatuko dute eta jokalarien arteko keinuak balezkao izango dira.

> MUSIKA
Musika eskolakoek udaberriko bi kontzertu egingo dituzte

Jose de Azpiazu Musika Eskola-ko ikasleek udaberriko bi kontzertua egingo dituzte martxoko azken astean; hain zuzen ere, hilaren 23an eta 25ean, 18:30ean Santa Ana antzokian. Lehen kontzertuan, lehen moduluko eta intrumentu ezberdinak lantzen dituzten ikasleek parte hartuko dute, besteak beste. Gainerakoek bigarrenean parte hartuko dute.

> UDALA
Artxibozain lanpostuko izenematea gaur itxiko dute udal bulegoetan

Artxibozain teknikari lanpostua betetzeko prozesura aurkeztu gura dutenek gaur eman behar dute izenea udal bulegoetan. Artxibozain diplomatura edo pareko tituluren bat duten guztiak aurkez daitezke deialdira. Gainera, laugarren hizkuntza-eskakizuna gainditu dutela egiaztu beharko dute. Informazio gehiago www.oinati.net wegunean.

oharrak

MENDI ASTEA

> **Ikus-entzunezkoa eta mendi irteerak**

Aloña Mendi antolatutako Mendi Astearen barruan Kirgistan, granitzko mendiak dela-ko ikus-entzunezkoa eskainiko dute Tasiok, Goserrrik eta Txirritak, kultura etxearen 19:30ean.

Bestalde, mendiko eski irteera egingo dute bihar eta etzi Pirinioetara. Autobusa 05:30ean irtengo da. Gainera, domekan egun bakarreko mendi irteera egingo dute Itxiñako ingurune karstikora. Autobusa 08:00etan irtengo da parroquia aurretik.

ERAKUSKETA

> **Onddoen gaineko erakusketa ikusteko azken egunak**

Ingurumen Astearen barruan Natur Eskolan ikusgai dagoen erakusketa hilaren 18an itxiko dute. Egunero zabaltzen dute.

ODOL ATERALDIA

> **Odol ateraldia egingo dute gaur, egubakoitza**

Odol emaileen elkartea antolatuta odol ateraldia egingo dute gaur Txantxiku Ikastolan, 18:30etik 20:30era.

BIRZIKLAPENA

> **Birziklatutako olio batuko dute zapatuan**

Etxeko olio birziklatua bilten duen Puntu Berde Mugikorra plazako aparkalekuaren egongo da bihar, 09:00etatik 13:00etara.

ZERBITZUAK

Sistema informatikoa aldatzen duten bitartean, bazkide txartela erakutsi beharko da kirodegian

Zubikoa kirodegiko sistema informatikoa hobekuntza lanak egiten dihardute; besteak beste, kirodegira sartzeko kontrol sistema aldatuko dute. Horregatik guziagatik, kirodegira sartzeko tornuak ezingo dira erabili martxoaren 16ra arte. Bitartean, bazkideek txartela erakutsi beharko dute.

Bestalde, tornuak erabilgarri jartzen diren egunetik aurrera bazkide guztiak bulegotik pasa beharko dute hatz-marka berrixtera. Hatz-markak berrituko dituzte, hilaren 16an, 18an, 23an, 25ean eta 27an 08:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara; hilaren 17an, 24an eta 26an 08:00etatik 13:30era eta 15:00etatik 19:00etara; eta hilaren 28an, 09:00etatik 12:00etara.

txaloak eta txistuak



MIREIA BIKUÑA

Olarako erloju-termometroa apurtuta dago aspaldian

Olaran bizi den bizilagun batek deitu digu azken semaforoen inguruan dagoen erloju-termometroaren berri emateko: "Aspaldian apurtuta dago, ez ditu ordua eta temperatura ematen, eta ez da lehen aldia! Askotan egoten da apurtuta. Iaz, adibidez 88 gradu markatu zituen. Dagokionak konpondu dezala!".

UDALA > DEIALDIA


Datozen lau urteotarako bake epaile titularraren eta ordezkoaren bila

Egunotan herriko kaleetako atarietan kargu horren gaineko informazioa duen iragarkia jartzen ibili dira; datozen egunotan elizateetara helduko da

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako bake epaile titularra eta ordezko aukeratzeko deialdia egitea onartu zuen udalbatzak azken osoko bilkuran. Hautatutako izendapena lau urterako izango da eta titularraren ordainsaria 1.700 euro inguru izango da, karguarekin bateragarri diren jardueren dirusarrera arruntekin bateragarri izango dena.

Bake epailearen kargua betetzeko izena eman nahi dutenek honako betebeharra bete behariko dituzte, gutxienez: 18 urte beteta edukitzea, Espainiako nazionalitatea izatea, Eskoriatzan bizi izatea, 3. hizkuntza eskakizuna edo parekidea egiatzea, epaile funtzia betetzeko ez-gaitasun



Herriko kaleetako atarietan bake epailearen gaineko iragarkia jartzen ibili dira azken egunotan.

MIRIAN BITERI

fisikorik edo psikorik ez izatea eta kargu politikorik edo sindikalik ez edukitzea.

IZENEMATEA

Karguan interesa dutenek udaltek erregistro nagusian eman beharko dute izena, deialdi

horren iragarki ofiziala Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasi eta ondoren 15 lanegunetan. Atzo, eguneña, oraindik argitaratu barik zegoen esandako deialdia. Izena ematerakoan, kargua hartzeko betebehar guztiak betetzen dituz-

diote; baita elkarrizketa pertsonala ere, bake epailearen karguren funtzio eta betebeharren gai-neko. Azken horretan, lanpostua betetzeko egokitasuna neurtuko da eta gehienez bost puntu lortu ahal izango dira.

IKASKETAK ETA LANGABEZIA

Ikasketak edo tituluak, bestalde, hiru punturaino neurtuko dira. Puntuaziorik handiena Zuzenbidean lizenziadunei emango zaie, karrerako praktikak egiteko lanpostu egokia delako. Azkenik, interesatuak langabeziaren daraman denborari ere garantzia emango dio Udalak; gehienez, bi punturekin.

Epaimahaia honako hauek osatuko dute: alkatea edo haren ordezko zinegotziren batek; Persoal batzordeko kide diren zinegotziek; Euskara teknikariak, euskara maila neurtzeko; eta udal idazkariak edo ordezkoak.

IRAGARKIA ATARIETAN

Deialdi horren berri emateko, Udala iragarki hori herriko atarietan jartzen ari da egunotan. Dagoeneko herriko kaleetan banatu du eta datozen egunotan elizateetara helduko da.

IKASTAROA

Masaje bateratua dago datozen hilabeteotan

M.B. > ESKORIATZA

Masaje bateratuaren gaineko ikastaroa antolatu dute Eskoriatzan datozen hilabeteotako. Horretan izena emateko azken eguna apirilaren 8a da.

Eskolak apirilaren 23an hastekoak dira eta bi hilabete iraungo dute, ekainaren 18ra arte. Eguznetan izango dira horiek, 17:45etik 19:45era, kultura etxean. Jose Luis Armentia ardaturako da horiek emateaz. Ezaguena da Armentia herrian, aurrekoetan ere antzeko ikastaroak eman ditu-eta. Yoga irakaslea, masajista eta terapeuta gestaltikoa da.

BI MASAJE MOTA

Ikastaro horietan masaje mota bi landuko dituzte: mendebaldeko masaje lasaigarria eta kiromasajea ekialdekoarekin bateratzen saiatuko dira eskoletan. Hau da, digitopuntura eta yoga pasiboarekin.

UDALA > AURREKONTUA

Kontuak ikusgai hilaren 24ra arte

Gura duen edozeinek aurkeztu ahal izango dizkio erreklamazioak 2009ko aurrekontu orokorraren proiektuari

M.B. > ESKORIATZA

Eskoriatzako Udalaren aurtenago udal aurrekontuaren hasierako onarprena dagoeneko jendaurrean dago. Martxoaren 24ra arte haren aurkako erreklamazioak aurkez ditzake edonork. Aurrekontua udaletxeko Idazkaritza-Kontuhartzaitza sailean ikus dezakete gura dute-neke.

2009ko udal aurrekontuari joan den urtarilaren 19an egindako osoko bilkuran eman zion udalbatzak lehenengo onarpeña. Baino, prozedura arazo bat dela eta, joan den otsailaren 25ean egindako bilkuran aurre-

kontu hori baliogabetu egin behar izan zuten, eta horren ordez kontu berriak onartu zituen udalbatzak.

ALDAKETA BAKARRA

Aurtengo aurrekontu orokorra 4.900.524,36 eurokoa izango da. Baliogabetuarekin alderatuta, aldaketa bakarra du: EB-Berdeak eskatuta, gerran desagertutako herriko zazpi zibilen gaineko salaketak eta epaiketak egin ahal izateko euro bateko partida sortzea onartu dute; kopurua hori, baina, aldatu egingo da, eskaririk egiten bada.

Aurrekontu berriaren iragarkia martxoaren 5ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta, esan bezala, martxoaren 24ra arte dago erreklamazioak aurkezteko aukera. Erreklamaziorik egoten ez bada, udalbatzak behin betiko onartu beharko du osoko bilkuran esandako proiektu berri hori.



GOIENKARIA

Amuskakoak Burgosen izan dira

Amuska emakumeen elkartekoak Burgosen izan ziren zapatuau, Emakumeen Eguna zela eta. Jakinarazi digute oso gustura ibili zirela eta bisitatuko tokiak oso interesgarriak izan zirela: "Eguraldi bikaina izan genuen, giroa fresko samarra basen ere". Besteak beste, Cartuja de Miraflores eraikin erlijiosoa, Santa Maria la Real de las Huelgas monasterioa eta Burgosko katedrala bisitatu zituzten. Irudia azken horretako eskaileretan atera zuten eskoriatzarrek.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Danbakako irabazleak gaur daude Inkernun

The Wet Band talde mutrikuarra gaur gauean igoko da agertokira; The Auambas, berriz, bihar

Aitzorrotz kultura elkartea antolatutako bi kontzertu horiek 22:30ean hasiko dira

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Danbaka III. musika lehiaketako irabazleak igoko dira Inkernu tabernako agertokira. Kontzertua 22:30ean hasiko da eta sarrera librea izango da. Biher, berriz, The Auambas taldeak hartuko du lekuoa. Emanaldi horri ordu berean emango diote hasiera: 22:30ean.

The Wet Band 2007ko hasieran sortu zen Mutrikuko rock kolektiboak kudeatzen dituen udal lokaletan. Hiru gazte hasi ziren orduan: Wendi (gitarra eta ahotsa), Aitzol (bateria) eta Iñigo (baxua eta ahotsa).

Bertsioak egiten hasi ziren, askotariko musika estiloak jorratuz: bluesa, punka, soula, rocka, hard rocka... Hainbat kontzertu eskaini ostean, taldeek kantruak sortzen hasi ziren eta ahots gozoa bilatzeari ekin zioten, Ainaldekin topo egin arte.

2008ko abuztuan, Mutrikuko AME estudioetan bost kantu dituen maketa grabatu zuten: *A song for us, Raven Blacky, Hutsik, I thought I was a rock eta Flight*. Rocka egiten dute, askotariko ukituak ematen, hala nola pop-rocka, funk-rocka, soul-rocka eta stoner estiloa. Kantuen tituluek

erakusten duten moduan, euskaraz eta ingelesez abesten dute.

THE AUAMBAS

Zapatuan, berriz, The Auambas sek joko du Inkernun. Talde hori 2006an sortu zuten enpresa berean lan egiten zuten lau gazteren artean. 2007an maketa grabatu zuten. Ukitu rockeroa zuten, dantzarako erritmoak alde batera utzi



The Auambas bizkaitarrek bihar joko dute Inkernun.

GOIENKARIA

gabe. 2008ko azaroan Arrasateko Shot estudioetan sartu ziren, Iñaki Bengoaren gidaritzapean bost abestiz osatutako diskoa grabatzeko. Taldearen eboluzioa nabaria da, melodia eta erritmo dantzagarrien erreinuarekin topo egi-

ten dute. Iaz Euskadi Gazteko maketa lehiaketako finalistak izan ziren eta aurren, Idiazabalgo pop-rock lehiaketako lehen saria irabazi dute. Horrek Idiazabalgo Sound Sorce estudioetan disko berria grabatzeko aukera eman dio.



The Wet Band da Danbaka III. lehiaketako irabazlea; ikusleen saria ere mutrikuarrek jaso zuten.

GOIENKARIA

KIROLAK > ERAKUSTALDIA

Biharko kenpo erakustaldian 30 ikasletik gora izango dira

Alberto Narro, Josu Letonak eta Juan Modinok arte martzial horren erakustaldia egingo dute

M.B. > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, kenpo erakustaldia dago Intxaurtxueta kiroldegian, 18:00etan. Autodefentsarako arte martzial horretako irakasle Rafa Carrietek jakinarazi du ekimen horretan Karate Atama Eskoriatzako kirol elkarteko irakasle guztiek parte hartuko dute; guztira, 30 lagunetik gora. Gehienak 5 eta 14 urte bitarteko neska-mutikoak dira; edozelan

ere, hainbat helduk ere ez dute hutsik egingo eta Intxaurtxuetan izango dira bihar.

TXAPELDUNAK

Tartean, Espainiako kenpo txapeldutako irabazle Alberto Narro, Lehiaketa Unibertsitario txapeldun Josu Letona eta Espainiako txapeldunorde Juan Modino debagoiendarrak egongo dira hantxe.

Carrietek azaldu duenez, erakustaldian zehar eskoletan iksitako oinarrizko teknikak landuko dituzte gaztetxoenek. Urte gehiago daramatzatenek, berriz, defentsa pertsonaleko teknika konplikatuagoak egingo dituzte, bakarrik zein hainbat aurkariren kontra.

Gainera, Alberto Narro, Josu Letona eta Juan Modinoren erakustaldiak ere ikusteko aukera egongo da Intxaurtxuetan. Ekinetan amaitu aurretik, ikasleek diploma bana jasoko dute.



Eskoriatzako eskolako ikasleek parte hartuko dute erakustaldian.

GOIENKARIA

oharrak

ZERGAK

> Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasa ordaindu behar da
Udalak trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga borondatzez ordaintzeko epea zabaldu du, apirilaren 8ra arte.

ONA TXARTELA

> Martxoan ere ONA txartela eskura daiteke liburutegian

Martxoan ere aukera dago erabilera askotariko osasun txartela eskuratzeko liburutegian egun eta ordutegiota: martxitzent, eguazten eta eguneztan, 16:30etik 20:00etara.

UMEAK

> Txotxongilo tailerra antolatu dute gaurko Tortolisen

Astero moduan, ekimen berezia antolatu dute gaurko Tortolisa ludotekan. Txotxongilo tailerra dago, 18:00etan.

KIROLAK

> Areto futbola eta saskibaloi daude bihar kiroldegin

Partidu bi daude bihar Intxaurtxuetako kiroldegin. Lehena areto-futbol lehia izango da: ohorezko ligan, Eskoriatza Los Alkones taldearen kontra lehiatuko da, 16:00etan. Jarraian, 18:00etan, senior mailako saskibaloi partidua egongo da: etxeeko Zarautz izango dute aurrean.

UMEAK

> Film emanaldia dago domeka arratsaldean Ibarraundin

Domekan, hilak 15, *Piccolo eta Saxo* filma dago Ibarraundin, 17:30ean. Euskarazko film horretarako sarrerak euro bat balio du. 85 minuto iraungo du.

ELIZA

> Parrokiak urtero batzarra egingo du gaur iluntzean

Gaur, hilak 13, 19:30ean, Eskoriatzako parrokiak urtero batzarra egingo du.

MUSIKA > KONTZERTUA TORRESOROA

Orain arteko piezen bilduma egingo dute txistulariek domekan

Bergarako Bandako Metal Boskotea eta Antzuolako Abesbatza izango dituzte lagun Torresoroako kontzertuan

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Domekan, martxoaren 15ean, Antzuolako Txistulari Taldeak urtero kontzertua egingo du, 12:00etan. Aurten, bada berrikuntzarik; udaletxean ordez Torresoroan egingo dute, auditorium berrian. Txistulariak 20 izango dira eta Bergarako Bandako Metal Boskotea eta Antzuolako Abesbatzarekin jardungo dute.

EGITARAU BEREZIA
Domekako kontzerturako egitarau berezia gertatu dute. Orain arteko kontzertuetan gustukoen izan dituzten piezakin bilduma egin eta kantuak errepikatuko



Antzuolako Txistulari Taldea udaletxe aurrean.

GOIENKARIA

dituzte. Inaugurazioa izanik, lehenengo, agurra joko dute eta dantzariak izango dituzte lagun. Ostean, honako piezak eskainiko dituzte: *Kontrapasa* kantu herrikoia; Andoni Egañaren *Herri Ansorenaren* moldaketekin; Patxi Olabarriaren *Bart*; Benito Lertxundiren *Urrundik heldu naiz*; Jose Ibarraaren *San Sebastian*;

Ansorenaren *Ana Mari* eta *Haurrak lotaratzeko soinua*; Miguel Matamorosen *Zin-itz* Ander Letamendiaren moldaketekin; Xabier Amurizaren *Mendian gora* Imanol Lartzabalen moldaketekin; *Azerty* Bagad de Lann-Bihouerneña; eta Xabier Leteren *Xalbadoren heriotzean* Garikoitz Mendiabalek moldatua.

Donostiako Lilatoian hartu zuten parte 14 antzuolarrek

Joan zen domekan, Emakumeen Egunaren harira Donostia Lilatoia izan zen. Bost kilometroko lasterketan Antzuolako 14 emakumek hartu zuten parte. Eguneko lehen orduetan euria egin bazuen ere, lasterketa hasi orduko atertu eta giro ezin hobeak korrika egiteko aukera izan zuten 1.300 partaidetik gorako proban. Adin guztietako korrikalariek Donostia kaleetan elkartutako animatzaileen laguntzaz egin zuten ibilbidea, eta antzuolarrak gustura bueltatu ziren.



Korrikalariak, lasterketa hasi aurretik.

PILAR ETXANIZ

HEZKUNTZA > IKASTAROA

Euskaraz jolasten ikasteko saioak egiten dabilta umeak

Jolasorduetan jarduten dute 5 eta 10 urte bitarteko ikasleek

I. A. > ANTZUOLA

Debagoineneko Mankomunitateak euskararen transmisioa lantzeko umeendako kantu eta jolasak banatu zituen neska-mutikoen artean.

Orain, horrekin lotuta, Udalak pentsatu du tailerrak egitea horrelako kantuak eta jolasak euskaraz erakusteko. "Iku-sita batik bat neskatilek egiten dituzten eskujolasetan erabilten dituzten abesti gehienak gaztelaniaz direla, beharra iku-sigenen umeekin jolasok euskaraz lantzeko", esan digu Udaleko Euskara teknikari Lierni Legorburuk.

Hortaz, 5 eta 10 urte bitarteko umeek dihardute eskolako atseden orduetan jolas tradizionalak euskaraz ikasten. Astean hiru egunean eta adin bakotzko umeekin hiru saio egingo dituzte martxoan barrena Txatxilipurdiko begiraleekin.

JOLAS ORDUAK LUZATUZ

Txatxilipurditik esan digutenez, "joera dago ohiko jolasak gaztelaniaz egiteko, eta asmoa da berreskuratzea jolas tradizionalak, baina euskaraz; erakustea euskaraz gauza gutxirekin jolas egin daitekeela". Orain arte baliabide barik jardun dute, baina baliteke aurrerantzean goma, soka, tortolosak... erabiltzea.

Umeek, begiraleek eta irakasleek oso gustura dihardute eta ordu erdiko saioak izan arren, luzatu ere egin dituzte behin baino gehiagotan.



Eskolako umeak jolasean ikastaroan.

LIERNI LEGORBURU

oharrak

KIROLA**> Pilota txapelketa**

Kanporaketen ostean herriko pilota txapelketa final laurdenetara iritsi da. Lehen taldeetik Palomo, Untzarri, Inurriagorri eta Jongu sailkatu dira; eta bigarrenetik Zubi, Aitzol, Irimo eta Ota. Bihar, zapatura 10:00etan hasiko dira final laurdenak: Palomo-Irimo; Untzarri-Aitzol; eta Jongu-Zubi. Iñurriagorri-Ota partidua aste barruan jokatuko da.

GAZTETXEA**> Mendiko ikus-entzunezko**

Gaur, egubakoitza, 19.30ean, ikus-entzunezko emanaldia izango da gaztetxean. Julen Reketa mendizaleak Kangchenjunga 2007 mendi espedizioaren gaineko kontaketa egingo du. Bestalde, martxoren 21ean, *Bidaia intimoak* dokumentala emango dute eta hilaren 28rako sagardotegira irteera antolatu dute gaztetxeok.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

**MUEBLES
IGEA**

Sukalderako eta
bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

Zurrategi plaza 4, beheia. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teiliatuak



Ana Mari Sousa, biodantzako mugimenduak egiten.

IRATI AGIRREAZALDEGI

Ana Mari Sousa > Biodantzako irakaslea

"Taldearen oinarri barik ez dago biodantzarik"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Hasi dira biodantzako saioak egutegi, berrikuntza batekin. Izan ere, hemendik aurrera Ana Mari Sousak izango du saioen ardura.

Zer da biodantza?

Barruan genetikoki dakarun indar guztia adierazteko aukera bombardaketa da.

Nola hasi zinen biodantzan?

Eibarren nembilen ikasten eta amaitzean, jarraitzen beharrezko zen talde erregular bat; hortaz, Elgetan sortu nuen. Hezketa amaituta, nik hartu dut taldearen ardura.

Zer erakusten duzu?

Biodantzak bizitzaren dantza esan nahi du, kampoko gauzak biziarraztea. Musika, dantza eta taldea dira oinarri; talderik gabe ez dago biodantzarik. Ardu-

radunak, musika ipintzeaz gain, ariketak proposatzen ditu barne bizenpakan sortuz. Sentitzen diren gauzak dira jendearekiko harremanetan nola adierazten den norbera. Lantzen dugu kanpoan sortutako arazoak nola konpondu.

Nolakoa da ohiko saio bat?

Biodantzak askatasun osoz barruko bizi, afektibitate, sormen, sentimen indarra ateratzeko aukera ematen du babestutako gune batean. Kanpoan beharbada egingo ez genukeena, baldintza egokirik ez dagoelako, egin daiteke saioetan. Hasieran, berba egiten dugu sentitzen dugunaz, gertatzen zaigunaz... Gero, hitzik gabe gorputzera pasatzen ditugu sentipenak. Biodantzan ez da dantza egiten jakin behar, ez dago teknikarik, nork bere barruarekin konektatzean atezatzen den mugimendua baita.

frontenis txapelketa

EMAIZZAK

Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxina / Oskar Sarasua-Roberto Mora	25-15
A. Gorosabel-I. Untzabarrenetxea / Jose Monterroso-Anton Pierrugues	25-12
Asier Morales-Asier Osoro / Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas	25-17
Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia / Oskar Sarasua-Roberto Mora	25-14
Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi / Mikel Arkarazo-Josu Olasolo	25-12
Nagore Ojanguren-Idoia Serna / Nagore Morales-Janire Lazcano	25-07

PARTIDUAK

Zapatua, martxoak 14. 18:30

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi / Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia
Nagore Morales-Janire Lazcano / Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasu
Josu Urrizar-Jabi Gamarra / Jose Monterroso-Anton Pierrugues
Mikel Arkarazo-Josu Olasolo / Asier Morales-Asier Osoro

Domeka, martxoak 15. 10:30

Eñaut Arantzeta-Haritz Gallastegi / Ibon Untzabarrenetxea-Ander Gorosabel
Amaia Iribar-Alizia Gartzia / Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasu
Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren / Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa
Nagore Ojanguren-Idoia Serna / Mireia Berriozabal-Rebeca Ubara
Hodei Zenitagoia-Mikel Beretxina / Josu Arantzabal-Fernando Zenitagoia
Adrian Gorostiza-Sergio Bouzas / Oskar Sarasua-Roberto Mora

EUSKARA > UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEA

Udalak erabaki du Elgeta UEMAKo kide egitea

Euskararen Erabilera Plana gertatuko dute, udaletxeko barne funtzionamendutik hasita

I. A. > ELGETA

Azken batzarrean udalbatzak erabaki zuen Udalari Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzea, eta, estatuak onartuta, laster hasiko dira lanean teknikariak.

Lehenengo eginbeharra izango da Euskararen Erabilera Plana, eta, hain zuen, udaletxeko barne funtzionamendutik hasiko dira. Plana abiarazi aurretik langileei azalduko diete horren berri, baita herriko talde eragileari ere. Oraindik zehazteke dago noiz hasiko diren lanean, UEMAKO teknikariekin lanerako programa informatikoa berria aztertzen baitihardute.

Urteko 5.700 euroko kostua du UEMAn egoteak. %60 dirulaguntza bidez lortzen da eta Udalak ordaintzen du %40.

ABANTAILAK

Ana Gillegi Euskara zinegotziak esan digunez, "urte askoan jardun du talde eragileak Elgetako Udalari Euskara Plana behingoz egiten has dadin eskatuz. Udaletxeen gaudenetik, horri heldu diogu eta joan den irailera arte lehen lanak egin genituen udal teknikariaren bitarte. Teknikaririk ez dugu une honetan, baina batzordeak argi ikusi du projektua aurrera atera beharra dagoela".

Euskararen Erabilera Plana naz gainera, UEMAK eskaintzen dio Udalari hainbat kultura ekitaldi merkeago lortzeko aukera. Baita datu base zabala ere, euskaraz egindako dokumentuekin. Horrez gainera, Udaleko langileek euskarazko ikastaroak izan ditzakete UEMAREN bitarte.

bere ustez



Ana Gillegi

Pista onak:
'Eduard
Punset.es/blog'

Azken aldian sarri irakurri izan ditut idazle honen artikuluak eta orain bere blogeko gaiak. Oso gomendagarriak hainbat gauza ulertzeko. Ez daude hain modan gaiok baina sakonean gure oinarritzko *adn-a* dira. Berak dio, gaur egungo krisi egoera honetan, "herrialde batek egin dezakeen imbertsiorik onena heziketa sozial eta emozionala" dela. Nola ulertuko ditugu gainontzeko gauza guztiak, guk bizi eta sentitzen duguna ulertzen ez badugu?

Lau bide ematen ditu ikasten hasteko:

Lehenengo: Barrutik zer gertatzen den jakin. Beldurrak eta ziurtasun ezak gugan nola eragiten duten ulertu.

**"Nola ulertu
gainontzeko gauzak
guk bizi eta
sentitzen duguna
ulertu ezean?"**



Gaztetxekoek nahi dute herritarrek jaian parte hartzea.

I. A.

JAIA > GAZTEAK

Bazkaria eta kontzertuak gaztetxearen urteurrenean

Hirugarren aldiz sartu dira lapurrik gaztetxearen; bi aldiz egin dute lapurretan, azkena hilaren 6an

I. A. > ELGETA

Martxoaren 21ean gaztetxearen 13. urteurrena ospatuko dute. Egun horretarako hasiak dira Gazte Asanbladakoek ekinatzak gertatzen.

Goizean, lehengo jaietako ohiturari jarraituz, Intxortara igoera egingo dute. Menditik bueltan, jai giroa berotze alde-ra poteoa izango da eguerdian eta herri bazkaria gero. Bazkalaritako txartelak aste bukaearan ipiniko dituzte salgai.

Bazkalostean jai giroari eutsiko diote eta batukada izango da arratsalde partean. Gaue-rako, berri, kontzertua antolatu dute. Ostiada Oil eta Sota-

mano elgetarrek Jonny Gerri-welt & the Fucking Bastards ondarrutarrek eta Donostiako Skakeitan taldeak jardungo dute gaztetxearen.

LAPURRAK, BERRIZ
Urteurren jaiari, baina, berri txarrek hartu diote aurre. Martxoaren 6an, goizaldean lapurrik sartu ziren berriz gaztetxe-an. Denbora gutxian gaztetxera sartzen diren hirugarren aldia izan da. Otsailaren 10ean lapurreta egin zuten eta martxoaren 6an berriz. Gazte Asanbladakoek nahi dute herritarrek urteurren jaian parte har-tea elkartasuna adierazteko.

((112))
SOS DEIAK

Juan Manuel Balerdi > Euskal Fondoak elkarteko zuzendaria

"Lankidetza diharduten udalen sare bat da Euskal Fondoak"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO
Euskal Fondoak elkarteko zuzendari Juan Manuel Balerdi hitzaldia egingo du gaur udaletxean, 19:00etan; izan ere, Aramaioko Udal Euskal Fondoaren parte da.
Bizitza minatuak erakusketaaren inguruan ere egingo du berba.

Zer da Euskal Fondoak?

Lankidetza diharduten udalen arteko sare bat da; guztira 92 udaletako ordezkariek osatzen dute Euskal Fondoak eta garapen bidean dauden herriko proiektuak garatzen ditugu.

Zeintzuk dira zuen ekintza eta jarduera nagusiak?

Udal planifikazioan oinarritutako proiektuak dira. Baina horien egileak garapen bidean dauden herrialdeetako udalak dira. Hau da, Euskal Fondoak osatzen dugunak hemengo udalak gara eta proiektuak garatzen

dituztenak hango udalak. Guk diagnostikoan, planifikazioan eta garapenean eskaintzen diegu lagunza; lagunza instituzionala, ekonomikoa eta lagunza teknikoa ere bai. Hemengo udalen esparrutik lagunza politiko eta ekonomikoaz aparte, teknikariak ere jarriten ditugu proiektu horien zerbitzura: ur teknikariak, gizarte laguntzaileak, berdintasun teknikariak... Nikaragua, Guatemala, El Salvador eta Kuban dihardugu lanean; gainera, Saharareki euskal erakundeen koordinazioaz ere arduratzengarria eta Sahararek Aljerian dituzten errefuxiatuen kanpamentuetan ere baditugu proiektuak.

Adibide bat emango diguzu?

Kuban, esaterako, zappi urte daramatzagu lanean, Habana Zaharrean, hirugarren adinekoendako zerbitzuak hobetzeko programa batekin. Horren barruan,

eraikin historiko bat hustu dugu eta familia horiendako etxebizitza sozialak egin ditugu. Hustu dugun eraikin horretan, hirugarren adineko pertsonendako osoko arreta emateko zerbitzuak ezarri dira. Apartamentu tutelatuak ere egin dira: 19, hain justu. Hor sartzen diren osagaiak dira: dirulaguntzak obrak egiteko, baina baita ere arkitektoak. Gasteizko Udaleko arkitekto

batek kubatarrekin batera aztertu du nola moldatu eraikin hori hirugarren adinekoendako. Gainera, Gasteizko hirugarren adineko zerbitzuetako buruak eta ekipoak ere hartu dute parte, bertan lan egingo duten pertsonai formazioa eskaintzen. Euskal Fondoak bilatzen duena da kalitatezko osoko lankidetza, ez da dirua bakarrik, baizik eta ezagutza trukea, horrek ematen dio balio erantsia.

"Proiektuak garapen bidean dauden herrialde horietako udalek eroaten dituzte aurrera"

"Gervasio Sanchezek erakusten dituen argazkien atzetik bizitzak ikusten ditu"

Bizitza minatuak erakusketaaren inguruan ere jardungo duzu gaurko hitzaldian...

Argazki horien atzetik drama pertsonalak daude, baina Gervasio Sanchezek istorio horien atzetik bizitzak ikusten ditu. Irudiek erakusten dute pertsona horiek halako bizipen larriak tokatu izan arren aurre egin dutela. *Bizitza minatuak* itxaropenerako kantua da.



Argazkian, Juan Manuel Balerdi (ezkerrean) El Salvadorren garatutako proiektu batean; Meanguera herriko alkatearekin.

EUSKAL FONDOA

HEZKUNTZA > HITZALDI SORTA

Zuiako Koadrilak gurasoen elkarguneak antolatu ditu

A.B. > ARAMAIO
Zuiako Koadrilak seme-alaben hezkuntzarekin lotutako gaiak jorratzen dituzten hitzaldiak egingo dira; Aramaion maiatzaren 7an, 14an eta 21ean egingo dituzte. Bertan azalduko dute seme-alabekin etxean komunikazioa nola landu.

bakoitzean gai desberdinak jorratuko dituzten hitzaldiak egingo dira; Aramaion maiatzaren 7an, 14an eta 21ean egingo dituzte. Bertan azalduko dute seme-alabekin etxean komunikazioa nola landu.

Gurasoen arteko elkarguneak

Izarra: martxoak 17 eta 24

Internet eta seme-alabendako arriskuak izeneko hitzaldia eskolan, 17:00etan

Legutio: martxoak 10, 23, 26 eta 30

Heziketa afektibo sexuala hitzaldia eskolan, 17:30ean

Ondategi: martxoak 23 eta 25

Arreta falta eta hiperaktivitasuna hitzaldia kultura etxearen, 17:30ean

Ondategi: apirilak 1 eta 2

Ume zapaltzaileak: Autoritate eta diziplinaz hezi hitzaldia kultura etxearen, 17:00etan

Murgia: apirilak 20 eta 22

Drogen prebentzioa hitzaldia udaletxean, 17:00etan

Aramaio: maiatzak 7, 14 eta 21

Komunikazioa etxearen hitzaldia, 18:00etan, eskolan

ZINEMA

Barikuetako filmen egitaraua

Barikuetako filmen egitarauan aldaketa batzuk egin dituzte. Otsailaren 27an argitaratutako zerrenda, beraz, aldatu egin da. Hona hemen martxoan emango dituzten filmak.

Emanaldiak

Martxoak 13, barikua

El niño del pijama a rayas
 Zuzendaria: Mark Herman
 13 urtetik gorakoendako

Martxoak 20, barikua

Che el argentino
 Zuzendaria: Steven Soderbergh
 13 urtetik gorakoendako

Martxoak 27, barikua

Korrika dela-eta ez da emanaldirik egongo

Emanaldi guztiek 22:15ean izango dira, kultura etxeen.

PRESOAK

Sinadurak batuko dituzte presoen alde

Udalean mozio bat aurkeztuko dute batutako sinadura guztiekin

A.B. > ARAMAIO

Aramaioko presoen lagunek salatu dute espetxe politika etengabe gogortuz doala eta presoen eskubideak urratzen direla. Adierazi dute urraketa horiek aramaioko bi herri-tarrengan eragin zuzena dutea: "Jon Agirrek zigor osoa beteta dauka. Maiatzean 28 urte egingo ditu espetxeen. 67 urte dauzka eta gaixotasun sendaezinak ditu. Gaixo dauden presoak espetxeen hilzera zigortuak daude. Kantok, bestetik, 21 urte daramatzua espetxeen. Zigor osoa beteta dauka, baina kartzelan jarraitzen du. Bizi osorako zigorra ezarri zioten eta bere kondena 30 urtekoa izatera pasa da", azaldu dute.

Egoera hori salatzeko sinadura bilketa egingo dute la iragarri dute aste honetan; "Etxez etxe eta auzoz auzo" batuko dituzte sinadura horiek. Euren asmoa da horiek guztiekin Aramaioko Udalean mozio bat aurkeztea, eta baita Gasteizko Legibiltzarrean ere.



Soran Etxea hotelean ikusgai dagoen argazki zaharretako bat.

LEINTZ GATZAGAKO UDALA

EMAKUMEAK > ERAKUSKETA

Herriko emakumeen argazkiak ikusgai daude

Emakumeen Nazioarteko Eguna gogoan antolatu dute Udalak eta 'sorginak' argazki erakusketa, eta Soran hotelean eta Labidean daude ikusgai

gainerakoak, herritarrenak eta Sorginak Emakume Elkarteak kideenak: Emakumeen Eguneko bazkaria, 20 urteotan egindako hainbat bidaia...

EMAKUMEEN EGUNEKO BAZKARIA

Sorginak, hain zuzen, zapatuau ospatu zuten Emakumeen Nazioarteko Eguna eta elkartearren 22. urteurrena. Bazkaltzera joan ziren Gure Ametsa jatetxera, eta edadekoak eta gazteak elkartu ziren mahaiaren bueltan, 28 guztira. Umore ona lagun, giro bikaina sortu zuten bazkalorduan. Isuskiak ere zozketatu zituzten, urtero legez, eta aurten hiru hauendako izan dira: Tere Urrutia, Aiora Elkorobarrutia eta Ainhoa, herrira bizi izatera etorri berri dena. Dantzan eginda bukatu zuten ospakizuna.

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA
Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Sorginak Emakume Elkarteak antolatutako argazki erakusketa dagoeneko ikusgai dago. Herriko emakumeak dituzte protagonista argazkiek eta harrera ona egin diote gatzagarrek.

ZAHARRAK, HOTELEAN
Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko antolatu dute erakusketa, beste ekitaldi batzuekin batera, eta joan den aste bukaean kultura etxearen jarri zituzten argazkiok. Gizarte Zerbitzueta ordezkarien pentsatu dute,

baina, erakusketa ez dagoela eskura Garro jauregian eta inor gutxi joango dela hara. Eta horregatik, lekuz aldatzea erabaki dute: argazki zaharrenak Soran Etxea hotelean jarri dituzte eta gainerakoak, Labidea dendant. Astelehena arte egongo direla iragarri du Ainara Zubillaga zinegotziak.

Udalak herritarren laguntza eskatu zuen herriko emakumeak agertzen diren argazkiak jasotzeko, eta hainbat herritarrek utzi dizkiote. Argazki zaharrenak Udalarenak dira –eskolakoak andereneoarekin, otoitzean...– eta

ERRETIRATUAK > BATZARRA

Urteko batzarra egingo du erretiratuen elkarreak bihar

Zuzendaritzan batzordeko bost kideek beste urtebetetan jarraitzea erabaki dute

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Batzar orokorra egingo du herriko Toki Eder erretiratuen elkarreak bihar (17:00). Elkartean bertan izango da eta bazkide guztiak dute batzarrera agertzeko deia.

KUOTA, BERE HORRETAN

Zuzendaritzan batzordeko kideek orain arte egindakoak eta diru kontuen berri emango diete elkartutakoei lehenengo, eta aurten egingo direnak iragarrako ditzkie gero. Ez dute aldaketarik egiteko asmorik; hau da, azken urteotan legez, bi bidaia egingo dituzte, udaberrian bata eta udazken inguruan bestea. Horiez gain, mus eta briska txapelketak antolatzeko asmoa ere badute, baina askoz gehiagorik ez. "1.000 euroren bueltan ibiltzen da gure urteko aurrekontua, eta gehiago egiteko ez du ematen", jakinarazi digu Juan Mari Makatzaga zuzendaritzako kideak. Urteko kuota igotzeko asmorik ez dute la adierazi digu, gainera: "Gurago dugu gastuak murriztu kuita igo baino". Hortaz, sei euro kobratuko dute aurten ere.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

Zuzendaritzako kideen arteen, ostera, ez da aldaketarik izango. Presidente izaten jarraituko du Pedro Mari Elkorobarrutia eta haren alboan jarraituko dute beste lau kidek: Juan Mari Makatzaga, Pantxi Ibartzabal, Tere Aranburuzabala eta Jabier Aldabek. Hainbat kidek urte asko daramatzate zuzendaritzan –Makatzagak 10etik gora eta Ibartzabalek bost inguru– eta nekatuta daude. Hala ere, beste urtebetetan jarraitzeko konpromisoa hartu dute guztiak, hurrengo batzarrera arte.

DEBAGOIENEKO ORDEZKARIK

Joan den eguztenean, ostera, Debagoieneko erretiratuen elkartetako ordezkariak batu ziren Gatzagan, bi hilabetean behin egiten duten batzarrera. Elgetako ordezkariak izan ezik –Eibarkoekin elkartzen dira– gainerako herrietakoak elkartzen dira, hamar elkartakoak. Norberaren egoeraren berri eman eta elkarrekin egin ditzaketen ekintzak antolatzeko egiten dituzte batzar horiek.

> ZERBITZUAK

Gatz museoa, turismo bulegoa eta Labidea denda kudeatzeko eskaera bakarra jaso du Udalak

Astelehenean, martxoak 9, bukatu zen Eugenio Otsoa gatz museoa, turismo bulegoa eta Labidea denda kudeatzeko Udalak egindako lehiaketa deialdira aurkezteko epea. Eskaera bakarra jaso dute udaletxeen eta datozen egunetan zabalduko du epaimahaiak gutun-azala, eskatutako agiri guztiak dituela ziurtatzeko eta ezaerritako baldintzak betetzen dituela jakiteko. Orduan erabakiko du zerbitzua aurkeztutakoari eman edo ez. Emanez gero, bi urteko izango litzateke, 2011 arte, eta beste bi urte luzatzeko aukera eskaeniko lioke gero Udalak.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE

Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



Oñatiko kaleetan zortzi kilometroko ibilbidea egin eta gero bizikletak hartu eta Elorregirako bidea (San Prudentzio) hartuko dute; Deskarga eta Udana igo eta Oñatin berriro korrika egin beharko dute. JOSETXO ARANTZABAL

DUATLOIA > OÑATIKO 18. DUATLOIA

Laurehun atleta izango dira biharko proban

Parte-hartzeari dagokionez Oñatiko duatloia errekork guziak hautsiko ditu bihar (16:00)

Frantziatik 20 atleta baino gehiago etorriko dira, eta tartean izango da iazko irabazole Galinier

XABIER URTZELAI > OÑATI
Bihar, zapatua, egingo dute Oñatiko 18. duatloia (16:00). Eta, biharkoa inoizko proba jendetxuena izango da, atletek ondo erantzun dutelako antolatzaleek egindako deialdiaren aurrean. Iaz 340 atleta izan ziren Oñatiko irteera puntuari, eta, proba arrakastatsua izan zela ikusita, antolatzaleek aurten 400 lagunendako lekua egin dute. Bada, aurreikuspenak bete egin dira, eta 400 lagun inguru izango dira bihar duatloian.

KORRIKA ETA BIZIKLETAN
Probari dagokionez, korrika egiteko zapatilekin hasiko dute atletek proba, eta Oñatiko erdialdean aurreikusitako zortzi kilome-

troko ibilbideari egin beharko diote aurre. Ondoren bizikletak hartuko dituzte, 40 kilometroko ibilbidea egiteko: Oñati, Elorregi (San Prudentzio), Antzuola, Deskarga, Legazpi, Udana, Oñati. Eta, Oñatira iritsita, azken zatia gainditu beharko dute: bestea lau kilometro korrika. Iaz Laurent Galinier eta Ainhoa Murua izan ziren onenak, eta, frantziarra aurten ere etorriko bada ere, Muruak beste helburu batzuk ditu. Galinier ez da, baina, bakarrik etorriko, Frantziako 20 laguneko taldea etorriko deta. Proban izango dira, baita ere, Mikel Elgezabal eta Patxi Vila ziklista ohia eta Hector Llanos nazioarteko atleta. Eta baita ibarreko atleta mordoa ere.

FUTBOLA > PREFERENTEA

Lider jarraitzeko, Zumaiara puntu bila Aretxabaleta

Bihar 15:30ean jokatuko du UDAK Zumaiakoren kontra; Aloñak eta Mondrak ere etxetik kanpora jokatuko dute bihar, biek 17:30ean

X.U. > BERGARA
Hernanirekin batera lider dagoen Aretxabaletak (46) jaitsiera postuetan dagoen Zumaiakoren (19) zelaian jokatuko du bihar arratsaldean (15:30). Zumaiakoekoek bost partidu baino ez dituz-

te irabazi aurten, horietako lau etxeen. Hala, kanpoan jokatzen dutenean arrisku handirik ez badute ere, kontuz ibili behar da eurekin etxeen, Real Unionek jipoi ederra jaso zuen-eta Aita Mari futbol zelaian (4-0).

Aloña Mendik (41) azken aste hauetan beherakadatxoa izan du -liga hasi zutenetik lehenengo aldiz galdu dituzte bi partidu jarraian-, eta makalaldi horrekin amaitzeko hiru puntuen bila joango dira bihar Martutenera (17:30), jaitsiera postuak gain-gainean dituen EHU Vasconiarren (20) kontra jokatzena.

GARAIPENA, AZKENEAN
Mondrak (26) horrenbeste itxarotako garaipena lortu zuen joan den astean; hain zuzen ere, Vasconiarren kontra. Hamaiaka jardunaldi egin dituzte partidurik irabazi barik, eta, sailkapenari begira baino gehiago, zama hori gainetik kentzeko beharrezkoa zuten bolada negargarria etetea.

Garaipen horrek antsietatea alde batera utzi eta bihar (17:30) Real Unionen zelaian lasaiago jokatzea ekarri beharko luke.

Parte hartuko duten debagoiendarrak

OÑATI TRIATLOI TALDEA

Miguel Angel Igartua Urtzelai	Ander Garitazo Zuazlazgorraga
Julen Kortabarria Zubia	Mikel Mugika Bikuña
Iker Sologaistoa Beitia	Aitor Sotil Maiztegi
Ivan Perez Hernandez	Roberto Vazquez Moruno
Unai Pedregal Martin	Mikel Oliveri Vesga
Gaizka Aranburu Eraña	Ander Aguirre Etxarte
Iñigo Regueiro Alonso	Mikel Vazquez Moruno
Gorka Anduaga Cantero	Iñigo Olañeta Elexpuru
Mikel Errarte Mugika	Jose Xabier Ugarte Cano
Joseba Santor Martinez	Javier Arconada Martinez
Erik Fuente Lopez	Jon Aperribai Uribetxebarria
	Aritz Kortabarria Rajado
	Asier Oiartzabal Garmendia
	Mikel Ayani Egia

ITURRIA: WWW.TXANTIXU.NET/DUATLOIA

Oharra: Zerrenda hau behin-behinekoa da, eta gerta liteke lasterketan ibarreko atleta gehiagok esku hartzea. Gainera, atleta batzuek independente moduan egingo dute lasterka.

Astelehenean, probaren gaineko informazio guztia Goienako medioetan jasoko dugu.

XAKEA > LEHENENGKO MAILA

Aretxabaletako Arlutz Xake Taldeak kategoriaz igotzea lortu du asteburuan

Asteburuan jokatuko dute Sestaon ligako azken jardunaldia, baina dagoeneko Arlutzek lortu du mailaz igotzea

X.U. > BERGARA
Txapelketa hasieran talde indartsuena baten etiketa zuen Aretxabaletako Arlutz taldeak, eta, pronostiko guztiak beteaz,

Arlutzekoak Ohorezko Mailara itzuliko dira datorren denboraldian. Abadiñoren kontrako berdinaketarekin lortu zituzten kategoriaz igotzeko puntuak -aipatzeko Mikel Alkaide gazteak egindako txapelketa-, eta oraingo asteburuan lasai jokatzen ahal izango dute Sestaon.

Bestalde, Arrasateko San Andres taldeko ordezkarri guztiak irabazi egin zuten joan den asteburuan. Preferentekoek bigarren jarraitzen dute eta asteburuan Idiazabal izango dute kontrario.

ESKALADA > TALDE BERRIA

Debagoineneko Eskalada Taldea sortu dute

Santamas jaietan Euskadiko Boulder Txapelketa antolatzea da talde berriaren erronketako bat

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasateko eskalatzaile talde batek Debagoineneko Eskalada Taldea sortu berri du, eta taldeko kide Egoitz Unamuno *Whiskas*-ek hasieratik utzi du argi klubeko atea ibarreko eskalatzaile guztiendako daudela zabalik: "Arrasaten sortu dugu taldea, baina Aretxabaletako eta Eskoriatzako eskalatzaileak ere animatu dira klubean sartzera. Azken batean, 12 euro baino ez dira, eta gainera AUKEAko bazkide egiteko deskontu polita lortu dugu".


Eskalada taldea sortu izanaren arrazoiak eman ditu *Whiskas*-ek: "Elkarrekin eskalatzera joateko sortu dugu taldea, elkarrekin bidaia egiteko, jendea federatzeko erraztasunak emateko, ikastaroak antolatzeko...". Horrekin batera, Arrasateko boulderra kudeatzeko proposamenen ere egin diote AUKEAri: "Taldeko kideek boulderra kudeatzea positiboa izan daitekeela uste dugu, ordu asko egiten ditugulako han eta gu garelako boulderra egoera onean izateko lehenengo interesatuak".

EUSKADIKO TXAPELKETA

Orain arte talde moduan ibili ez badira ere, Arrasateko eskalatzaile koadrila horrek urteak dramatza Arrasaten eskalada sustatzen. Besteak beste, eurak arduratu dira urte hauetan guztietan Santamasetako Boulder Txapelketa antolatzen, eta aurten beste aurrerapauso bat egin gura dute: "Lehenengo Uarkapeko boulderrean hasi ginen txapelketa antolatzen, eta gero federazio-ko panelak ekarri genituen pilotalekura. Iazko Santamasetan duelu ikusgarria izan zen Euskal Herriko eta Arrasateko eskalatzaileen artean, eta aurten Euskadiko Txapelketa antolatu gura dugu Santamasetarako".

Horrekin batera, Aste Santu ostean eskaladako ikastaroekin hasiko dira buru-belorri: "Berez gaztetxoei zuzendutako ikastaroak izango dira, baina azkenaldian hainbat pertsona nagusi hasi dira boulderrean eskalatzen, eta ikastaroak ere eurei zuzendutakoak izango dira".

Taldean izena emateko martxeten eta eguenetan Uarkapen izango dira, 18:30etik 20:00etara.



Whiskas. GOIENKARIA

Makalura (8.463) mendebaldeko aldetik eta estilo alpinoan

Makalu 09 proiektuak Basque Team Desafioaren babesia izango du martxo amaieran hasiko duten egitasmoa burutzeko. Hala, Alberto Iñurrategiren, Juan Vallejoren eta Mikel Zabalzaren asmoa da Makalu mendebaldeko aldetik igotzea, eta estilo alpinoan (soka finko barik, altuerako kanpamendu egonkor barik eta oxigeno artifizial barik). Hortxe dago erronka, inork ez du-eta Makalu mendebaldetik horrela igo.



Koreografien entseguen bideoak Kantariko blogean ikusgai!

<http://goiena.net/blogak/kantari>

Entseguak ikusteko aukeratu blogeko ENTSEGUAK atalean zure herria.

asteburuko hitzordua

FUTBOLA

Bigarren maila

Xerez-Reala
Zapatua. 18:30. Chapin.
Eibar-Salamanca
Domeka. 17:00. Ipurua.

Gazteen euskal liga

El Pilar-Bergara
Zapatua. 16:00. Betoño.
SD Leioa-Aretxabaleta
Zapatua. 16:30. Sarriena.

Preferente maila

EHU Vasconia-Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Martutene.
Real Union-Mondra
Zapatua. 17:30. Gal.
Zumaia-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Aita Mari.

Lehen erregionala

BTLS-Antzuola
Zapatua. 16:00. Ipintza.
Aretxabaleta-Lagun Onak
Domeka. 16:30. Ibarra.
Mondra-Anaitasuna
Zapatua. 16:00. Mojategi.
Ilintxa-Bergara
Zapatua. 16:00. Bikuña.

Bigarren erregion. Igoera

Alleru-Bergara
Zapatua. 15:30. Lezo.

Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaits.

Aloña Mendi-Alerru
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Gazteak, igoera fasea

Hernani-Mondra
Domeka. 16:00. Rezola.

Gazteak, kopa

Ar.Arizmendi-Amaikak Bat
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Bergara B-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Kadeteen ohorezko maila, igoera fasea

Reala-Bergara
Domeka. 11:00. Zubietza.
Billabona-Aretx.Arizmendi
Zapatua. 11:30. Billabona.

Emakumezko liga, igoera fasea

Urola-Arizmendi
Zapatua. 16:00. Argia.

ESKUBALOIA

Euskadi txapelketa

Baita zu ere.

Zu ere GOIENKARIA irakurtzen ari zara.

Zuk eta beste 39.000 lagunek baino gehiagok irakurtzen dute astero, CIEsek emandako datu berrien arabera. Eskerrik asko, irakurle guztioi.

- > GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.
- > Debagoiendarren %63k astero irakurtzen dute GOIENKARIA.

Goienkaria

GOIENKARIA: 39.000 irakurle

El Diario Vasco: 23.000 irakurle

Gara: 8.000 irakurle

Marca: 3.000 irakurle

Berria: 2.000 irakurle

El Correo: 2.000 irakurle

El País: 1.000 irakurle



> ERAKUSKETA
Jose Luis Pazosek
eskultura
erakusketa jarri du
Bergaran > **38**



> LEHIAKETA
Ganbara Txikikoak
'Oh happy day'-ren
azken txanpan
sartu dira > **39**

> YAIZA EXPOSITO
Eskoriatzarrak
bizitza osoa doa
saskibaloian
jokatzen.
Diagnostiko
Klinikoko
ikasketak egin
ditu eta, orain,
oposizioak
prestatzen
dihardu > **42**



Bueltan da Bergaran mundua hunkitu zuen ikuskizuna

Bergarako herriaren 'Miserableak' musikalak
ikusi ahalko da bihar,
15 urteren ondoren

Salbuespenen bat izan
ezik, antzezlana eta
protagonistak 1994ko
berberak izango dira

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA
Itzuli da mundu osoko musicalik
arrakastatsuenaren bertsio ber-
gararra. 15 urte geroago, *Misera-bleak*
ikuskizunak Bergarako Udal Pilotaleku lepo beteko du
bihar –sarrerak agortzear daude.

Bergarako Musika Eskola-
ren 25. urteurrena ospatzeko eki-
taldien barruan antolatu dute
Miserableak musicala. Iragana
gogoratuz oraina aldarrikatze-
ko ospakizunik onena da, zalan-
tza barik. Izan ere, 1994ko estrei-
naldian parte hartu zuten gehie-
nak taula gainean izango dira
biharko berresteinaldian.

MUSIKAL ARRAKASTATSUENA
Miserableak ikuskizunak ikusmi-
na piztu du Bergaran, *Les Mis-
erables* musicalak mundu osoan
marka guztia hautsi dituen
moduan. Victor Hugo idazle han-
diaren *Les Miserables* (1862) ele-
berritik datorren ikuskizuna
1985ean estreinatu zen Londres-
sen, eta oraindik ere karteldegian
dago. 15 hizkuntza baino gehia-
gotara itzulia, hamaika egoki-
tzapen izan ditu.

XIX. mende hasierako mis-
eria eta tristura giroan kokatzen
da istorioa, Frantziako Iraultza
osteko Napoleonen garai istilutsuetan. Istorioan, behin eta
berriz jarraitua den Jean Valje-
anen bizitza kontatzen da.

HERRITARREN PARTE HARTZEA
Esfortza eta gustu handiz egin-
dako lanaren emaitza da Berga-
rako Musika Eskolaren *Misera-bleak*
egokitzapena. Hainbat
herritarrek hartzen dute parte
obran. Taula gainera 45 nagusi-
eta Musika Eskolako Haur Abes-



Miserableak obrako kideen talde argazkia 1994an, Donostiako Victoria Eugenian.

ION MARKO



Frantziako Iraultza osteko Napoleonen garai istilutsuetan kokatzen da istorioa.

ION MARKO

batzako 42 haur igoko dira. 11 per-
sonaz osatutako talde tekniko
baten eta guraso eta herritarren
laguntza eskuzabala ere jasoko
du ekoizpen musicalak.

Protagonista nagusien pape-
rek aldaketa bakarra izango dute:
lehen Gerardo Mondragonek
betetzen zuen Javert inspektore-
aren papera Karlos Etxanizek
beteko du. Pertsonaia aldaketak
istorioan eragina izango du,
1994ko antzezlanean murritzten
zen eszena bat osorik interpreta-

ESANAK
**"Antzezlana oso ondo
entseatuta dago, baina
pilotaleku soinuak
eta argiztapenak
kezkatzen gaitu"**

Marije Ugalde > Bergarako Musika
Eskolako zuzendaria

tuko baita oraingoan. Hala, Javer-
tek bere buruaz beste nola egiten
duen ikusi ahalko da. Gainera,
Marije Ugalde Bergarako Musika
Eskolako zuzendaria dioenez, "eszena ez murrizteak dra-
matismo handiagoa emango dio
ikuskizunari".

Gainera, biharko emanaldie-
tarako agertokia pilotalekuaren
erdian jarriko dute, ikusle guz-
tiekin obra osoa ondo ikus dezaten.
Hala, pilotalekuak onartuko
dituen ikusle kopurua murritztu



Ezaugarriak

Noiz: Martxoaren 14an,
19:00etan eta 22:30ean.

Non: Udal Pilotaleku.

Iraupena: 90 minuto inguru.
Sarreren prezioa: 15 euro
beheko eserlekuetan eta 12
euro goiko harmailetan.

Zuzendari musicala: Alfredo
Gonzalez Chirlaque

Zuzendari artistikoa:

Mirian Monux

Parte hartzetan duten taldeak:
Bergarako Orkestra Sinfonikoa
eta Bergarako Musika Eskola

PERTSONAIAK:

LEHEN MAILAKOAK

> Jean Valjean: Jabier Zabaleta
> Marius: David Azurtza
> Javert: Karlos Etxaniz
> Cossette: Miren Gutierrez eta
Mirian Monux
> Cossette (Handia): Argiñe
Agirrezabal

BIGARREN MAILAKO BATZUK

> Eponine: Mireia Osinaga
> Thenardier: Valen Moñux
> Fantine: Marije Ugalde
> Gavroche: Biken Larrañaga

egingo da, 1.000tik 800era. Horre-
gatik egingo dituzte bi emanaldi:
19:00etan eta 22:30ean.

GAUR ARGITUKO DIRA KEZKAK

Helduak 2008ko urrian hasi ziren
entseguekin. Ordutik domekerlo
elkartu dira Mariaren Lagundia-
ren eraikineko behe solairuan.
Ugaldek dioenez, "ez da entse-
atzeko lokal egokiena", baina
"ederto" ibili dira. Haurrak urta-
rilean hasi ziren entseatzen.

Hala ere, kezka bat dauka
Ugaldek: "Antzezlana oso ondo
entseatuta dago, baina egubakoit-
zera arte [gaur arte] ez dugu
jakingo nolakoak izango diren
pilotaleku baldintzak. Soinuak
eta argiztapenak kezkatzen gaitu".

ERAKUSKETA > ESKULTURA

Jose Luis Gonzalez Pazosen eskulturak ikusgai Bergarako Aroztegi Aretoan

Gaur inauguratuko da erakusketa eta martxoaren 29a arte egongo da ikusgai


Zeramika oinarri duten tamaina ezberdineko 15 eskultura inguru ikusi ahal izango dira

NEREA MENOR > BERGARA
Gaur inauguratuko dute Jose Luis Gonzalez Pazos eskultura gilearen erakusketa.

Zeramikaz egindako 14-15 eskultura egongo dira ikusgai Aroztegin. Orokorean metro bateko eskulturak dira, baina badaude txikiagoak ere. Pazosek adierazi digu sentimenduetan eta pentsamenduetan oinarritzen dela bere lanak egiteko, "buruan dudana zeramikan islatzen saiatzen naiz", dio artistak.

Erakusketa ikusteko gongitatea lutzatzen du Pazosek, "Erakusketa gauza atseginak dira. Lagunekin gauzak komentatzeko eta argudiatzeko aukera ematen dute. Denbora gutxitan ikusten den zerbait da".

Pazos, Leonen jaiotako artista da. 10 urterekin Santurtzira joan zen eta bertan bizi da ordurik. 1993.urtean zeramika oinarri-



Jose Luis Gonzalez Pazosen erakusketako piezetako batzuk.

J.L.G.

tzat hartuta, Santurtziko arte plastikoen tailerrean hasi zen lanean. Material honen inguruan hainbat teknika jorratu ditu, eta Algorrako Talde Zeramika taillerrean ere egon da. Urteak pasa

ahala material ezberdinak jorratu ditu, hauen artean, egorra, esmalteak, lotza, portzelana, beruna eta lokatza. Asturiaseko Udako nazioarteko ikastaroetan ere hartu du parte birritan,

2005ean eta 2006an. Eskola hauetan, Hisae Ynase bezalako irakasleak izan zituen.

Martxoaren 29a arte egongo da ikusgai erakusketa. Martitzetik egubakoitzera bitartean

arratsaldez -18:00etatik 20:30ak arte-; zapatuan egun osoz -12:00etatik 14:00ak arte eta 18:00etatik 20:30ak arte- eta domeka goizean -12:00etatik 14:00ak arte-.

ERAKUSKETA ANITZ

Bere aurreneko erakusketa kolektiboa 1993.urtean egin zuen Santurtzin. Ordutik, beste zortzi tan hartu du parte: Algortan edo Zallan esaterako. Gainera, Basauriko kultura etxearen behin baino gehiagotan erakutsi dituzte bere lanak. Portugalen ere izan da, Chavesko arte gaztearen topaketan.

2005.urtean bakarkako erakusketekin hasten da. Lehenengoa Basaurin izan zen. Ondoren, Burgosen erakutsi zituen bere lanak. Azkeneko urteetan, Elorrio, Durango eta Bilboko auzo askotan jarri ditu bere eskulturak ikusgai. 2007.urtean Debagoienean izan genuen Oñatiako kultura etxearen eta gustura geratu zela adierazi digu, "atzeria begirako erakusketa egin nuen Oñatin. Kultura etxeko aretoa ondo zegoen, gustura gelditu nintzen".

OTEIZA APIRILEAN

Jose Luis Gonzalez Pazosen erakusketaren ostean, apirilaren 4an, Oteizaren gaineko erakusketa zabalduko da. Bere lan batzuk egongo dira, baina panelez osatuko da gehien bat.

BERTSOLARITZA > ARABAKO TXAPELKETA

Domekan hasiko dira Arabako bertso txapelketako finalerdiak

Hurrengo astean Xabi Igoa eta Andere Arriolabengoa aramaioarrek hartuko dute parte bigarren finalerdieta

N.M. > BERGARA
Domekan, 17:00etan, Zigoitiko kultura etxearen, Arabako bertso txapelketako aurreneko finalerdiak jokatuko dira. Manex Agirrek, Gonzalez de Duranak, Juaristik, Lopezek, Mendigurenek eta Viñasprek hartuko dute parte.

Hurrengo astean, martxoaren 22an, Xabi Igoa eta Andere Arriolabengoa aramaioarren txanda iritsiko da. Oioneko kan-

poraketan fin ibili ondoren, herrian bertan jokatuko dute finalerdia. Beraiekin batera, Otamendik, Enbeitak, Sanchezek eta Pereaik kantatuko dute.

OION ETA ZALDUONDO

Aramaioarrak otsaileko azken asteburuan, Oionen, jokatutako kanporaketan sailkatu ziren finalerdieta. Andere Arriolabengoa ariketa guztietan erregular jardun ostean, bigarren postua eskuratu zuen. Xabi Igoak ale politak utzi zituen saio osoan zehar.

Hirugarren aramaioarra, Iker Agirre, saio txukuna egin zuen arren, finalerdiatik kanpo gelditu zen Zalduondon jokatutako hirugarren eta azken kanporaketan. Bertan, Rikardo Gonzalez de Duranak lortu zuen puntuaziorik handiena.



GOIENKARIA

Ikasleen egunak agurtuko du aurtengo Literatura Astea Huhezin

Urtero bezala, Ikasleen egunarekin amaituko da gaur Hueziko Literatura Astea. Arratsaldean, hiru ikaslek, *Iluntasunetik argitara* izeneko errexitaria egingo dute. Joan zen astelehenean, Patziku Perurenaren bisita izan zuten unibertsitatean. Akelarre hitzaren jatorriaz eta sinbologiaz aritu zen. Astelehenetik egunera bitartean, Rikardo Arregi, Karlos Linazisoro eta Xabier Montoiaren hitzak ere entzun dira Huhezin.

LEHIAKETA > 'OH HAPPY DAY' SAIOA ETB-N

"Orain arte egin dugun lanarekin gustura gaudé"


Ganbara Gaztekoak 'Oh happy day' saioko azken txanpan sartu dira; bihar, 'La fábrica de chocolates' pelikulako 'Wonkabite' abestuko dute

MIREIA BIKUÑA > OÑATI
ETBko 'Oh happy day' saioan (bihar, 22:00etan) bost abesbatza geratzen dira: Oñatiko Ganbara Gazte, Donostia, Errenteria, Bermeo eta Trapagaran. Azken txanpan sartu dira. Finala apirilaren 25ean egingo dute zuzenean, eta ordura arte saioaren dinamika aldatu egingo egia dutela esan digu Ganbara Gazteko zuzendari Aitor Biainek: "Biharko saioan bi kantu abestuko ditugu, bat lehiaketarako eta bestea Grease

musikaleko potpourria. Epaimahaiko kideek bi talde izendatuko dituzte, eta ez hiru orain arte moduan". Hurrengo zapatuan lau talde geratuko dira eta hiru saio berezi egingo dituzte: "Finalerdi berezia egingo dute. Hiru saio egingo dituzte, eta abesbatza bakoitzak kantu bat baino gehiago abestuko diru. Hiru saio horietan ez dute izendapen egingo, baina hirugarrenean abesbatza bat kanporatuko dute. Hiru talde onenak finalera pasatuko dira", esan digu Biainek.

Finalean bi sari banatuko dituzte: alde batetik, epaimahaik aukeratutako irabazleak 6.000 euro jasoko diru; eta beste alde batetik, Ikuleen saria banatuko dute. "Lehiaketan parte haritu dugun talde guztiok dugu Ikuleen saria eskuratzeko aukera".

BIHAR, 'WONKABITE'
Finalerdieta egoteko azken izendapenei egingo diente aurre bihar-



Ganbara Gazte Abesbatzako kideak Klaudio Landa saioko aurkezlearekin.

GANBARA GAZTE

ko saioan. Ganbara Gaztek *La fábrica de chocolate* pelikulako 'Wonkabite' abestuko du. "Lehiaketako aurkezta genuen kantuak dira eta beste batzuk taldeek aukeratutakoak.

batza bakoitzak zehaztuta ditu abestu beharreko kantuen ize-nak: batzuk epaimahaik jarritakoak dira eta beste batzuk taldeek aukeratutakoak.

Epaimahaiko kritika zorrotzen aurrean

Iñigo Arbiza, Miren Fernandez eta Unai Zabaleta dira 'Oh happy day' saioko epaimahaiko kideak, eta eurak dira abesbatzen lana baloratzen dutenak: "Batzuetan hitz gogorrak esan dizkigute; adibidez, aurreko asteko saioan. Baina errespetu handiz entzun eta onena ateratzen ahalegintzen gara. Dena den, epaimahairen aurrean kritikak entzuten gaudenean ez da erraza aurpegia ona ipintzea". Oñatiko abesbatza behin izendatu dute, eta taldeak ondo erantzun zuela esan digu zuzendariak: "Izendatuta urduriago abestu genuen, baina maila ona eman genuen".

Finalean egoteko aukerei buruz galdezu diogu Aitor Biainek: "Egia esan, nahiko zaila da. Gu oso konforme gaudé orain arte egindako lanarekin. Bost abesbatza onenen artean gaudé eta esperientzia hartzeko aukera polita izan dugu". Dena den, esan digu nekatuta daudela dagoeneko. "Domeketan egiten dugu entsegu nagusia eta eguztenetan azken ukituak egiten dizkiogu kantuari. Egubakoitzetan 16:00etan irteten gara Miramone-ra eta 02:00etan heltzen gara etxe-rra", dio Biainek.

Finalean egon daitekeen hau-tagai bat aurreratu digu: "Donostia finalean egongo da".

MUSIKA > KONTZERTUA GAZTELEKUAN

Aitor Uriarteren UNE taldeak diskoa aurkeztuko du gaur, Oñatin, Inlogic madrildarren laguntzarekin

UNE taldeak 'Hegalik gabe hegan' discoaren aurkezpena egingo du gazteleku eta Inlogic taldeak 'Outside the show' diskoko kantuak eskainiko ditu

M.B. > OÑATI
Kontzertu indartsua antolatuta dute Oñatiko gazteleku ardu-radunek gaurko: UNE eta Inlogic taldeek emanaldia egingo dute, 22:30ean. Biek ala biek grabatutako azken diskoen aurkezpena egingo dute. Sarrerak gazteleku eros daitezke.

BI DISKOETAKO KANTUAK
Latzenen agurreko bira bukatuta, Baga-Biga discoetxearekin grabatutako discoaren aurkezpena egingo dute Aitor Uriarte oñatiarrak eta haren taldekideek. *Hegalik gabe hegan* disco



UNE taldeko kideak.

"Lehenengoan baino kontraste gehiago sartu ditugu bigarrenean. Kantu bortitzak eta lasaiak, azkarrak eta motelak, tristeak eta alaiak egin ditugu. Diskoa dinamikoagoa da, eta agian, entzuteko errazagoa".

Bestalde, Uriartek esan digu discoaren promoziorako bideo-klipra grabatu dutela; hain zuzen ere, *Loti ederra* kantuaren oinarrituta.

INLOGIC

UNERen aurretek Inlogic madrildarrek joko dute. Rock-and-roll heterogeneoa egiten dute, gitarra doinu azkar eta sendoetan oinarrituta. Inlogic taldearen gaineko iritzia eman digu Aitor Uriartek: "Musika ona egiten dute. Ez dute izen handirik, baina gora doan taldea da. Ingelesetan abesten dute, eta abeslariak ahots indartsua du".

Madrildarrek *Outside the show* bigarren discoa aurkeztuko dute. Taldearen gaineko informazioa eta egingo dituzten kontzertua datak www.inlogic.com webgunean daude ikusgai.

berriko kantuak eta *Une Nare Eza* lehen diskoko kantuak tartekatuko dituzte gaurko emanaldian. "Lehen diskotik gehien gustatzen zaizkigun kantuak aukeratu ditugu, eta bigarren diskoko batera joko ditugu. Dena dela, oraindik ez dugu zehaztu zenbat kantu izango diren", esan digu taldeko abes-

lari Aitor Uriartek. Bi discoetako kantuak joko dituzte kontzertua aberatsagoa izateko.

Hegalik gabe hegan discoari buruz galdezu diogu Uriarteri:

1/ ETXEBIZITZAK**101. SALDU**

Antzuola. 90 metroko etxeoa, 20 metroko terrazarekin. Eguzkitua. Hiru logela, egongelarria, bi komun, sukaldea eta trasteleku. Garaje txixa. Jantzia. Bi urteko erabilera. Maria. 608 45 88.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

Ofiati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai Bidebarrieta. Terrazarekin. Eguzkitua. Hiru logela; bi bainugela, egongela eta sukaldea. Ganbara eta garaje barne. 665 74 98 47.

103. ERRENTAN EMAN

Bergara. Etxebizitza jantzia ematen da errentan. Deitu 943 76 45 15 edo 652 53 42 81 telefono zenbakietara.

Ofiati. Etxebizitza ematen da errentan, hileka, Olakua auzoan. Ikerlentzeko edo behar puntualak betetzeo. Deitu 660 40 06 75 zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Aramaio. Etxebizitza nahi dugu errentan. Bikote arduratsua. 615 73 79 11 edo 669 12 25 63.

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Urgentea da. 669 12 70 98.

Bergara. Etxebizitza errentan harkuto nuke. 610 91 33 40.

Bergaran, Antzuan edo Ofiati. familia batek errentan harkuto luke etxebizitza. 645 72 92 87.

Debagoiena. Bikote arduratsua baserri osoa edo baserri bateko logela harkuto luke errentan. 665 70 10 57.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta. Logela ematen da errentan. 620 60 54 14.

Arrasate. Gela ematen da errentan unibertsitate ondoan. Berogailuarekin eta ikasteko mahaiarekin. Toki lasia. 630 71 35 83.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. 662 63 76 33.

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. Pertsona bakarrarentzat. 666 21 88 95.

Arrasate. Logela ematen da errentan. Oso egoera onean. Telebistarekin. 696 53 36 44.

Arrasate. Malvinas auzoan. Oso egoera onean dagoen etxebizitza batean pertsona bat behar dugu etxeoa osatzeko. Deitu 616 05 92 70 telefonora.

Bergara. Logela ematen da errentan Bolun, sukaldea eraubiltzeko aukerarekin. 250 euro. 670 85 86 68.

Bergara. Logela hartuko nuke errentan. 690 97 44 32.

Donostia. Pertsona bat behar da etxeoa osatzeko. Antiguan. Deitu 652 71 52 50 zenbakira.

2/ GARAJEAK**203. ERRENTAN EMAN**

Ofiati. Garaje txixa ematen da errentan Portukalen. Deitu 943 78 23 91 telefonora.

3/ LOKALAK**303. ERRENTAN EMAN**

Bergara. Dendarako lokalak emango nuke errentan erdigunean. 627 96 19 22.

4/ LANA**402. ESKAERAK**

Aretxabaleta. Pertsona nagusiak zaindutu nitzuketik, goizez eta arratsaldez. Espertientzia daukat. Feli. 943 53 33 92.

Arrasate. Emakumezko edo zaindutu lan egiteko gero, goizez edo arratsaldez. Doris. 943 77 02 14 edo 646 86 43 89.

Arrasate. Esperientziadun neska gerto umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 618 00 08 28.

Bergara. Bergarako emakume euskalduna lanerako gerto. Umeak zaintzen, etxeko lanetan edo garbiketan. Paperak ditut. 686 99 51.

Bergara. Pertsona nagusiak zaindutu nituzke 24 orduan. Era berean, etxeko lanak egindo nituzke. Paperak ditut. 686 05 07 93.

Debagoiena. Edozein lan egiteko gerto nago: garbiketak, nagusiak zaindu. Etxean bertan bizitzeko prest. Ana Luisa de los Santos. 943 25 07 53.

Debagoiena. Era guztietako jostun konponketak egiten ditut. 699 34 88 68.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU
102. EROSI
103. ERRENTAN EMAN
104. ERRENTAN HARTU
105. ETXEAK OSATU
106. BESTELAKOAK

2. GARAJEAK

201. SALDU
202. EROSI
203. ERRENTAN EMAN
204. ERRENTAN HARTU
205. BESTELAKOAK

3. LOKALAK

301. SALDU
302. EROSI
303. ERRENTAN EMAN
304. ERRENTAN HARTU
305. BESTELAKOAK

4. LANA

401. ESKAINITZAK
402. ESKAERAK
403. BESTELAKOAK

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO
502. EMAN
503. BESTELAKOAK

6. MOTORRA

601. SALDU
602. EROSI
603. ALOKATU
603. KONPONDU
604. BESTELAKOAK

7. ANIMALIAK

701. SALDU
702. EROSI
703. EMAN
704. BESTELAKOAK

8. DENETARIK

801. AGURRAK
802. HARREMANAK
803. DEIAK
804. BESTELAKOAK

9. HARREMANAK

901. AGURRAK
902. HARREMANAK
903. DEIAK
904. BESTELAKOAK

10. RELAX

801. GALDU
802. EROSI
803. EMAN
804. BESTELAKOAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarri ditugu. Ordurako horretatik aurrera ez da onartuko aldaketa eta ezta iragarkia bertan behera utzterik ere.

943 25 05 05

sailkatuak@goiena.com | http://www.goiena.net/sailkatuak

PARTIKULARREN IRAGARKIAREN ORDAINDUTAKO ATALAK:

ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Debagoiena. Neska gerto garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edota tabernan lan egiteko. Alejandra. 608 34 36 11.

Debagoiena. Bigarren mailako ofiziala, ostalaritzaritza laguntzailea edo garbiketa lanak egindo nituzke. 649 62 88 22.

Debagoiena. Bigarren mailako ofiziala lanerako gerto. Espertientzia handia. 610 63 17 71.

Debagoiena. Bigarren mailako ofiziala prest lan egiteko. Espertientzia daukat. 667 94 07 25.

Debagoiena. Emakumea gerto garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeo. Deitu 678 24 94 24 zenbakira.

Debagoiena. Emakumea gerto garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeo. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egiteko. 672 25 92 20.

Debagoiena. Mutila gerto lanerako gerto. 618 34 09 35.

Debagoiena. Mutila prest lanerako. Nekazaritzako lanak, pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Deitu 650 96 23 08 zenbakira.

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke etxean bertan bizi izaten, edo bestela. Deitu 680 30 24 64 telefonora.

Debagoiena. Emakumea lanerako gerto. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 606 64 16 09.

Debagoiena. Emakumea gerto umezein nagusiak zaintzeo edo etxeko lanak egiteko. Deitu 943 77 01 66 telefonora.

Debagoiena. Emakumea lanerako gerto. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 617 73 79 02.

Debagoiena. Emakumea gerto umezein nagusiak zaintzeo edo etxeko lanak egiteko. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.


Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak zaintzen lan egindo nituzke. Deitu 678 24 94 20 59 20.

Debagoiena. Mutila gerto zerbitzari, sarako laguntzailea edo nagusiak

Debagoineneko GREMIOAK



AROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA

Bergara
• Ateak, leiohoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaleak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
www.goiena.net/blogak/azkarate

ELEKTRIZITATEA

AITZORROTZ ELEKTRONIKA

Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboa
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

ARANZABAL KOOP. E.

Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboa
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

ARETXARGI

Aretxabaleta
• Instalazio elektrikoak
Belorrieta 15 behea
T: 943 532 628 / 645 734 032
F: 943 532 629
aretxargi@euskalnet.net

BELLIDO ELEKTRIZITATEA

Oñati
• Erreformak orokorean
• Marka guztietako etxetresna elektronikoien konponketa
Kale zaharra 60 - 3 erd.
T: 943 78 23 10 / 615 74 94 94

RELE

Eskoriatza
• Instalazio elektrikoak
Santa Ana 12 eta 17
T: 943 71 41 65 / 943 71 41 12
F: 943 71 41 65 / 943 71 41 12

ERAIKUNTZAK

ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
e.arrasate@euskalnet.net

FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

IGELTSEROAK

DE LA TORRE IGELTSEROTZA

Eskoriatza
• Barruko lanetan espezialitatea
• Berrikuntza-obra orokorean, azulejo-estaldura, aldaketak, gremioen koordinazioa
Intxartxueta 7, 2D
T: 943 71 52 64 / 639 76 29 27
Dela-torre@euskalnet.net

ITURGINTZA

ARETXABAleta ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Sukalderako eta bainugelarako altzariak
Santa Kurtz 24, behe
T: 943 79 17 53
F: 943 79 17 53

EGIA ITURGINTZA

Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behe
T: 943 77 01 85

IMANOL ITURGINTZA

Arrasate
• Iturgintza
• Berogailua eta gasa
• Bainugelak
Kale Txiki 9 behe
Tel.: 943 79 05 95 / 609 67 96 15

YOANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

TXORROTA

Arrasate
• Berogailua eta gasa
• Galdrak aldatzea
• Obra integralak
• Zaharberritzeak
Bolibar doktorea 5, behe C
Tel: 943 77 17 13 / 607 26 04 17
F: 943 77 17 13

URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztia
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

VALES ITURGINTZA

Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 178 046

LEIHOAK

ARGI-PLASTIC

Arrasate
• PVC leiohoak
• Aluminio termikoko leiohoak
• Poliuretanozko leiohoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

ION LEIHOAK

Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoina Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

YOSU THERMIK

Arrasate
• Leioho eta ate isolatzaleak
• PVC leiohoak
• Aluminio termikoko leiohoak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

IZBAR

BERGARA
• Leihoa eta ate isolatzaleak
• Aluminio termikoak, PVC mota ezberdinak
• Kontraleihoa errustikoak eta mallorkinak
• Horma apaingarriak barrualderako eta imitazioak harri eta marmolean.
San Lorentzo industrialdea, Urarte kalea 20
Tel: 943 79 69 91

LOREZAINZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorenzaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

MARGOAK

APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate
• Pintura orokorean
• Pareztatzeak
• Errrotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Yaiza Exposito > Diagnostiko Klinikoko ikasketak egin ditu

"Zailagoa da saskiratze erabakigarri bat sartzea odola ateratzea baino"

Expositok bizitza guztia darama saskibaloian jokatzen: "Txikitik ibili da herriko saskibaloitalean. Kadete maila zuenean gaztekin jokatzen zuen; izebarekin batera ere jokatu du Expositok. Bilbon egin zituen Diagnostiko Klinikoko ikasketak, eta orain, martxo amaieran izango dituen oposizioak prestatzen dabil.

Betidanik dena saskibaloian jokatzen. Nola gogoratzen dituzun hasierak?

Gogoan daukat asteburu guztietai izebareni partiduak ikus- tera joaten nintzen". Odol bero- ko neska dela esan digu, "baina azkenaldian nahiko lasai nabil".

Kantxan neska lasaia zara ala odol berokoa?

Entrenatzaleak esaten didanagatik, badaukat odol beroa eta jokoaren egoerak eragina izaten du nigan. Horren arabera, lasaia- go edo urduriago egon naiteke, eta kanpotik jendeak ere halaxe ikusten nau! Bainaz azkenaldian nahiko lasai nabil...

Saskibaloiaz gain, oposizio batzuk ere prestatzen bazabilitza ezta?

Martxo amaieran edo apiril hasieran izango ditut oposizioetako azterketak. Diagnostiko Klinikoko Laborategiko Teknikari ikasketak egin ditut Bilbon. Osasun eta laborategi mundua beti izan dut gustuko. Lan honek hori dauka, beti egon behar duzula laborategian laginak aztertzen eta sendagileak esaten dituen probak egiten.

Atzo zure urtebetetzea izan zen. Zein izango litzateke egin diezazuketen oparirik onena?

Zentzu horretan ez naiz per- tsona materialista. Nire urtebetetzeaz gogoraztearekin nahikoa da. Bainaz zerbaite eskatu beharko banu, ondorengo izango litzateke: Bartzelonara joan eta Bar- tzelonaren saskibaloia eta futbol partidu bana ikustea.

Zer da zailagoa: odola ateratzea ala partidu bateko saskiratze erabakigarria sartzea?

kirolari askok bezala bera ere superstitiosoa da: "Partidu bat hasi aurretik berotze arikete-

tako azken saskiratzea sartzea gustatzen zait, eta aldagelan beti armairu bera izatea".

JASONE ZABALA > ESKORIATZA

Yaiza Exposito (Eskoriatza, 1987) txikitik ibili da herriko saskibaloitalean. Kadete maila zuenean gaztekin jokatzen zuen; izebarekin batera ere jokatu du Expositok. Bilbon egin zituen Diagnostiko Klinikoko ikasketak, eta orain, martxo amaieran izango dituen oposizioak prestatzen dabil.



JASONE ZABALA

PERTSONALA

Herria: Eskoriatza. **Adina:** 22 urte. **Ikasketak:** Diagnostiko Klinikoko Laborategiko Teknikaria. **Zale- tasunak:** Saskibaloia eta musika. **Ikusi duzun azken pelikula?** Piratas del Caribe: El fin del Mundo. **Musika taldea:** El Canto del Loco eta Antonio Orozco.

Jokalari bat: Juan Carlos Navarro. **Mania bat:** Iraungipen datak begiratzea. **Gorrotatzen duzun zerbaite?** Bidegabekeria. **Bidaiatzeko leku bat?** Bartzelona. **Bizi izateko leku bat?** Eskoriatza. **Amets bat?** Talde handi batean jokatu edo entrenatzale lanak egitea.

Inongo zalantzak gabe, zailagoa da saskiratze erabakigarri bat sartzea odola ateratzea baino. Saskiratze bat lortzeko orduan faktore asko izan behar dira kontuan: presioa, saskiratzea botatzeko orduan kantxan zein lekutan zauden, jaurtiketa egiteko gelditzen den denbora... Odola ateratzeko orduan ez daukazu halakorik.

Musika ere gustuko duzu. Zein musika mota?

Denetarik entzuten dut; baina gehien gustatzen zaidana pop-rocka da. Momentuaren arabera gauza bat edo beste entzuten dut, baina beti daramat gainean nire MP3a.

Kirolari asko superstiziosoak dira. Zuk badaukazu halakorik?

Egia esan, bat edo beste badaukat... Besteak beste, partidua hasi aurretik berotze arketetako azken saskiratzea sartzea edo kiroldegiko aldageletan armairu bera izatea beti.

Partidua hasi aurretik saskiratze hori bota ezean, ezberdina izango litzateke partidua?

Seguru aski, ez. Bainaz azken saskiratze hori bota ezean, beti geldituko litzaide susmo hori. Taldekiek ere badakite hori, eta azken saskiratzea nik egitea ahalbidetzen dute; hori egitea ezinbesteko da niretako.

Eta norbaitek aldagelako zure armairua erabiltzen badu...

Egia esan, inork ez du erabilten, izkina batean dagoelako; eta tarte hau aprobatxatuko dut dagozionari esateko eskulekua ez dagoela egoera onean eta mese- dez konpontzeko!

Entrenatzalea ere bazara. Non urduriago, jokatzen ala entre- natzen?

Eskoriatzako kadete mailako neskae entrenatzen ditut eta bi eratara jartzen naiz urduri.

Saskibaloi munduan zabilzta- netik, zein da inoiz ahaztuko ez duzun momentua?

Momentu asko dira. Besteak beste, gazte mailako jokalaria nintzenean nagusiekin jokatu nuen lehen partidua; bigarren maila nazionalean jokatu nuenean, baita 2004ko jokatu genuen lehen lauko finala... Bainaz aipatu beharko banu, izebarekin nagusien mailan jokatu nueneko momentua.

Etxeko ospitalizazio zerbitzua 'Goiena magazinea'-n

Etxeko ospitalizazio zerbitzua, Al Andalus elkartea eta Blanca Roncal 'Magazinea'-n

GOIENKARIA > BERGARA
Datorren astean, hiru izango dira Goiena Telebistak eskainiko dituen *'Goiena magazinea'* saioak; San Joseko zubia dela-eta, egunean eta egubakoitzean ez da ohi-ko emisorik izango. Asteleheneko saioan, baina, Txomin Madi-nak Arrasateko Al Andalus

elkartera hurbilduko gaitu. Al Andalusko kideen eskutik, egoitza eta martxan ipintzen dituzte egitasmoen berri jasoko dugu. Martitzenean, bestetik, Debagoieneko ospitalearen etxeko ospitalizazio zerbitzuaren jarduna eka-rriko digu Arrixu Barrusok. Zerbitzuko Arantzazu Ugarte medikuak lagunduko dio horretan. Eguaztenean, berriz, PSE-EE-ko legebiltzarkide Blanca Roncal izango da solasaldi saioan.

GOITB, 'Magazinea'

> Egunero, 19:45ean.



Arantzazu Ugarte etxeko ospitalizazio zerbitzuko medikua.

HABE ALDIZKARIA

Umeendako antzerkia eta masajea

UBANE MADERA > ARRASATE
Nora zoaz, Txanogorritxo? Antzezlan horretarako sarre-rak dira asteon irratian zoz-katuko dituztenak. Amaia Udal Antzokian da ikuskizuna, bihar, zapatua, 18:00etan. Bestalde, Electric Riders, Captain Nemo eta T-Sex taldeek jardungo dute gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 22:30ean. Bada, horrako sarrerak ere badituze irratian. Eta, jakina, asteroko masaje bonua ere zozkatuko dute.

Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'

> Egubakoitzza, (martxoak 13), 11:30etik 12:00etara.



Datorren egueneko 'Musikantoi' saioan, Lendakaris Muertos

Datorren egueneko *Musikantoi* saioan Lendakaris Muertos Iruñeko taldea ikusi ahalko duzue kontzertuan. Punk gogorra egiten duen taldearen repertorioa abiadura handiko eta ironiaz beterik abestiz osatzen da. 2006an eta 2007an, hurrenez hurren, Madril eta Bartzelonan eskaintako kontzertuak berreskuratu eta horiekin osatutako saioa prestatu dute *Musikantoi* saioko lankideek.

GOITB, 'Musikantoi'

> Eguena, 20:45
> Astelehena, 18:15

tele begi

Oihane Agirre
> oagirre@goiena.com

Euskara entretenigarri

Bederatz eta berdiak izaten dira, sofan lasai jarri, mandoa hartu, eta 70 kateren artean aukeratzen hasten naizenerako. Informazioetan kirolaren txanda izaten da, pas! Telessail bat, eta beste bat, pas! Azkenean, Kike Amonarrizekin eta Ilazki Serranorekin topo egiten dudan arte; hortxe amaitzen da batzuetan nire aukera. Lehiaketa formatu arina du *Mihiluze* saioak; saio bakoitzean hainbat proba gainditu behar izaten dituzte lehiakideek. Euskararen inguruan hainbat proba aurkezten dituzte egunero, eta ni, behintzat, entretenitzan naute. Ikuslearri ere jarrera aktiboa eskatzen dion forma-tua da. Eta saria ere ez da edonolakoa: egunero 6.000 euro daude jokoan. Aurrez gutxitan ikusi ahal izan dugu ETB1en holako sari potolotik eskura daitekeen lehiaketarik. Audien-tziei erreparatuta, ETBko saiorik ikusietakoa da, *Goenkale* eta *Betizu* saioen ondoren.

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarritzeta, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusidako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoan (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarriketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurra (parte hartzeko: 943 25 05 05) (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga)
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

astea GOITBn

EGUBAKOITZA, 13	ZAPATUA, 14	DOMEKA, 15	ASTELEHENA, 16	MARTITZENA, 17	EGUAZTENA, 18	EGUENA, 19
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Trikitraka trikiton.	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	13:15 Marrazki bizidunak	08:00 Marrazki bizidunak.
13:45 Ur eta lur.	09:00 Marrazki bizidunak.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Erlo klip.	13:45 Ikusten: Birbira.	13:45 Ikusmira.	10:30 Trikitraka trikiton.
14:15 Eltze beroa.	10:30 Trikitraka trikiton.	11:30 28 klip.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa: Risotoa.	14:15 Gure saltsan	11:30 Golb tb.
14:45 Berriak.	11:30 Golb tb.	12:00 Erloklip	14:45 Berriak.	15:15 Ikerriko krossa	14:45 Berriak.	12:00 Euskal herria lau haizetara.
15:15 Berbaire.	12:00 Euskal herria lau haizetara.	12:30 Ikerkizuna.	15:45 Erreportajea.	15:45 Erreportajea.	15:10 Ilunpean.	12:30 Ikerkizuna.
16:15 Ikusten.	12:30 Ikerkizuna.	13:00 Erreportajea.	16:15 28 klip.	15:10 Harmailatik.	15:50 Golb tb.	13:00 Eltze beroa.
16:45 Berriak.	13:00 Eltze beroa.	13:45 Solaskide.	16:45 Berriak.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip.	14:30 Trikitraka trikiton.
17:15 Marrazki bizidunak.	14:30 Trikitraka trikiton.	14:15 Eltze beroa.	17:15 Marrazki bizidunak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	15:30 Marrazki bizidunak.
18:00 Ilunpean.	15:30 Marrazki bizidunak.	15:15 Gure saltsan.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	18:00 Erreportajea.
18:45 Berriak.	18:00 Erreportajea.	15:45 Marrazki bizidunak.	17:45 Wazemak	17:35 Erreportajea.	17:45 Solaskide.	18:30 Solaskide.
19:15 Marrazki bizidunak.	19:00 Erreportajea.	18:15 Trikitraka trikiton.	18:15 Musikantoi	18:05 Harmailatik.	18:15 Ur eta lur.	19:00 Erreportajea.
19:45 Goiena Magazinea.	19:30 Berbaire.	19:15 Erreportajea.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:30 Berbaire.
20:45 Gure saltsan.	20:30 Golb tb.	19:45 Solaskide.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.	20:30 Golb tb.
21:15 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.	20:15 Wazemak.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	21:00 Ikusten.
22:15 Solaskide.	21:30 Ilunpean.	21:15 Euskal herria lau haizetara.	20:45 Golb tb.	20:45 Golb tb.	20:45 Golb tb.	21:30 Ilunpean.
22:45 Wasemak	22:45 Erreportajea.	21:45 Berbaire.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.	22:15 Musikantoi.
13:45 Goiena Magazinea.	23:30 Wazemak.	22:45 Golb tb.	22:15 Wazemak.	22:15 Ilunpean: Aitzol Zubizarreta.	22:15 Erreportajea.	22:45 Erreportajea.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)	00:30 28 klip.	23:15 Ilunpean.	23:00 Erreportajea.	23:00 Wazemak	22:45 Mugaz kanpo.	23:30 Wazemak.
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.	01:00 Emisio amaiera.	00:00 Itsasora begira.	23:30 Goiena Magazinea.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.
		00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:30 Emisio amaiera.	00:15 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.

herritarrak galdezka

OÑATIKO SAN MARTINGO ZUHAITZAK BOTA EGINGO DITUZTE?

Oñatiar batek bidali digu aste hontan kexa; kontuada San Martindik Murgia auzora doan bidea urbanizatzen hasi direla duela aste batzuk; eta auzotar horrek jakin gura du ea San Martingo zuhaitzak moztu egingo dituzten edo ez. "Beti errazena dena egiten da, bidea zabaldu nahi den bakoitzean zuhaitzak moztu, eta San Martingo zuhaitzak urte asko dituzten zuhaitzak dira; ez dago beste modurik zuhaitz horiek moztu gabe eta natura ondatu gabe urbanizazio lan horiek egiteko?", galdezen du auzotarrak.

Udaleko Ingrumen zinegotzi Angel Biainekin hitz egin dugu eta hark adierazi digu ez dituztela San Martingo zuhaitzak moztuko urbanizazio lanen ondorioz: "Urbanizazio lanek aurrera jarraituko dute, baina zuhaitzak ez dira inondik inora moztuko, hori ez da inondik inora Udalaren asmoa".

Modu horretan, urbanizazio lanek honela jarraituko dute: zubieren eskuinetara zeuden etxeak bota egin dituzte. San Martin zubitik zaharraren egoitzaraino eskuin aldetik zabalduko dute bidea. Biainek esan digunaren arabera, bertan dagoen pareta 0,5 metro atzeratuko dute. Handik gora ezkerretik zabalduko dute; alegia, etxe berriak egiten dihar-duton tokitik. Guztira 12 metroko zabalera izango du bideak zatirik estuenetan. Baino hori guztiori, San Martingo zuhaitzak "inondik inora" ukitu gabe, esan digu Biainek.

Horrela, bertan egingo dute 1,5 metroko espaloia, 2,5 metroko bidegorria, espaloia eta bi norabideko 6 metroko bidea San Martin-Zuhazti bukaeraraino.



Irudian, San Martindik Murgiara doan bidea.

MIREIA BIKUNA

NOIZ EMAN BEHAR DIRA TXERTOAK?

Arrasateko irakurle batek ondorengo zalantza dauka: "Gaztetan, eskoila garaian, hainbat txerto ematen ziguten eskolan. Jakin nahi dut noiz zaharkitzen diren txerto horiek eta ea berriro hartu behar ditugun. Adibidez, tetanoa 16 urterekin eman ziguten,

Galdera egiteko:

Zerbaitek arduratzentz bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzi galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin.

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goienea.com

eta orain 26rekin berriro hartu behar da? Nor Joan behar dugu txertoa hartzera? Derrigorrezkoa da?".

Aretxabaletako Anitua farmazioko ekin hitz egin dugu gai horri buruz, eta adierazi digute txikitian emandako txerto gehienak betiko direla eta ez dagoela errepikatu beharrik. Baina tetanosa adibidez ez; txerto hori errepikatu egin behar dela esan digute. Gogorapen dosia deitzen dena eman behar da hamar urtero. "Beraz, 16 urterekin eman baduzu azken txertoa (hori da normalena), 26 urterekin eman behar da berriz", esan digute farmaziatik. Ondorengoa da jardumbidea horrelakoetan: familia-koko medikuak ematen dizu erizaina-rengana joateko bolantea eta anbulatorioan txertoa ematen dizute; dokaoa da. "Ez da derrigorrezko, baina beti da komenigarria. Norberak ikusi behar du. Adibidez, kanpora bidaiatzeko atzerriko osasun zerbitzuetan delakoan ia-ia beti gomendatzen duten txertoa da".

bono fotoa

LARCHAGO

Garmendia Ardoek emandako **Ardo botila packa*** zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

* Larchago iskilarapeko ekologiko 2008.
Larchago kriantza 2006.
Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK
HERRIA..... TEL:

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAK Goienako edozein egoitzara



1973ko martxoan sortutako Gure Ametsa elkartea oso ezaguna da Bergaran. Ze auzotan dago?

Argazkia eta galdera >
Miguel Angel Elkoroberezibar

AURREKO ZENBAIKO IRABAZLEA
Arrasateko Mertxe Sudupe Elorza.
Zorionak!
Erantzun zuzena: Aretxabaletako Jasokunde Andre Mariaren parroquia.

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 14

Goiz partean zerua garbi egongo da eta temperatura atsegina izango da; eguerditik aurrera hodei gehiago eta euria egin dezake.



Domeka, 15

Temperatura ez da 20 gradutik igo-ko eta eguzkia tarteka egongo den arren, zerua hodeitsu egongo da.

EUSKAL HERRIAN

Eguraldi atseginak asteburu guztiak zehar, nahiz eta euri tantaren bat ere bota dezakeen; astean hodeiekin hasiko badugu ere temperatura atseginak eta eguzkia izango da nagusi.



TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

MINIMOA	1ºC
Eguena, 5	
Eguaztena, 4	8 2 1,8
MAXIMOA	19ºC
Martitzena, 10	10 4 26,5
ASTEKO EURIA (l/m³)	94,6 L
Zapatua, 7	11 7 16,7
Domeka, 8	12 9 10,2
Astelehena, 9	11 6 -
Martitzena, 10	19 3 -

Max. °C	Min. °C	Euria l/m³
Eguaztena, 4	8	2 1,8
Eguena, 5	8	1 39,4
Egubakoitzta, 6	10	4 26,5
Zapatua, 7	11	7 16,7
Domeka, 8	12	9 10,2
Astelehena, 9	11	6 -
Martitzena, 10	19	3 -

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 14	Amezua	Santa Marina, 32	943 79 09 74
Domeka, 15	Español	Araba Etorb., 14	943 79 18 65
Astelehena, 16	Ruiz	Nafarroa Etorb., 1	943 79 14 09
Martitzena, 17	Etxeberria	Zarugalde, 42	943 77 16 30
Eguaztena, 18	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Eguena, 19	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Egubakoitzta, 20	Corcuela	Maisu Aranbarri	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 14	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Domeka, 15	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Astelehena, 16	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Martitzena, 17	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguaztena, 18	Urrutikoetxea	Oixirondo, 4	943 76 11 74
Eguena, 19	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Egubakoitzta, 20	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05

ONATI

Zapatua, 14	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Domeka, 15	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Astelehena, 16	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Martitzena, 17	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22
Eguaztena, 18	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Eguena, 19	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Egubakoitzta, 20	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16

ARETXABALETA

Zapatua, 14	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 15	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 16	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Martitzena, 17	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguaztena, 18	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Eguena, 19	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28
Egubakoitzta, 20	Agirre (Esko.)	Gorosarri plaza	943 71 48 28

Guardiako farmaziak eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZA.

ESKER ONA

Agustin Gallastegi Lamarain

Angiozarren hil zen 2009ko martxoaren 11n, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren 15ean, 11:00etan, Angiozarko Mikel Goiaingeruaren elizan.



Bergaran, 2009ko martxoaren 13an.

ESKER ONA

Vicenta Leceta Letamendi

Jose Uriarteren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 8an, 90 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Haren arimaren aldeko meza domekan, martxoaren 15ean, 11:00etan, Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren.



Arrasaten, 2009ko martxoaren 13an.

eskontzak



Aretxabaletako **Lorea Isasmendi** eta Beasaingo **Unai Aranburu** martxoaren 14an ezkondu dira Olabarriako Udaletxean. Eztei-bidaian mediterraneoan barrena itsas-bidaia egindo dute. Zorionak bikote, familia eta kuadrilla guztien partetik.

ESKER ONA

Maria Ortueta Irasuegi

Leon Kortabarriaren alarguna

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 5ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.



Aramaion, 2009ko martxoaren 13an.

ESKER ONA

Jose Luis Ozaeta Etxabe

Txokolo

Arrasaten hil zen 2009ko martxoaren 9an, 57 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko haren anai-arreben izenean.



Arrasaten, 2009ko martxoaren 13an.



Bergarako **Mireia Larrañaga** eta Elgetako **Iban Arantzabal** otsailaren 28an ezkondu ziren Elgetako udaletxeen. New Yorkera egin dute ezkon-bidaia. Lagunen partetik, zorionak.



Aretxabaletako **Kepa Bengoa** eta Oñatioko **Iratxe Igartua** martxoaren 14an ezkondu dira Oñatioko udaletxeen. Familiakoek ospatuko dute, bazkari ederra eginda. Ondoren, New Yorkera eta Punta Canara joango dira bidaian. Zorionak, bikote, familiako eta lagunen partetik.

ESKER ONA

Elena Lizarralde Mugika

Francisco Eraña Balanzategiren alarguna

Bergaran hil zen 2009ko martxoaren 6an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrik bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.




Bergaran, 2009ko martxoaren 13an.

X. URTEURRENA

Juan Jose Garmendia Berezibar

Yanyo

Gogorra izango da onartea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizitzen garen artean ez zaitugu, ez, ahaztuko.



Zure lagunak.

Arrasaten, 2009ko martxoaren 13an.

hildakoak

- **Jesus Alberdi Garbizu.** Bergaran, martxoaren 2an. 77 urte.
- **Maria Ortueta Irasuegi.** Aramaion, martxoaren 5ean. 89 urte.
- **Ignacio Galdos Urtzelai.** Oñatin, martxoaren 5ean. 70 urte.
- **Jose Kortabarria Gabilondo.** Antzuolan, martxoaren 6an. 80 urte.
- **Elena Lizarralde Mugika.** Bergaran, martxoaren 6an. 75 urte.
- **Eugenio Sagasta Juaristi.** Arrasaten, martxoaren 6an. 77 urte.
- **Pedro Sologaistoa Iriarte.** Arrasaten, martxoaren 6an. 88 urte.
- **Adelina Usabiaga Gisasola.** Bergaran, martxoaren 8an. 56 urte.
- **Vicenta Lezeta Letamendi.** Arrasaten, martxoaren 8an. 90 urte.
- **Ana Jimenez Garcia.** Arrasaten, martxoaren 8an. 87 urte.
- **Antonio Fernandez Armiño.** Arrasaten, martxoaren 9an. 77 urte.
- **Jose Luis Ozaeta Etxabe.** Arrasaten, martxoaren 9an. 57 urte.
- **Mari Carmen Urkia Uriarte.** Arrasaten, martxoaren 10ean. 57 urte.
- **Agustin Gallastegi Lamarain.** Bergaran, martxoaren 11an. 88 urte.

URTEURRENA

Juan Juaristi Gurrutxaga

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Nicasio Puertas Mayordomo

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Loren Ormaetxea Nieva

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

Reyes Alberdi Muruamendariz

Lehen urteurreneneko meza domekan, martxoaren 15ean, 12:30ean, Bergarako San Pedro parrokian.



Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Babeslea:



Hileta Zerbitzuak

Beilatekia
Etengabeko zerbitzu
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Martxoak 13-20

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa
eguzteteneko egurdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Fax: 943 25 05 13

Musika



BERGARA

> 'Miserableak' musikala zapatuan, Musika Eskolaren 25. urteurrenean

Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrenako ospakizunen barruan, *Miserableak* ikuskizuna bihar, zapatua, Udal Pilotalekuuan, 19:00etan eta 20:30ean. Sarrerak 15 eurotan eta 12 eurotan eskuratu ahal izango dira.

Antzerkia



ARRASATE

> 'Nora zoaz, Txanogorritxu?' umeenda-ko antzezlan bihar, zapatua

Deabru Beltzak taldearen esku, haurrei zuzendutako antzezlan izango da zapatuan Amaia antzokian, 18:00etan. Ipuinaren bertsio aske horretan denetik gerta daiteke eta dena gertatzen da; ustez ez dauden pertsonaiak egotea, adibidez.

Erakusketa



ARAMAIO

> Gervasio Sanchez kazetariaren argazkiak udaletxearen, domekara arte

Bizitza minatuak izenburuapean, Gervasio Sanchezen erakusketak pertsonen kontrako minak salatzea du helburu. Zapatuan 12:00etatik 14:00etara eta 17:30etik 19:00etara eta domekan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 19:00etara.

Musika

ESKORIATZA

> The Wet Band gaur eta The Auambas zapatuan

Aitzorrotz kultura elkartek antolatuta. The Wet Band taldeak azken Danbaka lehiaketa irabazi zuen. The Auambas bizkaitarrak Idiazabalgo pop-rock lehiaketan nagusitu ziren.

Gaur, egubakoitza, eta bihar, zapatua, Inkernu tabernan, 22:30ean.

ARETXABAleta

> Txistu emanaldia eguztenean

Lizarra Musika Eskolako taldearen esku. Eguztenean, martxoaren 18an, Zaraia aretoan, 18:30ean.

OÑATI

> Bi kontzertz gaztetxeen datorren astean

Eguztenean, hilak 18, Leave it to me eta Sospechosos; zapatuan, hilaren 21ean, Kineska Ta Kakarrastua Kumunzuluan eta Klavo Oxidado.

Eguztenean 19:00etan eta zapatuan 18:00etan.

ARRASATE

> Elizondoko Banda eguztenean Amaia antzokian

Arrasateko Musika Eskolak eta Elizondokoak antolatutako elkartruke musicalaren barruan.

Eguztenean, martxoaren 19an, Amaia antzokian, 19:30ean.

Antzerkia

BERGARA

> 'Jaque' helduendako antzezla-na martxoaren 20an

Oihulari Klown taldearen esku.

Datorren egubakoitzean, hilak 20, Zabalotegiko aretoan, 22:30ean.

Ipuinak

ARETXABAleta

> Gaztetoendako ipuinak, Maite Francoren esku

Ipuin kontaketa saioa egindo du Maite Francok. Bihar, zapatua, Arkupen, 11:30ean. Sarrera doan.

Erakusketak

BERGARA

> 'Nafarroa, euskal estatua' erakusketa

Nabarraldek antolatuta. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan, martxoaren 15era arte. Martzenetik egubakoitzera: 18:00-20:00. Zapatuan eta domekak: 12:00 - 14:00; 18:00-20:00.

ARETXABAleta

> 'Emakumeak aniztasunean' erakusketa

Emakumeen Egunaren inguruan antolatuta.

Emakumeen Egunaren inguruan antolatuta.

Arkupen, martxoaren 22ra arte. Aste barruan: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00. Zapatuan: 11:00-13:00.

BERGARA

> Jose Luis Gonzalez Pazosen esku

Zuria izenburuapean, hainbat lan jarri ditu ikusgai. Martzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuan 12:00 - 14:00 eta 18:00-20:30 eta domeketan: 12:00 - 14:00.

Hitzaldiak

BERGARA

> Nafarroari buruzko hitzaldia Floren Aoizekin

1512-2012. Independentziaren galera izenburuko hitzaldia egingo du Aoizek.

Martzenetan, hilak 17, 19:00etan, Udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

ESKORIATZA

> 'Bizkarrezurra eta nerbio sistema' hitzaldia

Andrea Larrañaga kiropraktikoaren esku. Antolatzaileak: Amuska Emakume Elkarte eta Bizikasi.

Martxoaren 24an, 18:30etik 19:30era.

Proiekzioak

ARETXABAleta

> 'Mujeres en la diversidad'

Martxoaren 8ko Emakumeen Egunaren inguruan antolatuta.

Martzenetan, martxoaren 17an, Zaraia aretoan, 19:30ean.

Ikastaroak

ARETXABAleta

> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak

PROPOSAMENA



DEBAGOIENA

> Film laburren emanaldia

Topagunearen VI. Film Laburren Zirkuitua martxan da. Ondoko lanak ikus-teko aukera izango da: *Berde; Musika; Kobia; Egiatik gezurrezko bizitzara; Poema baten irakurketa Euskal Herrian; PD Ondo ibili* (alboan Yera Sanchez aretxabaletarra, egileetako bat), *Bankuaren lapurreta eta Iban del Campo arrastearren Lo bakarrik*.

Gaur, egubakoitza, Bergarako Zabalotegi aretoan, 19:30ean; Arrasaten martxoaren 26an, 19:00etan, Kulturaren; Antzuolan apirilaren 4an, Torresoroaren, 19:00etan.

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak.

Izena emateko Arkupera deitu behar dute interesatuek: 943 08 10 01.

ARRASATE

> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguztetenetan 09:30etik 11:00etara eta martzenetan eta eguztetenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABAleta

> Dantza libre topaketak hilean behin

Jaiki elkartea dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguztenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Apirilaren 23an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo berenaiara@yahoo.es helbidera idatzita.

ARRASATE

> Hasiberriei zuzendutako taila ikastaroa

Hasierako maila martxoaren 23tik aurrera, Arrasateko Tailaginen Elkartearen (Erguina 19, behe).

Izenematea 620 17 42 55 (Jose Mari) telefono zenbakian.

ESKORIATZA

> Masaje bateratua, Jose Luis Armendiarekin

Mendebaldeko masajea (lasaigarria-kiromasajea) eta ekieldeko (digitopuntura-yoga pasiboa) bateratza izango du helburu.

Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, egunero, 17:45etik 19:45era kultura etxeen. Prezia: 40 euro. Izena emateko azken eguna: apirilak 8.

BERGARA

> Kultura Zerbitzuak hainbat ikastaro antolatu ditu

Break dancea (apirila, maiatzeta eta ekaina; egubakoitzetan, 19:00-21:00); eskulanak eta larrua (apirila, maiatzeta eta ekaina; eguztetenetan 18:30-20:30); zeruko izarrak ezagutzen (apirilak 28 eta maiatzak 5; 19:00-21:00) eta sendabelarrak (maiatzeko eguznetan; 18:30-20:30).

Izena emateko epea martxoaren 28a arte zabalki dago kultura etxeen. Argibide gehiago 943 77 91 59 telefono zenbakian.

ARAMAIO

> GPSa erabilten ikasteko ikastaroa Udalarekin

Udalak GPS bat erosi du, hainbat aukera ematen dituena: iparorratzza, altimetroa, mapak eta bailarako interes puntuak zehazteko aukera. Hori horrela, kultura eta kirol taldeei erabiltzeko aukera ematen die

Udalak; betiere, erabiltzeko ikastarotxo bat egin beharko du. Ikastaroa martxoaren 19an izango da.

Izena emateko epea martxoaren 16ra arte dago zabalik. 945 44 50 16.

BERGARA

> Familia enpresaren iraupene-rako tresnak

Jardunaldien hirugarren jardunaldia astelehenean, martxoaren 16an, Miguel Altuna institutuan, 16:00etatik 19:30era.

Argibideak eta izenematea: 943 00 03 09 telefono zenbakian edo avaqueriza@camaragipuzkoa.com helbide elektronikoan.

OÑATI

> Ikastaroak KZGunean martxoan zehar

Hainbat ikastaro egingo dituzte datozen egunotan.

Izenematea 943 71 83 20 telefono zenbakian egin daiteke. Argibide gehiago www.kzgunea.net webgunean.

ARRASATE

> Biodantza ikastaroak

Rakel Ampudia eta Carlos Orellana dira irakasleak.

Argibideak eta izenematea: biodanza-vitoria@gmail.com edo 679 495 836 telefono zenbakian.

Lehiaketak

BERGARA

> Musika moderno lehiaketan parte hartzeko azken egunak

Bergarako Musika Eskolak antolatuta. Parte-hartziale bakotzak, gehienez, bi kantu aurkeztu ahal izango ditu. Lehiaketa modalitate bakar batera mugatu dute, musika modernora, alegia: popa, rocka, bluesa, soula... Irabazleak 400 euro irabaziko ditu eta publikoaren saria jasotzen duenak, 200 euro.

Lanak entregatzeko epea martxoaren 16ra arte zabalik. Argibideak Bergarako Musika Eskolan, 943 76 57 80 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

> Ziberkomiki lehiaketa deitu du Diputazioak

Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomikien eskola lehiaketa antolatu du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Lan onenendako sari bikainak izango dira.


Lanak entregatzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiago www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomikia webgunean.

ARRASATE

> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da gaia. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik. Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian.



Gran Torino ***

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Aktoreak: Clint Eastwood, Bee Vang, Ahney Her.. AEB-Australia, 2008. 116 minuti.

Duela urte batzuk *Banderas de nuestros padres* eta *Cartas desde Iwo Jima*-rekin gertatu zen moduan, hilabete gutxitan Clint Eastwoodrek bi film estreinatu ditu: *El intercambio* eta *Gran Torino*. Lehena ekoizpen handiagoa da, beste garai batean egokituta, eta argumentuari dagokionez komplexuagoa. Bigarrena, oso aurrekontu laburrekoa, 33 egunean filmatuta dago.

Walt Kowalski alargun geratu den agure erretxina da. Senideekin dituen harremanak ez dira batere onak, eta haren auzoan bizi den jendea kanpotik etorritakoa da. Ez du gustuko gaurko gizartea, eta arrazista azaltzen da. Horixe izan daiteke pertsonaiaren azaleko erretretua, baina, istoria aurrera doan neurrian, ohartuko gara nola *koraza* horren azpitik badaudela sentimendu onak ere: hasieran arrazista agertzen bada ere, badaki bereizten pertsonak nolakoak diren, eta horretan datza filmaren mezua: arrazak eta bigarren mailako ezaugarrriak alde batera utzi behar dira; benetako garantia gizakiaren izaera da.

Kowalskik aldamenenean bizi den familia txinatar batekin dituen harremanak ezagutuko ditugu: hasieran oso txarrak, baina, poliki-poliki harremanak garatzen doazneurrian eta gertakizun desberdinak gertatzen direla eta, bi parteen aldetik gerturatzea egongo da, haren beneztako familia bihurtu arte.

Agian, filmaren lehen zatia luzatu samar dago, Eastwoodek gehiegiz jolasten du pertsonaiaren alde ahozabala erakusten. Baino alde komikoarekin batera gertakizun kezkagarriak hasiko dira, eta, horrela, pixkanaka, istorioaren intentsitateak gorantz egingo du: gauzak gero eta beltzago jarriko dira, eta, pertsonaien arteko harremanak ere gero eta estuagoak direnez, ikuslea tentsioarengatik eta sentimenduen eraginagatik harrapatuta sentituko da, eta, bukaeran, zinema aretotik hunkituta irtengo da.

Antonio Zabala

Zinema

ARRASATE

AMAIÀ ANTZOZKIA

Mi nombre es Harvey Milk

Domeka: 19:30.

Astelehenak: 20:30.

City of Ember. En busca de la luz

Domeka: 17:00.

BERGARA

ZABALOTEGI

La momia 3

Zapata: 19:30, 22:30.

Domeka: 19:30.

El patito feo

Zapata eta domeka: 17:00.

Funny games

Eguena: 20:00.

GAZTETXEA

Hacia rutas salvajes

Domeka: 18:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

El curioso caso de Benjamin Button

Egubakoitzeta eta zapata:

22:30.

Domeka: 19:30, 22:30.

Astelehenak: 19:30.

Bonkers (euskaraz)

Zapata eta domeka: 17:00..

ARETXABAleta

ARKUPE

El intercambio

Egubakoitzeta eta zapata:

22:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenak: 16:00.

Misión en Mocland

Domeka: 17:00.

La boda de Tuya

Eguena: 20:00

ARAMAIO

KULTURA ETXEA

La momie (La vie en rose)

Eguakoitzeta: 22:15.

MIKROKULTURA

LA CHIQUITA

Zapata: 17:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenak: 19:30.

La chihuahua en Beverly Hills

Zapata: 17:15.

Domeka: 18:30.

Astelehenak: 19:30.

La pantera rosa 2

Zapata: 16:30.

Domeka: 18:30.

Astelehenak: 19:30.

Cerezos en flor

Zapata: 17:30.

Domeka: 18:00.

Astelehenak: 19:00.

ARRASATE

EL INTERCAMBIO

AEB, 2008.

Zuzendaria: Clint Eastwood.

Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapata goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldakutu da Christine Collinsek bizitza... Benetako gerta-karietan oinarrituta.

BERGARA

EL INTERCAMBIO

España, 2008.

Zuzendaria: Javier Fesser.

Hutsak harroitu dituen filma.

Benetako gerta-karietan oinarrituta, 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzeko du.

Hilorian dago, eta maitemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratu ditu Fesserren lanak.

ARRASATE

CAMILO

España, 2008.

Zuzendaria: Sam Mendes.

50eko hamarkadan, Frank eta April Wheeler bikoteak amets eta itxaropen ugari dituzte. Bizilagunen aldean desberdinak direla pentsatzeko, eta ingurutzen dituen gizarte konformatistak aldiundu nahiz dute.

Frankek gorrotatzen duen lan baten dabil eta Aprilak aktore izan nahiz du Parisen. Gauzak kopilatzen joango zaizkie.

BERGARA

LA CHIQUITA

Zapata: 17:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenak: 19:30.

La chihuahua en Beverly Hills

Zapata: 17:15.

Domeka: 18:30.

Astelehenak: 19:30.

La pantera rosa 2

Zapata: 16:30.

Domeka: 18:30.

Astelehenak: 19:30.

Cerezos en flor

Zapata: 17:30.

Domeka: 18:00.

Astelehenak: 19:00.

BERGARA

LA CHIQUITA

Zapata: 17:00.

Domeka: 19:30.

Astelehenak: 19:30.

La pantera rosa 2

Zapata: 16:30.

Domeka: 18:30.

Astelehenak: 19:30.

Cerezos en flor

Zapata: 17:30.

Domeka: 18:00.

Astelehenak: 19:0

Parisen dabilen hemengo artista

OPERA Iñaki Encina eskoriatzarrak Parisko Opera Nazionalean zuzendari laguntzaile jardun du

IRATI AGIRREAZALDEGI > ESKORIATZA
Paristik datorren artista bat naizni, dio kantuak. Iñaki Encina artista eskoriatzarra Paristik etorri ordez hara joan da musikarako dituen gaitasunak erakustera.

Eskoriatzako plazako musika eskolan jaso zituen bere lehen solfeo eskolak. Gerora musika ikasketak sakondu ditu: "Piano eta klabizenbalo ikasketak egin nituen Gasteizen, Frantzian piano jole laguntzaile ikasketak eta orkestra zuzendaritzat Donostian. Txikitatik egon naiz abesbatzen eta beti maite izan dut ahotsa. Kantu eskolak jaso izan ditut, baita biola eta trabeskako flautakoak ere. Normala da zuzendari bukatzea. Operan, landu ditu eta arlo guztia topatzen dira".

Ikasi ostean erakutsi eta musikan ibilbide oparoa du: "Nire karrera hasiberria da, baina

KANTUA Txikitatik abesbatzen jardun du eta ahotsa maite duenez kantu eskolak jaso izan ditu

gogor hasi naiz. Asko ez da inoiz ailegatuko Parisko operaren mai-la duen opera batera, eta ni hemen nago, nire lehenengo pausoak abeslari eta zuzendari ospetsue-nekin ematen".

2005ean Parisko Opera Nazionaleko Atelier Lyrique delakoan hasi zen piano jole laguntzaile eta zuzendari laguntzaile gero. Aurten karrerako pauzo handia eman du. "Parisko Opera Nazionalaren egoitzan zuzendari laguntzaile jardun dut Mozartren *Idomeneo* operan". Parisen egin ditu batik bat zuzendari lanak, baina zuzendari laguntzaile ere izan da Lilleko operan.

OPERAREN AURREAN EZJAKIN
 Encinak uste du jende gehienak ez dakiela opera zer den: "Zerbait ulertezina abesten duen emakume lodia dute buruan. Estilo eta

gusto guztiendako musika eta istorioak daude. Gainera, gaur egungo eszenak izugarriak dira. Garestia den ustea ere okerra da. Parisen zazpi eurotik aurrera lor daitezke sarrerak, zineman baino merkeagoa".

Zuzendaria izanik, bere musika tresna orkestrako musikariak direla dio. Konplexua da haren lana: "Hasieran, partitura-rekin, konpositoreak esan nahi duena ulertzen saiatzen gara. Gero gure ikuspegia bilatzen, eta asmo horrekin musikariekin jo dezaten lortzen. Azkenik, publikoari gure lana aurkezten. Dena nahi bezala gertatzeari liluragarria da".

Encinaren lana bertatik ber-tara ikusteko Parisera joan behar da: "Oraingoz ez daukat proiekturik Euskal Herrian. Atzerrian arrakasta lortu behar da etxera bueltatu baino lehen", dio.



ZUZENDARIA Iñaki Encina eskoriatzarrak zuzendari dihardu Parisen.

GOIENKARIA

ahobero

"Eroso eta harro nago nire postuan eta ez diot ministro izateari utzi nahi"

Pedro Solbes >
 Ekonomia eta Ogasun ministroa

Krisi garaian nork nahi du, ba, lanpostua galtzea? Lotsa gutxi behar da egunean hain-bestetik jende langabeziaren geratzen denean bere lanpostua galtzeareen gainean horrelako adierazpenak egiteko. Langabezia-bulegoko ilarez berba egin bai, baina bere burua ez du ez horrelako toki batean batere erosu irudikatuko.

iturri onetik

Oñatin izango dira maiatzaren 2an Canon argazki kameraren erabiltzaileak

Canonistas.com foroan biltzen diren Canon etxeko argazki kameraren erabiltzaileek urtero bilkura egiten dute elkar ezagutzeko. Egun batzuk pasatzen dituzte turismoa egiten eta euren zaletasunaz gozatzen. Aurtengo hitzordua Bizkaian eta Gipuzkoan izango da apirilaren 30etik maiatzaren 3ra bitartean. Oñatira ere egingo dute bisita: hain zuen ere, maiatzaren 2an, arratsaldez.

piperraутса

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperraутса

Ardatz sendoa

Hainbat lekutan entzun dut dagoeneko: HUHEZIKO Komunikazio Ikasketak (IKO) eta Goiena taldea Aretxabaletan elkartzeko egitasmoa aztertzen ari omen dira. Esan didate oraingoz ez dagoela gaia lotuta; hain zuen horregatik, eragiteko esperantzarekin azaldu nahi dut nire iritzia.

Bat. Aliantza estrategikoa iruditzen zait, egin beharrekoak, alde bientzat oso mesedegarria. Osagarritasuna erabatekoa da eta ibarrari ardatz ezin sendoagoa jartzen dio. Bi. Debagoienaren ikuspegitik, ez dio askorik axola non kokatzen den egoitza, metro lana egingo duen tranbiaren ondoan bada. Hiru. Eskoriatzarentzat aukera paregabea litzateke Irakasle ikasketak indartzeko, dituen hutsuneak osatz. Hor du iragana, eta hor du merkatu segurua hurrengo hamarkadan.

ai, ene!



Izotzean leihoa eginda leihotik begiratzeko

Elurra, txingorra, hotza... Ez, argazkia ez da gurean ateratakoak, baina bat edo beste seguru ibili dela autoko beirak *garbitzen*.

www.1000imagenes.com

LANDETXEA - CASA RURAL EGUZKITZA



Eibarreko errepidea z/g

Tel. eta faxa: 943 78 90 84 Poltsikoko: 679 41 66 97
 e-posta: casaeguzkitza@hotmail.com



ETA ORAIN ZERBITZU BERRIKIN:
**ZELULAK
 BIRSORTZEKO
 KAPSULA
 ETA MASAJEAK**